

# 2016 BAROMETROA

Jatorri atzerritarra duten biztanleen  
inguruko pertzepzioak eta jarrerak



eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea



ikuspegi

Immigrazioaren Euskal Behatokia  
Observatorio Vasco de Inmigración



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

EMPLEGU ETA GIZARTE  
POLITIKETAKO SALA

Familia Politikako eta Komunitate  
Garapenerako Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EMPLEO  
Y POLÍTICAS SOCIALES

Dirección de Política Familiar  
y Desarrollo Comunitario





## 2016 BAROMETROA

Jatorri atzerritarra duten biztanleen  
inguruko pertzepzioak eta jarrerak



**ikuspegi**

Immigrazioaren Euskal Behatokia  
Observatorio Vasco de Inmigración

*CIP. Unibertsitateko Biblioteka*

**2016** Barometroa [Recurso electrónico]: jatorri atzerritarra duten biztanleen inguruko pertzepzioak eta jarrerak / Ikuspegi, Immigrazioaren Euskal Behatokiak [egindakoa]. – Datos. - Bilbao : Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua = Servicio Editorial, 2017. – 1 recurso en línea : PDF (99 p.)

Modo de acceso: World Wide Web.

ISBN: 978-84-9082-592-1.

1. Inmigrantes - Opinión pública. 2. Inmigrantes - País Vasco - Siglo XXI. 3. País Vasco - Emigración e inmigración - Siglo XXI. I. Ikuspegi, Observatorio Vasco de Inmigración.

(0.034)314.7 (460.15)

(0.034)325.1 (460.15)

**Argitalpen hau nola aipatu:**

*(APA arauen arabera)*

Ikuspegi (2017). *2016 Barometroa. Jatorri atzerritarra duten biztanleen inguruko pertzepzioak eta jarrerak*. Eskuragarri [http://www.ikuspegi.eus/documentos/barometros/2016/bar\\_2016eusOK.pdf](http://www.ikuspegi.eus/documentos/barometros/2016/bar_2016eusOK.pdf)

*Argitaraldi elektronikoa*

Argitalpenaren urtea eta lekua: 2017ko martxoa, Bilbo

Argitaratzailea: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua

Diseinua eta maketazioa: Taide Arteta, Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokia

Dokumentazioa: Antonio Gómez, Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokia

Itzulpena: Bakun Itzulpen eta Argitalpen Zerbitzuak, S.L.

ISBN: 978-84-9082-592-1

# Aurkibidea

|  |    |
|--|----|
| Sarrera  | 5  |
| Metodologia  | 7  |
| 1. Kopuruak  | 9  |
| 2. Jatorri atzerritarra duten biztanleei buruzko iritziak eta jarrerak         | 15 |
| 2.1. Etorkinen presentziaren pertzepzioa: bolumena                             | 15 |
| 2.2. Etorkinen presentzia arazotzat hautematea                                 | 19 |
| 2.3. Immigrazioak EAEko gizartean duen eragina                                 | 22 |
| 2.4. Harrerako komunitatearen eta etorkinen arteko bizikidetza eta integrazioa | 31 |
| 2.5. Immigrazio-politika   | 53 |
| 3. Immigrazioaren aurreko Tolerantzia-Indizea: tipologia bat                   | 61 |
| 4. EAEko biztanleriaren talde handiak  | 73 |
| 5. Ondorioak   | 83 |
| Eranskina  | 85 |
| Eranskina: Galdetegia  | 89 |
| Eranskina: Grafikoa  | 96 |



## Sarrera

“Jatorri atzerritarra duten biztanleen inguruko pertzepzioak eta jarrerak” azken barometrotik urtebete igaro den honetan, Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokiak egindako 2016ko Barometroaren emaitzak aurkeztuko ditugu ondoren. María José Martín Herrero, José Antonio Oleaga Páramo, Gorka Moreno Márquez, Arkaitz Fullaondo Elordui-Zapaterietxe, Maite Fouassier Zamalloa, Iraide Fernández Aragón, Julia Shershneva, Beatriz Otero Gutiérrez eta Maddalen Epelde Juaristi arduratu dira 2016ko Barometroaz. Horiez gain, Taide Arteta Esnal arduratu da txostena lantzeaz, eta Antonio Gómez Parada dokumentazio eta bibliografia euskarriaz.

Txosten hau eginda, helburu hauek bete nahi izan ditugu:

1. 2016ko barometroaren datuak aurkeztea. Euskal gizarteak jatorriz atzerritarrak diren biztanleekiko dituen jarrera, sinesmen, iritzi, balio eta abarren deskribapen panoramikoa jasotzen du barometroak, eta immigrazioarekiko jarrera hobekien azaltzen duten aldagai soziodemografiko garrantzitsuenak nabarmentzen ditu.
2. Jarrera eta iritzi horien bilakaera aztertzea, Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokiak 2004. urteaz geroztik egindako barometroak oinarritzat hartuta. Hain zuzen, gaur egungo barometroen aurrekaria izan zen 2004an egindako lehen barometro hura, eta 2007az geroztik urtero egiten da, metodologia eta eduki aldetik gaur egungo formatuari jarraituz.
3. Krisi garaian edo ekonomiaren goranzko zikloaren amaieran jarrera eta pertzepzio horiek okerrera egingo zutela iragartzen zutenen iritzia edo ustea zenbateraino betetzen den ala ez detektatzen saiatzea.
4. Azpimarratu egin behar da EAEko biztanleria-taldeetan jarrera-alde esanguratsuak ezarri ahal diren arren, antzekotasunak desberdintasunak baino ugariagoak direla: aldagai soziodemografikoek desberdintasunetako batzuk baino ez dituzte azaltzen, eta alde horiek pertsonen artekoak dira gehiago, taldeen artekoak baino. Oro har, biztanle gehienak anibalenteak dira (diskurtso kontrajarriak ditugu) eta taldeen artean dauden desberdintasunak ez dira muturreko jokabideen adierazgarri; aitzitik, gehiago dira ñabardurazko edo intentsitatezko aldeak. Hori ondorioztatzen da, halaber, 2007tik hona egindako immigrazioarekiko tolerantzia-indizearen azterketetatik.

5. Euskal populazioaren tipologia bat eraikitzea, zenbait talderen artean nabarmendu ditugun eta estatistikoki esanguratsuak diren desberdintasunak adierazteko; baina, era berean, azpimarratzea, gure tolerantzia-indizearen arabera, desberdintasun horiek taldeen arteko intentsitate-desberdintasunak direla, baina ezin dela esan muturreko talde kontrajarririk edo polarizaturik dagoenik. 2015eko datuekin alderatuta, tolerantzia-indizeak euskal gizartearen irekitze-mailaren hobekuntza adierazten du.

2016ko Barometroa txostena bost zatitan egituraturik dago:

- Lehen zatian, EAEko bertako biztanleei eta etorkinei buruzko **informazio objektiboa** aurkezten da, nazionalitateen eta haien bilakaeraren arabera. Lehen zatian, EAEko bertako biztanleei eta etorkinei buruzko informazio objektiboa aurkezten da, nazionalitateen eta haien bilakaeraren arabera. Eta egoera hori estatuko gainerako erkidegoetan gertatzen ari diren aldaketekin alderatzen da.

Azken urteetan, eta nazionalizazio-prozesuen harira, EAEn bizi diren atzerritar batzuek bertako nazionalitatea eskuratu dute eta, ondorioz, ez dira atzerritartzat agertzen estatistiketan. Horrexegatik, 2014az geroztik jaioterriaren aldagaia erantsi dugu, migrazio-fenomenoaren ideia zehatzagoa eskuratzeko asmoz.

- Bigarren kapituluan **informazio subjektiboa** aztertzen da: bertoko herritarrek immigrazioaren aurrean dituzten iritzi eta jarrerak. Gai nagusiak bost blokeren inguruan egituratu dira: bolumenaren pertzepzioa, immigrazioa arazotzat hartzea, immigrazioak euskal gizartean dituen ondorioak (ekonomikoak, ongizateari lotutakoak, hizkuntzaren erabilera eta garapena, euskal nortasuna eta harremanen garapena), bizikidetzeta eta harrerako komunitatearen eta immigratzaileen bat-egitea, eta immigrazio-politika.
- Hirugarren atalean, bertakoen tolerantzia-indizea aztertu dugu, pertzepzio eta jarrerei buruzko azterlanean jasotako datuetan oinarrituta.
- Laugarren kapituluan, euskal gizartean dauden talde handiak aurkeztu ditugu laburbilduta, tolerantzia-indizea eta identifikazioarekin loturiko aldagaiak aintzat hartuta.
- Azkenik, bosgarren kapituluan, ondorio nagusiak aurkeztu ditugu, laburtuta.

2016ko barometroaren datuak 2015eko barometroarenak baina hobeak dira, eta krisi osteko agertoki bat finkatu dela markatzen dute. 2016ko barometroa egiteko, egokia iruditu zaigu zenbait berrikuntza sartzea. Horien artean, bi galdera berri azpimarratu nahi ditugu: bata EAEko gizarteak errefuxiatuen fenomenoaren aurrean duen erreakzioari buruzkoa, eta bestea immigrazioarekiko onarpen-mailari dagokionez EAEko gizarteaz dugun pertzepzioari buruzkoa. Halaber, 2016ko barometrorako, galdera-sortan berriro erabili dugu 2007tik 2011ra bitartean egindako galdera bat, herrialde batzuetako eta besteetako etorkinek duten integrazio-mailaren pertzepzioari buruzkoa.



## Metodologia

Euskal gizarteak immigrazioaren inguruan dituen jarrera, sinesmen eta pertzepzioei buruzko txostena da 2016ko barometroa, eta diseinu metodologiko kuantitatibo batetik abiatuta egin da. Erdi egituratutako galdera-sortaren teknika erabili dugu (txosten honen amaieran jaso dugu galdera-sorta hori), eta eskura banatu ditugu galdetegiak. Urtero egiten dugu barometroa, helburu nagusi hauekin: EAEn immigrazioaren fenomenoari buruz gehiago jakitea, euskal gizarte osoari gai horren inguruko informazioa ematea, eta, azken batean, fenomeno sozial hori kudeatzen lan egiten duten pertsona eta erakunde guztiei immigrazioari buruzko ezaguera sakonagoa izaten laguntzea.

Horretarako, 600 inkestako lagin bat diseinatu genuen (EE = % 95, sigma = 1,96 eta Akatsa +/- % 4). Etxez etxeko banakako inkestak egin genizkien EAEn bizi ziren (bertako populazioa) 18 urtetik gorako pertsoneri, eta aukeratutako laginketa habitat-tamainan, adinean eta sexuan oinarritutako kuoten arabera esleipen proportzionalaren bidez estratifikatutakoa izan zen.

Etxeen aukeraketa ausazko ibilbideen sistemaren bidez egin zen, 25 udalerritan banatutako 39 laginketa-puntutan (3 Araban, 10 Gipuzkoan eta 12 Bizkaian). Txosten honetan, gainera, osotasunean garatuko dugu 2016ko barometroko informazioa, eta azpimarratu egingo dugu euskal biztanleria bereizten duten aldagaiak aurkitzearekin eta gure herrialdean immigrazioaren fenomeno hobeto ulertzen lagunduko diguten tipologiaren lanketarekin lotutako guztia.



# 1

## Kopuruak

2016ko urtarrilaren 1ean, EAEn erroldatutako biztanleen % 8,6 atzerrian jaiotakoa da (184.596 lagun). Datuon bilakaerari erreparatuta, duela hamar urte, 2006an, 108.094 lagun ziren jatorriz atzerritarrak EAEn. Hamar urte geroago, jatorriz atzerritarrak direnen kopurua % 74,5 hazi da (1. taula); jatorriz atzerritarrak direnen tasa % 2,2 zen duela hamar urte, eta gaur egun % 8,6.

Lurralde historikoen artean, orain arte moduan, Bizkaia da erroldatutako biztanle atzerritar gehien dituen, 91.685 lagun, eta atzetik daude Gipuzkoa (63.017) eta Araba (33.894).

1. taula. Atzerrian jaiotako EAeko biztanleak, sexuaren eta lurralde historikoaren arabera (absolutuak eta ehunekoak), 2006, 2016

|          | 2006      |           |             |           |              | 2016      |           |             |           |              |
|----------|-----------|-----------|-------------|-----------|--------------|-----------|-----------|-------------|-----------|--------------|
|          | Guztira   |           | Gizonezkoak |           | Emakumezkoak | Guztira   |           | Gizonezkoak |           | Emakumezkoak |
|          | K         | K         | %           | K         | %            | K         | K         | %           | K         | %            |
| Estatua  | 4.837.622 | 2.532.756 | 52,4        | 2.304.866 | 47,6         | 6.123.769 | 2.995.268 | 49,5        | 3.128.501 | 51,1         |
| EAE      | 108.094   | 53.479    | 49,5        | 54.615    | 50,5         | 188.596   | 90.597    | 47,2        | 97.999    | 52,0         |
| Araba    | 19.717    | 10.395    | 52,7        | 9.322     | 47,3         | 33.894    | 16.967    | 51,0        | 16.927    | 49,9         |
| Bizkaia  | 55.516    | 26.623    | 48,0        | 28.893    | 52,0         | 91.685    | 43.145    | 45,8        | 48.540    | 52,9         |
| Gipuzkoa | 32.861    | 16.461    | 50,1        | 16.400    | 49,9         | 63.017    | 30.485    | 47,2        | 32.532    | 51,6         |


Atzerritarren ekarpena funtsezkoa da demografian (2. taula). 1998tik 2016ra, 71.356 lagun gutxiago daude bertokoen artean, baina biztanleria osoak gora egin du eta 90.906 lagun gehiago bizi dira EAEn. Atzerritik 162.262 lagun etorri direlako gertatu da hazkunde demografiko positibo hori. Beraz, etorkinen kopurua handitu egin denez, hazi egin da biztanleria oro har, bai eta biztanleria atzerritarra ere; EAEn, biztanleria osoaren % 8,6 da atzerritarra, eta Espainian, berriz, % 13,2.

Jatorriz atzerritarra den biztanleriak azken urtean izan duen bilakaerari dagokionez, 2015etik 2016ra artean (1. grafikoa) EAEn gora egin du (% 2,4); igoera izan duen estatuko autonomia-erkidego bakarra da.

2. taula. EAEn bertako eta atzerrian jaiotako biztanleek izandako bilakaera eta EAeko eta estatuko atzerritarren ehunekoak (absolutuak eta ehunekoak), 1998-2016

|           | Guztira   | Bertakoa  | Atzerrian jaiotakoa |            |      | Atzerrian jaiotakoen tasa |         |
|-----------|-----------|-----------|---------------------|------------|------|---------------------------|---------|
|           |           |           | K                   | Hazkundera | %    | EAE                       | Espania |
|           | K         | K         | K                   | K          | %    | %                         | %       |
| 1998      | 2.098.628 | 2.072.294 | 26.334              |            |      | 1,3                       | 2,9     |
| 1999      | 2.100.441 | 2.071.418 | 29.023              | 2.689      | 10,2 | 1,4                       | 3,1     |
| 2000      | 2.098.596 | 2.063.453 | 35.143              | 6.120      | 21,1 | 1,7                       | 3,6     |
| 2001      | 2.101.478 | 2.057.655 | 43.823              | 8.680      | 24,7 | 2,1                       | 4,8     |
| 2002      | 2.108.281 | 2.052.413 | 55.868              | 12.045     | 27,5 | 2,6                       | 6,2     |
| 2003      | 2.112.204 | 2.044.675 | 67.529              | 11.661     | 20,9 | 3,2                       | 7,7     |
| 2004      | 2.115.279 | 2.037.073 | 78.206              | 10.677     | 15,8 | 3,7                       | 8,6     |
| 2005      | 2.124.846 | 2.030.818 | 94.028              | 15.822     | 20,2 | 4,4                       | 10      |
| 2006      | 2.133.684 | 2.025.590 | 108.094             | 14.066     | 15,0 | 5,1                       | 10,8    |
| 2007      | 2.141.860 | 2.019.664 | 122.196             | 14.102     | 13,0 | 5,7                       | 11,6    |
| 2008      | 2.157.112 | 2.014.628 | 142.484             | 20.288     | 16,6 | 6,6                       | 13,1    |
| 2009      | 2.172.175 | 2.012.538 | 159.637             | 17.153     | 12,0 | 7,3                       | 13,8    |
| 2010      | 2.178.339 | 2.010.957 | 167.382             | 7.745      | 4,9  | 7,7                       | 14      |
| 2011      | 2.184.606 | 2.009.567 | 175.039             | 7.657      | 4,6  | 8                         | 14,2    |
| 2012      | 2.193.093 | 2.009.321 | 183.772             | 8.733      | 5,0  | 8,4                       | 14,3    |
| 2013      | 2.191.682 | 2.008.399 | 183.283             | -489       | -0,3 | 8,4                       | 14,1    |
| 2014      | 2.188.985 | 2.007.268 | 181.717             | -1.566     | -0,9 | 8,3                       | 13,4    |
| 2015      | 2.189.257 | 2.005.060 | 184.197             | 2.480      | 1,4  | 8,4                       | 13,2    |
| 2016      | 2.189.534 | 2.000.938 | 188.596             | 4.399      | 2,4  | 8,6                       | 13,2    |
| 1998-2016 | 90.906    | -71.356   | 162.262             |            |      |                           |         |

1. grafikoa. Atzerrian jaiotako biztanleen urtetik urterako hazkundera, autonomia-erkidegoka, eta atzerritarren ehunekoak (%) haietan guztietan, 2016an



Hau da atzerrian jaiotako biztanleriaren osaera, jatorri-eremuaren arabera (3. taula):

- % 45,8 latinoamerikarrak dira jatorriz, eta EAEn bizi den jatorri atzerritarreko kolektibo nagusia osatzen dute.
- % 0,9 Ipar Amerikan –Kanadan eta AEBn– jaiotakoak dira.
- % 21,8 afrikarrak dira jatorriz, eta horien artean magrebtarrek osatzen dute kolektibo jendetsuena (% 14,1).
- Asiatik etorri dira atzerritarren % 7,3, eta kontinente horretako etorkin gehienak Txinakoak dira, % 2,8 hain justu.
- EAEn bizi diren jatorri atzerritarreko biztanleen % 24 europarrak dira jaiotzez; EBtik kanpoko europarrak % 3,8 dira.

Lurralde historikoei erreparatuta, jatorri latinoamerikarreko biztanleak dira nagusi Araban (% 40,6), Gipuzkoan (% 43,4) eta, batez ere, Bizkaian (% 49,4). Baina bestelako jatorrizko herrialdeak ere nabarmentzen dira: Araban, esaterako, atzerrian jaiotako biztanleen % 22,8 magrebtarrak dira jatorriz, eta Gipuzkoan, berriz, atzerrian jaiotako biztanleen % 28,3 jatorriz europarrak dira.

3. taula. EAEko atzerritar jatorriko biztanleak, eremu geografikoaren eta lurralde historikoaren arabera (absolutuak eta ehunekoak), 2016

|                  | EAE     |       | Araba  |       | Bizkaia |       | Gipuzkoa |      |
|------------------|---------|-------|--------|-------|---------|-------|----------|------|
|                  | K       | %     | K      | %     | K       | %     | K        | %    |
| EB 25            | 21.552  | 11,4  | 3.197  | 9,4   | 8.807   | 9,6   | 9.548    | 15,2 |
| EB 28            | 16.482  | 8,7   | 1.704  | 5,0   | 9.597   | 10,5  | 5.181    | 8,2  |
| EB guztira       | 38.034  | 20,2  | 4.901  | 14,5  | 18.404  | 20,1  | 14.729   | 23,4 |
| Gainerako Europa | 7.214   | 3,8   | 1.470  | 4,3   | 2.660   | 2,9   | 3.084    | 4,9  |
| Europa guztira   | 45.248  | 24,0  | 6.371  | 18,8  | 21.064  | 23,0  | 17.813   | 28,3 |
| Magreb           | 26.599  | 14,1  | 7.722  | 22,8  | 10.012  | 10,9  | 8.902    | 14,1 |
| Gainerako Afrika | 14.526  | 7,7   | 3.201  | 9,4   | 8.085   | 8,8   | 3.203    | 5,1  |
| Afrika guztira   | 41.125  | 21,8  | 10.923 | 32,2  | 18.097  | 19,7  | 12.105   | 19,2 |
| AEB eta Kanada   | 1.711   | 0,9   | 161    | 0,5   | 926     | 1,0   | 624      | 1,0  |
| Latinoamerika    | 86.373  | 45,8  | 13.755 | 40,6  | 45.253  | 49,4  | 27.365   | 43,4 |
| Amerika guztira  | 88.084  | 46,7  | 13.916 | 41,1  | 46.179  | 50,4  | 27.989   | 44,4 |
| Txina            | 5.335   | 2,8   | 800    | 2,4   | 3.174   | 3,5   | 1.361    | 2,2  |
| Pakistan         | 4.841   | 2,6   | 1.523  | 4,5   | 1.075   | 1,2   | 2.243    | 3,6  |
| Gainerako Asia   | 3.562   | 1,9   | 328    | 1,0   | 1.844   | 2,0   | 1.390    | 2,2  |
| Asia guztira     | 13.738  | 7,3   | 2.651  | 7,8   | 6.093   | 6,6   | 4.994    | 7,9  |
| Ozeania          | 401     | 0,2   | 33     | 0,1   | 252     | 0,3   | 116      | 0,2  |
| Guztira          | 188.596 | 100,0 | 33.894 | 100,0 | 91.685  | 100,0 | 63.017   | 100  |

5. taulan azaltzen dira atzerrian jaio eta gaur egun EAEn bizi diren biztanleen jatorrizko hamar herrialde nagusiak. Horien artean sei Latinoamerikako herrialdeak dira –Kolonbia, Bolivia, Ekuador, Nikaragua, Brasil eta Paraguai–, hiru Europar Batasunekoak –Errumania, Portugal eta Frantzia–, eta bat Magrebekoa –Maroko–. Jatorri horietako biztanlerian izandako bilakaerari dagokionez, batzuek gora egin dute krisialdi ekonomikoan –nikaraguarren eta paraguaiarren kopuruak, adibidez–, eta beste batzuk, berriz, aurretik ugaritu ziren –boliviarrak edo ekuadortarrak, kasu–; hau da, urte gehiago daramatzate EAEn bizitzen.

4. taula. Jatorriz atzerritarren diren biztanleen bilakaera EAEn, jaioterri nagusien arabera (absolutuak eta ehunekoak), 1998-2016

|                       | 1998   |       | 2000   |       | 2003   |       | 2005   |       |
|-----------------------|--------|-------|--------|-------|--------|-------|--------|-------|
|                       | K      | %     | K      | %     | K      | %     | K      | %     |
| Jaioterri nagusiak    | 12.235 | 46,5  | 16.707 | 47,5  | 38.345 | 131,4 | 55.432 | 59,0  |
| Gainerako jaioterriak | 14.099 | 53,5  | 18.436 | 52,5  | 29.184 | 100,0 | 38.596 | 41,0  |
| Guztira               | 26.334 | 100,0 | 35.143 | 100,0 | 29.184 | 100,0 | 94.028 | 100,0 |

|                       | 2008    |       | 2011    |       | 2013    |       | 2016    |       |
|-----------------------|---------|-------|---------|-------|---------|-------|---------|-------|
|                       | K       | %     | K       | %     | K       | %     | K       | %     |
| Jaioterri nagusiak    | 87.238  | 61,2  | 101.363 | 57,9  | 103.160 | 56,3  | 102.924 | 54,6  |
| Gainerako jaioterriak | 55.246  | 38,8  | 73.676  | 42,1  | 80.123  | 43,7  | 85.672  | 45,4  |
| Guztira               | 142.484 | 100,0 | 175.039 | 100,0 | 183.283 | 100,0 | 188.596 | 100,0 |

5. taula. Atzerrian jaio eta EAEn bizi diren biztanleak, jaioterri nagusien arabera, gaur egun eta aurreko urteetan (absolutuak), 2003, 2005, 2008, 2013 eta 2016

|           | 2003   |          | 2005   |          | 2008    |          |
|-----------|--------|----------|--------|----------|---------|----------|
|           | K      | Posizioa | K      | Posizioa | K       | Posizioa |
| Maroko    | 5.287  | 3        | 7.648  | 2        | 10.964  | 4        |
| Kolonbia  | 9.114  | 1        | 10.925 | 1        | 14.750  | 1        |
| Errumania | 1.690  | 11       | 4.347  | 7        | 12.515  | 2        |
| Bolivia   | 513    | 28       | 3.574  | 8        | 11.724  | 3        |
| Ekuador   | 4.946  | 4        | 7.634  | 3        | 8.349   | 6        |
| Portugal  | 4.843  | 5        | 6.175  | 5        | 9.475   | 5        |
| Nikaragua | 108    | 51       | 184    | 45       | 1.189   | 26       |
| Brasil    | 2.521  | 7        | 3.541  | 9        | 5.841   | 8        |
| Frantzia  | 5.802  | 2        | 6.369  | 4        | 6.668   | 7        |
| Paraguai  | 115    | 49       | 656    | 28       | 2.998   | 14       |
| Guztira   | 67.529 |          | 94.028 |          | 142.484 |          |

|           | 2011    |          | 2013    |          | 2016    |          |
|-----------|---------|----------|---------|----------|---------|----------|
|           | K       | Posizioa | K       | Posizioa | K       | Posizioa |
| Maroko    | 15.663  | 2        | 17.511  | 2        | 20.290  | 1        |
| Kolonbia  | 17.789  | 1        | 17.898  | 1        | 17.150  | 2        |
| Errumania | 15.109  | 3        | 15.755  | 3        | 15.409  | 3        |
| Bolivia   | 11.885  | 4        | 11.598  | 4        | 11.019  | 4        |
| Ekuador   | 9.430   | 5        | 9.064   | 5        | 8.367   | 5        |
| Portugal  | 9.256   | 6        | 8.585   | 6        | 7.110   | 6        |
| Nikaragua | 3.035   | 17       | 4.399   | 14       | 6.077   | 7        |
| Brasil    | 6.687   | 7        | 6.198   | 8        | 5.961   | 8        |
| Frantzia  | 6.506   | 8        | 6.387   | 7        | 5.955   | 9        |
| Paraguai  | 5.190   | 10       | 5.552   | 10       | 5.586   | 10       |
| Guztira   | 175.039 |          | 183.283 |          | 188.596 |          |

2016ko urtarrilaren leian, 139.425 atzerritar daude erroldatuta EAEn, eta horietatik 124.064 lagunek dute egoitza-txartela edo -baimena. Horrenbestez, erregularizazio-tasaren kalkuluak adieraziko luke errol-datutako atzerritarren % 89k duela egoitza-baimena. Atzerritar gehienak administrazio-egoera irregularraren dauden uste zabalduaren kontrako egoera erakusten du datu horrek.

6. taula. Erregularizazio-indizea EAEn, 1998-2016

|      | Erroldatuak | Baimenak | Erregularizazio-tasa |
|------|-------------|----------|----------------------|
| 1998 | 15.198      | 15.647   | 1,03                 |
| 1999 | 16.793      | 16.995   | 1,01                 |
| 2000 | 21.140      | 18.622   | 0,88                 |
| 2001 | 27.438      | 18.822   | 0,69                 |
| 2002 | 38.408      | 19.515   | 0,51                 |
| 2003 | 49.231      | 24.201   | 0,49                 |
| 2004 | 59.166      | 28.600   | 0,48                 |
| 2005 | 72.894      | 37.150   | 0,51                 |
| 2006 | 85.542      | 57.395   | 0,67                 |
| 2007 | 98.524      | 64.228   | 0,65                 |
| 2008 | 117.337     | 83.875   | 0,71                 |
| 2009 | 132.865     | 96.635   | 0,73                 |
| 2010 | 139.369     | 106.658  | 0,77                 |
| 2011 | 145.256     | 110.063  | 0,76                 |
| 2012 | 151.894     | 119.984  | 0,79                 |
| 2013 | 148.877     | 123.484  | 0,83                 |
| 2014 | 141.316     | 122.994  | 0,87                 |
| 2015 | 137.816     | 122.076  | 0,89                 |
| 2016 | 139.425     | 124.064  | 0,89                 |





# 2

## Jatorri atzeritarra duten biztanleei buruzko iritziak eta jarrerak

Orain, 2016ko barometroaren informazioa aztertuko dugu: bertako jendeak atzerriko immigrazioari buruz dituen jarrerak, usteak, balioak eta iritziak adierazten ditu lan horrek. Urtero ohar-tarazten dugunez, azken urte hauetan pilatutako esperientzia dela eta, jarrera eta iritzi horiek nondik nora egin duten ikusteko modua daukagu, azken urteetako barometroekin alderatuta, eta ikus dezakegu zenbateraino bete den krisi-garaian jarrera eta pertzepzioa okertuko zirela eta tes-tuinguru ekonomikoa hobetu ahala aldatuko zirela ziotenen iragarpena.

Kapitulu honen egitura bost bloketan banaturik dago:

- Etorकिन presentziaren pertzepzioa: bolumena.
- Etorकिन presentziaren pertzepzioa: arazo moduan.
- Immigrazioak EAEko gizartean duen eragina, hainbat arlotan: ekonomian, ongizatearen alderdietan, abertzaletasunaren helburuetan, hizkuntzaren erabileran eta bilakaeran, harremanen bilakaeran.
- Harrerako komunitatearen eta etorkinen komunitatearen arteko harremanen bilakaera eta integrazioa: bizikidetzak-ereduak; estereotipoak eta aurreiritziak, zurrumurruak; eskubide-ak eta zerbitzuak eskuratzeko aukera.
- Immigrazio-politika: sartzek, bertan gelditzea eta kanporatzea.

Bost blokeetan, egitura berari jarraitu diogu:

1. Iritzi eta jarrerei loturiko emaitzak eta emaitza horien bilakaera (%) aurkeztu eta interpretatu ditugu lehenbizi.
2. Alderdi bakoitzaren indize laburtua landu dugu, alde esanguratsuak dauden profilei arreta berezia eskainita.
3. Aztertutako bloke bakoitzaren ondorioak atera ditugu.

### **Etorकिन presentziaren pertzepzioa: bolumena**

Hasteko, atal honetan, bertako herritarrek etorkinen bolumenaz zer iritzi duten aztertuko dugu. Gai hori garrantzitsua da; izan ere, aukera ematen du jakiteko gizartean immigrazioaren fenome-

noaren tamaina berez dena baino handiagoa ikusten den ala ez, horrek eragina izan baitezake immigrazioarekiko jarrera on edo txarretan.


Lehenik eta behin, atzerritarren bolumenaren pertzepzioari buruzko datuak aurkeztuko ditugu, EAEn erroldatuta dauden etorkinen kopuru zehatza jakin aurretik eta jakin ondoren. Horren ildotik, bolumenaren indize laburtua egin eta aztertu dugu. Indize horretan, atzerritarren bolumenaren gaineko jarrera alarmistenarekin eta kezkarik gabekoenarekin loturiko aldagaiak ageri dira.

1. irudia. Etorkinen presentziaren pertzepzioa eta balorazioa



EAEko gizarteak immigrazioari buruz duen uste edo pertzepzioa ez dator bat EAEn bizi diren atzerritarren bolumenarekin, egiaz bizi direnak baino atzerritar gehiago bizi direla uste baitu. Zehazki, atzerrian jaio eta EAEn erroldatuta dauden pertsonen benetako kopurua halako bi da pertzepzioa (3. grafikoa). Halaber, EAEn bizi diren atzerritarren kopuruaz zer iritzi duten galde-tzean (2. grafikoa), % 28,3k uste du asko direla, % 21,3k uste du gehiegi direla eta % 36,8k uste du kopuru egokia dela. Datu hori esanguratsua da, aintzat hartzen bada atzerritarren ehu-nekoa EAEn nahiko apala dela, beste lurralde batzuekin alderatuz gero.

2. grafikoa. Atzerriko biztanleen bolumenaren hasierako pertzepzioa (%), 2007-2016




3G. Beste herrialde batzuetatik etorri eta Euskadin bizi diren etorkinen kopurua, zure iritzi, ...

2012. urtean sartu zen «kopuru egokia da» aukera, eta, harrezkero izandako bilakaerak agerian jartzen duenez, pertzepzio horrek behera egin du gehiegi (% 31,5etik % 21,3ra 2016an) edo asko (% 31,8tik % 28,3ra) direla uste duten pertsonen artean, eta, aldi berean, «kopuru egokia da» aukerak gora egin du.

Alde horretatik, barometroak adierazten duen beste datu adierazgarri bat zera da: «asko edo gehiegi dira» balorazioa nolakoa den ikustea, inkesta-egileak egiatzko ehunekoaren (% 8,6) berri ematen dionean inkestuari. Ildo horretatik, gehiago dira kopuru hori egokia dela pentsatzen dutenak (% 46,8) asko edo gehiegi (% 38,2) direla pentsatzen dutenak baino.


Azken urteetako bilakaera aztertuz gero, ikusiko dugu hautematen den atzerriko biztanleen bolumenak egonkor dirauela, nahiz eta urtetik urtera igo egin den erroldatutako atzeritarren kopurua. Hau da, atzeritarren kopuruak gora egiteak ez dio eragiten hautemandako bolumenari.

3. grafikoa. Euskadin bizi diren 100 pertsonatik, gutxi gorabehera zenbat dira, zure ustez, atzerriko etorkinak (alegia, Espainiatik kanpoko herrialdeetatik etorriak)? (%), 2007-2016



4G. Euskadin bizi diren 100 pertsonetatik zenbat dira, zure ustez, atzerriko etorkinak (alegia, Espainiatik kanpoko herrialdeetatik etorriak)?

4. grafikoa. Atzerriko biztanleen bolumenari buruzko pertzepzioa, erroldatuta dauden atzeritarren benetako kopuruaren berri eman ondoren (%), 2007-2016



5G. Nik esango banizu Euskadin bizi diren pertsonen %8 edo %9 gutxi gorabehera beste herrialdeetako etorkinak direla, berdin pentsatzen al duzu edo...

Interesgarria da aipatzea 2012tik 2016ra artean atzerritarrak asko edo gehiegi direla usten dutenen kopuruak behera egin duela eta atzerritarren kopurua egokia dela uste dutenen kopuruak gora egin duela.

Bilakaera hori, ordea, ez da modu mailakatuan gertatu. Izan ere, 2012tik 2014ra artean, atzerritarrak asko edo gehiegi direla uste zutenen kopuruak gora egin zuen, eta 2014an behera egi-ten hasi zen 2016ra arte. Aldi berean, 2012tik 2014ra artean, atzerritarren kopurua egokia dela uste zutenen kopuruak behera egin zuen, baina etengabe egin du gora azken bi urte hauetan.

2012tik 2016ra artean, EAEn dauden atzerriko biztanleen ehunekoaren gaineko pertzepzioak behera egin du (-% 1,3). Aldi berean, benetako kopurua jakin aurretik atzerritarrak asko edo gehiegi direla uste dutenen ehunekoak ere behera egin du (-% 13,7). Dena den, aldi horretan, EAeko atzerritarren kopurua % 2,9 hazi da. Atzerritarrak asko edo gehiegi direla uste dutenen kopuruak behera egin du apur bat (% 2,7).

### Atzerriko etorkinen bolumenaren pertzepzioari buruzko indizea

7. taula. Atzerriko etorkinen bolumenaren indizearekin lotutako aldagaiak

| BOLUMENAREN PERTZEPZIOA  |           |                      |                                |  |
|--|-----------|----------------------|--------------------------------|--|
| Pertsona intoleranteenen profila                                 |           | Aldagaia             | Pertsona toleranteenen profila |  |
| Emakumea   | 4,54      | Sexua                | 5,00                           | Gizona   |
| 65 urtekoak edo hortik gorakoak                                  | 3,91      | Adina                | 5,53/5,16                      | 18-29 eta 30-44 urte bitartekoak               |
| Lehen mailako ikasketak, ikasketarik ez                          | 2,94/3,93 | Ikasketak            | 6,14/5,35                      | Goi- eta erdi-mailako unibertsitate-ikasketak  |
| 5.001-20.000 biztanleko herriak                                  | 4,03      | Bizilekua            | 5,18                           | Hiriburuak                                     |
| Katoliko praktikanteak eta ez praktikanteak                      | 4,02/4,40 | Erljioa              | 5,68                           | Agnostikoak, ateoak...                         |
| Erdaldunak   | 4,36      | Hizkuntza            | 5,18                           | Euskaldunak                                    |
| Espainiarra, ezaxola   | 4,57/4,46 | Nazionalismoa        | 5,08                           | Euskalduna                                     |
| Batik bat espainiar sentitzen dira                               | 4,15      | Identitate-sentipena | 5,29                           | Batik bat euskaldun sentitzen dira             |
| Zentrokoak   | 4,08      | Ideologia            | 5,62                           | Ezkerrekoak                                    |
| Hileko 1.000 €, hileko 1.001-1.800 €                             | 4,16/4,42 | Diru-sarrerak        | 5,64/5,50                      | Hileko 1.801-2.500 €, hileko 2.500 €-tik gora  |
| Ez daude pozik beren gaur egungo egoera ekonomikoarekin, ezaxola | 4,37/4,51 | Egoera-ekonomikoa    | 5,30                           | Pozik beren gaur egungo egoera ekonomikoarekin |
| Etxea zaintzen duten pertsonak                                   | 4,00      | Lanbidea             | 5,78                           | Ikasleak                                       |
| Apala  | 4,26      | Estatusa             | 6,02                           | Altua  |
| Ezkorak  | 4,42      | Baikortasuna         | 5,03                           | Baikorrak                                      |
| Aurreikuspen txarrak   | 4,40      | Etorkizuna           | 5,08/5,20                      | Aurreikuspen normalak eta onak                 |
| Etorkinen nahasketa  | 4,08      | Auzoa                | 5,06                           | Bertakoak                                      |
| Inolako harremanik ez  | 4,47      | Interakzio pribatua  | 5,12                           | Harreman handia                                |
| Inolako interakziorik ez   | 4,36      | Interakzio publikoa  | 4,98                           | Interakzio apur bat                            |
| Batere ez edo interakzio apur bat                                | 4,51/4,85 | Aisiako interakzioa  | 6,05                           | Handia   |

Iturria: egileek egina.

Hiru galdera horien erantzunekin (galdetegiko 3., 4. eta 5. itemak) atzerriko immigratzaileen bolumenaren pertzepzioari buruzko indize partziala landu dugu. Orik 10 puntura doa indize hori; horrela, jarrera alarmista eta/edo gehiegizko pertzepzioa dutenak 0 puntura hurbilduko dira, eta jarrera eta pertzepzio ez hain kezkatua eta zuzenagoa dutenak 10 puntura.

Estatistikoki alde nabarmenak aurkitu ditugu bertako herritar talde batzuen eta besteen artean, aldagai batzuen arabera. 7. taulan ageri dira immigratzaileen bolumenaz duten pertzepzioaren arabera jarrera toleranteena duten pertsonen profila (puntuazio handiena eskalan) eta jarrera intoleranteena duten pertsonen profila (puntuazio txikiena eskalan).

### Laburrean. Etorriaren presentziaren pertzepzioa: bolumena

2016ko barometroaren emaitzek argi adierazten dute EAEko gizarteak immigrazioari buruz duen uste edo pertzepzioa ez datorrela bat EAEn bizi diren atzerritarren bolumenarekin, egiaz bizi direnak baino atzerritar gehiago bizi direla uste baitu. Zehazki, erroldatutako atzerritarren kopurua halako bi da pertzepzioa, oraindik ere. 2007tik gaur egunera arte, ikusten da hautematen den atzerriko biztanleen bolumenak egonkor dirauela, nahiz eta urtetik urtera handitu egin den erroldatutako atzerritarren kopurua. Esan daiteke, beraz, atzerritarren bolumenak ez duela eraginik EAEko gizarteak haien bolumenari buruz duen pertzepzioan.

### Etorriaren presentzia arazotzat hautematea

Atal honetan, bizikidetzan eragina duen faktore nagusietako bat aztertuko dugu: immigrazioa arazotzat hartzea edo ikustea. Alderdi hori aztertzeko, gaur egun Euskadin dauden hiru arazo nagusiak zein diren galdetu dugu lehenenik eta behin, eta bat-bateko erantzunak bildu ditugu. Gero, galdera berbera egin dugu, baina Eurobarometroan erabiltzen denaren moduko arazo-zerrenda bat erakutsita. Azkenik, galdera bera egin dugu baina immigrazioa arazo pertsonaltzat harturik, eta, horrekin guztiarekin, «immigrazioa arazo gisa» arloaren indize laburtua egin eta aztertu dugu.

2. irudia. Immigrazioa arazo pertsonaltzat eta EAEko arazotzat hartzea (bat-bateko erantzuna eta erantzun iradokia) (lehen aipamena, eta aipamenak guztira, %) 2016




Gizarte-arazo gisa ikusten al da immigrazioa Euskal Autonomia Erkidegoan? 2016ko barometroak adierazten du, beste behin ere, EAEko gizartearen gehiengo zabalak ez duela pertsona immigraztaileen presentzia arazo sozial edo pertsonaltzat hartzen.

% 12,3k soilik erantzun du, bat-batean, immigrazioa arazo bat dela, eta % 8,5ek hartzen du arazo pertsonaltzat. Inkesta-egileak immigrazioaren gaia iradokitzen duenean, neurri handiagotan hartzen da immigrazioa arazotzat (% 14,2).

Euskadiko hiru arazo nagusien pertzepzioari dagokionez (5. grafikoa), bat-bateko erantzunak bilda ikusten dugu langabezia dela, askogatik izan ere, inkestatutako pertsona gehienek (% 85,5) aipatutako arazoa, eta, gero, arazo ekonomikoak (% 26) eta ustelkeria eta iruzurra (% 13,8).

5. grafikoa. Euskadiko arazoak (bat-bateko erantzunak) (%)



1G. Zure ustez, gaur egun, zein dira Euskadin ditugun 3 arazo nagusiak?


Hipotesi zabalduenak esaten du, aurreko barometroetan ere aipatu dugun bezala, immigrazioaren pertzepzioak okerrera egiten duela krisi ekonomikoa luzatzen den heinean. Emaitzak, ordea, ez datoz bat hipotesi horrekin. Izan ere, arazo sozialak eta ekonomikoak nagusi dira, eta gainerrako arazoei gailentzen zaie.

2015en aldean, immigrazioaren pertzepzioak behera egin du apur bat: % 12,4tik % 12,3ra (5. grafikoa). Bizitzen ari garen krisi ekonomikoa, herritarren ustez, langabezia, arazo ekonomikoak, eta ustelkeria eta iruzurra dira EAEk gaur egun dituen arazo nagusiak.

6. grafikoa galdera hori bera ikus dezakegu, baina Eurobarometroan erabiltzen denaren moduko arazo-zerrenda bat erakutsita. Hamar arazotako zerrenda bat da, eta horietatik hiru aukeratu behar dira. Kasu horretan, aukeratzeko erantzuna eskaintzen denean, immigrazioa arazoa delako pertzepzioak bat-bateko erantzunetik 2 puntu egiten du gora, eta %14,2an kokatzen da.

EAEko gizartearentzat, egoera ekonomikoak eragindako arazoak dira oraindik ere garrantzitsuenak. Zehazki, langabezia da arazo handiena (% 78,7) eta ondoren datoz bizitza-kostua (% 31,8) eta aberatsen eta pobreen arteko desberdintasuna (% 26,3).

6. grafikoa. Euskadiko arazoak (iradoki ondorengo erantzunak) (%)




2G. Txartel honetan ageri diren arazoetatik zein dira, zure iritziz, Euskadiko 3 arazo garrantzitsuenak?

Aurten ere, immigrazioa hein handiagoan hartzen da arazotzat inkesta-egileak iradokitzen duenean. Dena den, immigrazioa hein txikiagoan hartzen da arazotzat inkestatuak bat-batean erantzuten duenean edo haren arazo pertsonal nagusiak zein diren galdetzen zaionean.

2007tik datorren joera horrek adierazten du EAEko gizarteak ez duela immigrazioa arazo larritzat hartzen, baldin eta gaia ez bada gizarte-eztabaidako gaien artean sartzen; izan ere, gaia iradokitzen denean adierazten du jendeak, batik bat, gaia arazo bat izan daitekeela, baina oso jende gutxi ikusten du arazo pertsonal moduan (7. grafikoa).

7. grafikoa. Immigrazioa EAEn arazotzat hartzeak izan duen bilakaera (bat-bateko erantzuna, erantzun iradokia eta arazo pertsonala) (%) 2007-2016



25G. Gaia aldatuko dugu. Pertsonalki zein 3 arazok ukitzen zaituzte gehien?

### Atzerriko immigrazioa arazotzat hartzearen indizea

Esparru honetako hiru galderen erantzunekin (galdetegiko 1., 2. eta 25. itemak), pertzepzio-indize partzial bat landu dugu: atzerriko immigrazioa arazotzat hartzearen indizea. Otik 10erako eskala batean taxutu dugu indize hori. Horrela, immigrazioa arazo izatearekin gehien lotzen dutenak 0 puntura hurbilduko dira, eta arazotzat hartzen ez dutenak, 10 puntura. Indize hori nola landu den zehatzago jakiteko, jo beza irakurleak metodologiaren kapitulura.

Ikerketa-eremu horretan ere estatistikoki esanguratsuak diren aldeak hauteman ditugu. Arlo horretan toleranteenak eta intoleranteenak diren pertsonen profilak 8. taulan laburbildu ditugu.

8. taula. Atzerriko immigrazioa arazotzat hartzearen indizearekin lotutako aldagaiak

| IMMIGRAZIOA ARAZOTZAT HAUTEMATEA |      |                     |           |                                |
|----------------------------------|------|---------------------|-----------|--------------------------------|
| Pertsona intoleranteenen profila |      | Aldagaia            |           | Pertsona toleranteenen profila |
| Immigranteak                     | 8,26 | Auzoa               | 9,18/9,03 | Bertakoak, nahasketa           |
| Inolako interakziorik ez         | 8,86 | Interakzio publikoa | 9,33      | Interakzio apur bat            |

Iturria: egileek egina.

### Laburrean. Etorकिन presentzia arazotzat hautematea

2016ko barometroak adierazten du, beste behin ere, EAEko gizartearen gehiengo zabalak ez duela pertsona immigratzaileen presentzia arazo sozial edo pertsonaltzat hartzen. % 12,4k soilik erantzun du, bat-batean, immigrazioa arazo bat dela, eta % 8,3k hartzen du arazo pertsonaltzat. Inkesta-egileak immigrazioaren gaia iradokitzen duenean, neurri handiagoan hartzen da immigrazioa arazotzat (% 14,8).


EAEko gizartearen kezka nagusiak (iradokitako arazoen artean), aurten ere, arazo ekonomiak dira; nagusiki, langabezia, bizitza-kostua eta aberatsen eta pobreen arteko desberdintasuna.

### Immigrazioak EAEko gizartean duen eragina

Immigrazioak EAEko gizartean izan dezakeen eragina, positiboa nahiz negatiboa, aztertuko dugu atal honetan. Ildo horretan, inkesta egin diegun pertsoneri galdetu diegu ea zer ondorio dituen immigrazioak ekonomian, ongizatean, identitatean eta harremanen garapenean. Erantzunak bildu, eta hiru indize laburtu prestatu eta aztertu ditugu, iritzi horietako bakoitzak arlo ekonomikoan eta EAEko gizartean duen inpaktua ezagutu eta immigrazioaren ondorio osoaren berri jakiteko, erantzunetan alde esanguratsuak dituzten taldeak soilik kontuan hartuta.



3. irudia. EAEko gizartean dituen eraginak. Aztertutako alderdiak, 2016




### Ekonomian dituen eraginak

Krisi ekonomikoa eraginik izaten ari al da immigrazioak ekonomian dituen ondorioei buruz bertako herritarrek duten ikuspegi eta pertzepzioan? Krisi ekonomikoa hasi zenetik egin dugu galdera hori. Badu, bai, eraginik, eta kontuan hartuta gaur egun langabezia eta arazo ekonomikoak direla EAEko gizartean kezka gehien sortzen duten gaiak, garrantzitsua da jakitea herritarrek zer balorazio eta iritzi duten immigrazioaren gaiari buruz.

Oro har, esan dezakegu, 8. grafikoan ikusten den moduan, Euskal Autonomia Erkidegoko herritarren ustez immigrazioak ekonomian duen eragina onuragarria dela kaltegarria bainoago. Baina esan behar da anibalentzia-maila bat ere badagoela eta ez dela argi eta garbi kaltearen edo onuraren alde egiten.

8. grafikoa. Ekonomian dituen eraginak (%), 2016




6G. Txartel hau erabilia, esan iezadazu zenbateraino zauden ados edo ez esaldi horietan adierazten denarekin

Bestalde, herritarren iritzia banatuta dago gai batzuetan: % 48k uste du etorkinen etorrerak lan-gabezia handitzen duela, % 44,7k uste du etorkinak behar ditugula gure ekonomiaren sektore jakin batzuetan lan egiteko, % 48,3k uste du etorkinen etorrerak bide ematen duela ekonomiak hobeto funtziona dezan, eta % 55ek ez du uste bizitzera eta lanera etortzen diren etorkinen etorreraren ondorioz soldatak jaisten direla.


2004tik gaur egunera arte izandako bilakaera aztertuz gero, ikusten da zenbait kasutan immigrazioarekiko jarrera positiboek hobera egin dutela (10. grafikoa) eta negatiboek behera egin dutela (9. grafikoa). Hobekuntza hori 2014tik gaur egunera arte nabaritu da batik bat.

9. grafikoa. Atzerriko immigrazioaren eragin ekonomikoa EAEn (Erabat ados/ Ados) (%), 2004, 2007-2016



6G. Txartel hau erabilia, esaniezadazu zenbateraino zauden ados edo ez esaldi horietan adierazten denarekin

10. grafikoa. Atzerriko immigrazioaren eragin ekonomikoa EAEn: bilakaera (Erabat ados/ Ados) (%), 2004-2016



6G. Txartel hau erabilia, esaniezadazu zenbateraino zauden ados edo ez esaldi horietan adierazten denarekin

2015eko barometroarekin alderatuta, aurtengo datuek berretsi egiten dute aldaketa, immigrazioarekiko ikuspegi funtzional eta utilitaristari dagokionez. Krisi aurreko garaiko jarreretara hurbildu gara. Jarrera horiek lotura dute gure ekonomiako sektore jakin batzuetan lan egiteko etorkinak behar izatearekin, bai eta etorkinek bertakoek nahi ez dituzten lanpostuak betetzen dituztenez ekonomiak hobeto funtzionatzen laguntzen dutelako ideiarekin ere.

**Atzerriko immigrazioak ekonomian duen eraginaren pertzepzioari buruzko indizea**

Esparru honetako bost galdereri (galdetegiko 6a, 6c, 6e, 19j eta 26a itemak) emandako erantzunekin, atzerriko immigrazioak sortutako eragin ekonomikoaren pertzepzioari buruzko indizea partziala landu dugu. Indizearen eskala 0tik 10 puntura doa; horrenbestez, immigrazioak ekonomian duen eraginari buruzko ikuspegi negatiboena dutenak 0 puntura hurbilduko dira, eta ikuspegi positiboena dutenak 10 puntura.

Hor ere estatistikoki esanguratsuak diren aldeak hauteman ditugu. Jarrera toleranteena eta intoleranteena dutenen profilak 9. taulan jaso ditugu.

9. taula. Atzerriko immigrazioak sortutako eragin ekonomikoari buruzko indizearekin lotutako aldagaiak

**ERAGIN EKONOMIKOEN PERTZEPZIOA**


| Pertsona intoleranteenen profila                        |           | Aldagaia            | Pertsona toleranteenen profila |  |
|---|-----------|---------------------|--------------------------------|--|
| 65 urtekoak eta hortik gorakoak                         | 5,27      | Adina               | 6,00                           | 18 eta 29 urte bitartekoak                     |
| Lehen mailako ikasketak, ikasketarik ez                 | 4,63/4,83 | Ikasketak           | 6,62/5,93                      | Goi- eta erdi-mailako unibertsitate-ikasketak  |
| 5.001-20.000 biztanleko herriak                         | 4,65      | Bizilekua           | 5,83/5,67                      | Hiriburuak eta 20-150.000 biztanleko           |
| Katoliko praktikanteak                                  | 5,23      | Erlijioa            | 5,84                           | Agnostikoak, ateoak...                         |
| Erdaldunak  | 5,19      | Hizkuntza           | 5,74                           | Euskaldunak                                    |
| Zentrokoak eta eskuinekoak                              | 4,86/5,01 | Ideologia           | 6,02                           | Ezkerrekoak                                    |
| Hileko 1.000 €, hileko 1.001-1.800 €                    | 4,76/5,15 | Diru-sarrerak       | 6,27/6,43                      | Hileko 1.801-2.500 €, hileko 2.500 €-tik gora  |
| Ez daude pozik beren gaur egungo egoera ekonomikoarekin | 4,51      | Egoera-ekonomikoa   | 6,09                           | Pozik beren gaur egungo egoera ekonomikoarekin |
| Apala eta ertaina                                       | 5,13/5,62 | Estatua             | 6,50                           | Altua  |
| Handia  | 4,70      | Krisiaren eragina   | 5,67/5,71                      | Ertaina eta txikia                             |
| Ezkerrekoak   | 5,09      | Baikortasuna        | 5,78                           | Baikorrak                                      |
| Aurreikuspen txarrak                                    | 4,98      | Etorkizuna          | 5,77/6,12                      | Aurreikuspen normalak eta onak                 |
| Etorkinen nahasketa                                     | 4,83      | Auzoa               | 5,71/5,66                      | Etorkinak eta bertakoak                        |
| Batere ez edo interakzio apur bat                       | 5,30/5,50 | Aisiako interakzioa | 6,48                           | Handia   |

Iturria: egileek egin.

**Immigrazioak ongizatean dituen ondorioak: irakaskuntza, etxebizitza, ospitaleak, gizarte-laguntza**

Atal honetan, atzerriko pertsona gehiago etortzeak beren ongizate-egoeran eta familiarenean izan dezakeen eraginak kezkarik sortzen dien galdetu zaie herritarrei; zehazki, gizarte-laguntzak esku-ratzeari, irakaskuntzaren kalitateari, etxebizitzari, osasun-arretari eta lana aurkitzeari loturiko alderdiei buruz galdetu zaie.


11. grafikoa. Immigrazioak ongizatean dituen ondorioak: Etorrinen etorrerak eragin negatiboa izan dezake alderdi hauetan... (%), 2016



26G. Etorrin gehiago etortzeak zuri eta zure familiakoei honako kalte hauek eragitea kezkatzen zaitu:

Oro har, 2016an, bertakoen artean kezka txikiagoa da, eta gehienek uste dute immigrazioak ez duela eraginik beren ongizatean. Nolanahi ere, bertoko herritarrak hein batean kezkatuta daude immigrazioak gizarte-laguntzetan izan ditzakeen ondorioengatik (% 46) eta ospitaleetan gehiago itxaron beharra ekar dezakeelako (% 43,5).

12. grafikoa. Atzerriko immigrazioak ongizate-estatuan duen eraginaren pertzepzioaren bilakaera: etorkinen etorrerak zugar eta zure familiagan izan ditzakeen eragin negatiboekiko kezka (Erabat ados / Ados, %), 2008-2016




6G. Txartel hau erabilia, esaniezadazu zenbateraino zauden ados edo ez esaldi horietan adierazten denarekin

Immigrazioak ongizatean izan ditzakeen eraginei buruzko jarreraren bilakaera kontuan hartzen badugu, ikusiko dugu iritziak krisi ekonomikoaren aurreko etapako antzekoak direla (12. grafikoa).

### Immigrazioak identitatean eta hizkuntzan izan ditzakeen eraginei buruzko iritziak


Atal honetan, atzerriko immigrazioak alderdi jakin batzuetan –besteak beste, abertzaletasunaren helburuetan, identitatean, eta euskararen garapenean– izan dezakeen eraginari buruz zer iritzi duten galdetu zaie hemengo biztanleei.

13. grafikoa. Identitatean dituen eraginak (%), 2016



24G. Txartel hau erabilita, esan iezadazu zenbateraino zauden ados edo ez esaldi horietan adierazten denarekin

14. grafikoa. Atzerriko immigrazioaren eragina EAEko gizartean (Erabat ados/Ados) (%), 2004, 2007-2016



24G. Txartel hau erabilita, esan iezadazu zenbateraino zauden ados edo ez esaldi horietan adierazten denarekin

Inkestatutako pertsona gehienek (% 80,4) ez dute uste etorkinen etorrerak euskal identitatea galaraziko duenik, ez eta abertzaletasunaren helburuak geldiaraziko dituenik ere (% 78,2). Euskarari dagokionez, % 73,2k adierazi du ez duela uste immigrazioaren fenomenoak euskararen hedapena geldiaraziko duenik, eta % 76,7k uste du euskararen erabilera ere ez duela murriztuko gaur egun EAEn gehiengoak euskaraz dakien eremuetan.

Garrantzitsua da gai hori azpimarratzea; izan ere, barometroko datuek behin eta berriro azpimarratzen dute EAEko gizarteak ez duela etorkinen etorrera mehatxutzat hartzen euskarari eta euskal identitateari edo identitateei eusteko eta horiek garatzeko.

### **Atzerriko immigrazioak EAEko gizartean duen eraginaren pertzepzioari buruzko indizea**

Esparru honetan egindako galderen erantzunekin (galdetegiko 19e, 24a, 24b, 24c, 24d eta 26e itemak) atzerriko immigrazioak EAEko gizartean duen eraginari buruzko pertzepzioaren indizea landu dugu. Indizearen eskala Otik 10 puntura doa; horrenbestez, immigrazioak EAEko gizartean duen eraginari buruzko ikuspegi negatiboagoa dutenak 0 puntura hurbilduko dira, eta ikuspegi positiboagoa dutenak 10 puntura.

Beste behin ere estatistikoki esanguratsuak diren aldeak hauteman ditugu herritar multzo batzuen eta besteen artean. Jarrera toleranteena eta intoleranteena dutenen profilak 10. taulan jaso ditugu.

10. taula. Atzerriko immigrazioak EAEko gizartean duen eraginari buruzko indizearekin lotutako aldagaiak

ERAGINA EAE-KO GIZARTEAN

| Pertsona intoleranteenen profila                        |      | Aldagaia          | Pertsona toleranteenen profila |   |
|---|------|-------------------|--------------------------------|---|
| Espainiarra   | 6,03 | Nazionalismoa     | 7,42                           | Euskalduna  |
| Eskuinekoak   | 6,73 | Ideologia         | 7,77                           | Ezkerrekoak   |
| Ez daude pozik beren gaur egungo egoera ekonomikoarekin | 6,65 | Egoera-ekonomikoa | 7,21                           | Pozik beren gaur egungo egoera ekonomikoarekin, ezaxola |
| Erretiratuak  | 6,89 | Lanbidea          | 7,88                           | Ikasleak  |
| Handia  | 6,72 | Krisiaren eragina | 7,25                           | Ertaina eta txikia                                      |
| Ezkerrekoak   | 6,90 | Baikortasuna      | 7,46                           | Baikorrak   |
| Aurreikuspen txarrak                                    | 6,91 | Etorkizuna        | 7,49                           | Aurreikuspen onak                                       |
| Etorkinen nahasketa                                     | 6,66 | Auzoa             | 7,37                           | Bertakoak   |

Iturria: egileek egin.


### **Iritzi orokorra: harremanen ebaluazioa**

Immigratzaile gehiagoren etorrera dela-eta zenbait arlotan –hala nola ekonomian, gizarte-ongizatean eta euskal identitatean– bertako biztanleriak sumatzen duen eragina aztertuta, EAEko gizarteak atzerriko biztanleekin dituen harremanak eta harreman horien bilakaera nola baloratzen dituen jakin nahi izan dugu.

Oro har, Euskadiko gizartearen iritziak (% 69,5), bertako herritarren eta atzerritarren arteko harremana ez da aldatu. Nolanahi ere, % 12,5ek uste du hobetu egin dela, eta % 14,5ek okerrera egin duela. Datu horiek 2015eko barometrokoarekin alderatzen baditugu, ikusiko dugu balora-


zioak hobetu egin direla apur bat eta 2014an hasitako joerari eusten diogula. Bilakaerari erreparatuta, ikusiko dugu 2009tik 2013ra artean bildutako jarrera muturrekoagoetatik azken hiru urteetan bildutako jarreretara aldaketa gertatu dela.

15. grafikoa. Bertako herritarren eta etorkinen arteko harremanaren bilakaera azken urtean (%), 2007-2016



8G. Euskal herritarren eta atzerriko jendearen arteko harremanak, zure ustez, hobera egin du, txarrera egin du, edo duela urtebete bezalakoa da?

16. grafikoa. EAEko gizarteak immigrazioaren etorreraren ondorioei buruz egiten duen balorazio orokorra: 0 (oso eragin negatiboak) 10 (oso eragin positiboak), 2014-2016



27G. Orokorrean hartuta, zure ustez, atzerriko pertsonak etortzeak, ondorio positiboak edo negatiboak eragiten dizkio euskal gizarteari?

Amaitzeko, eta immigrazioak EAEko gizartean dituen ondorioen alderdiak aztertu ondoren, inkestari erantzun diotenei balorazio orokorra egiteko eskatu diegu. Balorazioa 0tik 10era egin da: 0 immigrazioak oso ondorio negatiboak dituela uste badute, eta 10 oso ondorio positiboak dituela uste badute. 2016an, balorazio orokorra 5,18 puntukoa da, eta 2014an eta 2015ean baino hobe da.

### Immigrazioaren eragin orokorrari buruzko pertzepzioaren indizea

Esparru honetako galderari (8, 18k, 19k, 26b, 26c, 26d eta 27 itemak) emandako erantzunekin, atzerriko immigrazioak sortutako eragin orokorraren pertzepzioari buruzko indize partziala landu dugu. Indizearen eskala 0tik 10 puntura doa; horrenbestez, immigrazioak duen eragin orokorra-

ri buruzko ikuspegi negatiboena dutenak 0 puntura hurbilduko dira, eta ikuspegi positiboena dutenak 10 puntura.

Beste behin ere estatistikoki esanguratsuak diren aldeak hauteman ditugu herritar multzo batzuen eta besteen artean. Immigrazioaren eragin orokorrari buruzko pertzepzioan jarrera tolerantena eta intoleranteena erakutsi duten pertsonen profilak 11. taulan jaso ditugu.

11. taula. Immigrazioaren eragin orokorrari buruzko pertzepzioaren indizearekin lotutako aldagaiak

#### PERCEPCIÓN DE LOS EFECTOS GLOBALES

| Pertsona intoleranteenen profila                        |           | Aldagaia            | Pertsona toleranteenen profila |   |
|---|-----------|---------------------|--------------------------------|---|
| 45-64 urte eta hortik gorakoak                          | 5,64/5,57 | Adina               | 6,36                           | 18 eta 29 urte bitartekoak                              |
| Lehen mailako ikasketak, ikasketarik ez                 | 5,24/5,18 | Ikasketak           | 6,79/6,17                      | Goi- eta erdi-mailako unibertsitate-ikasketak           |
| 5.001-20.000 biztanleko herriak                         | 5,43      | Bizilekua           | 6,03                           | Hiriburuak  |
| Katoliko praktikanteak eta ez praktikanteak             | 5,37/5,68 | Erljioa             | 6,34                           | Agnostikoak, ateoak...                                  |
| Erdaldunak  | 5,68      | Hizkuntza           | 6,03                           | Euskaldunak   |
| Zentrokoak, eskuinekoak                                 | 5,21/5,33 | Ideologia           | 6,57                           | Ezkerrekoak   |
| Hileko 1.000 €, hileko 1.001-1.800 €                    | 5,42/5,57 | Diru-sarrerak       | 6,51                           | 2.500 €-tik gora hilean                                 |
| Ez daude pozik beren gaur egungo egoera ekonomikoarekin | 5,17      | Egoera-ekonomikoa   | 6,25/5,84                      | Pozik beren gaur egungo egoera ekonomikoarekin, ezaxola |
| Erretiratuak, etxea zaintzen dutenak                    | 5,56/5,60 | Lanbidea            | 6,61                           | Ikasleak  |
| Apala   | 5,6       | Estatusa            | 6,51                           | Handia  |
| Handia  | 5,42      | Krisiaren eragina   | 5,99/5,97                      | Ertaina eta txikia                                      |
| Ezkerak   | 5,57      | Baikortasuna        | 6,17                           | Baikorrak   |
| Aurreikuspen txarrak                                    | 5,37      | Etorkizuna          | 6,24/6,34                      | Aurreikuspen normalak eta onak                          |
| Etorkinen nahasketa                                     | 5,45      | Auzoa               | 6,01                           | Bertakoak   |
| Inolako harremanik ez                                   | 5,54      | Interakzio pribatua | 6,20                           | Harreman handia   |
| Inolako interakziorik ez                                | 5,51      | Interakzio publikoa | 6,02                           | Interakzio handia                                       |
| Batere ez edo interakzio apur bat                       | 5,55/6,00 | Aisiako interakzioa | 6,96                           | Handia  |

Iturria: egileek egina.

#### Laburrean. Immigrazioak EAEko gizartean duen eragina

Aurten ere, EAEko gizarteak immigrazioaren ondorioen gainean zer pertzepzio duen aztertzen badugu, ikusten da EAEko gizarteari oraindik ere ekonomiarekin, enpleguarekin eta ongizate-sistemaren zenbait elementurekin zerikusia duten alderdi batzuek eragin diotela kezka. Bestalde, ez da horrelako pertzepzio negatiborik ikusten identitatearekin, euskarekin edo abertzaletasunarekin zerikusia duten gaietan.

Aurreko barometroetan adierazi den bezala, immigrazioari buruz egiten den debate sozialak ez du loturarik identitateari eta euskararen erabilerari buruzko debate politikoarekin EAEn. Gaiak bereizten direnez, ez da sortzen gizarte osoari erasaten dion pertzepzio negatiborik. Alde horretatik, immigrazioaren problematikak lotura estuagoa du kezka sozioekonomikoekin, nortasunari buruzko kezkekin baino.



Ekonomiaren gaineko eraginei dagokienez, 2016ko barometroan, immigrazioak ekonomian dituen eragin positiboak buruzko pertzepzioak hobera egiten jarraitzen du, eta eragin negatiboak buruzko jarrerak, aldiz, behera egiten jarraitzen dute. Hala, gehiengoak uste du etorkinei esker ekonomia hobeto dabilela, bertakoek nahi ez dituzten lanpostuak hartzen dituztelako, eta gure ekonomiako sektore batzuetan lan egiteko etorkinak behar ditugula. Era berean, gero eta jende gutxiagok uste du immigrazioak langabezia handitzen duela edo lana aurkitzea zailagoa dela etorkinen etorreraren ondorioz.


Izan ere, krisi ekonomikoak iritzi orokorrean eragiten du, enplegua suntsitu eta baliabide gutxiko biztanleen arriskua eta zaugarritasuna areagotzen duelako. Alabaina, 2016ko barometroko emaitzek erakusten digutenez, egoera ekonomikoa hobetu ahala, immigrazioaren eta lan-merkatuaren inguruko jarrerak hobetu egiten dira.

2015eko barometroaren aldean, bertako herritarrek ongizate-sistemaren gainean aztertutako alderdi gehienetan dituzten kezkek behera egin dute, eta krisi ekonomikoaren azken etapa honetan nabarmentzen hasi den beherako joerari eutsi diogu. Hitz batez, EAEko gizartearen jarrerak bere horretan dirau, eta krisi ekonomikoaren aurreko balioak berreskuratu ditu.

## Harrerako komunitatearen eta etorkinen arteko bizikidetzeta eta integrazioa

«Harrerako komunitatearen eta etorkinen komunitatearen arteko bizikidetzeta eta integrazioa» deritzon atal honetan, hau guztia landuko dugu: bizikidetzeta-ereduak, estereotipoak eta aurreiritziak, eskubideak eta zerbitzuak eskuratzeko aukera, harremanetarako eremuak, kultura-ohiturak mantentzea, begikotasuna eta integrazio-mailaren pertzepzioa. Erantzunak bildu, eta lau indize laburtu prestatu eta aztertu ditugu, iritzi horietako bakoitzak arlo hauetan zer eragin duten jakiteko: bizikidetzeta-ereduetan, estereotipo eta aurreiritzietan, eskubideak eta zerbitzuak eskuratzeko aukeran, eta harremanetarako eremuetan.


4. irudia. Bizikidetzeta eta integrazioa: aztertutako alderdiak, 2016



**Bizikidetz-ereduak**

Bizikidetz-ereduari dagokionez, aztertuko dugu ea bertako biztanleek ondo ikusten duten immigrazioa dela-eta instituzioek, erakundeek, antolakundeek eta gizarte mugimenduek bultzatzen duten kultura-aniztasunaren eredia.


17. grafikoa. Bizikidetz-ereduak. Balorazioa, (%)



19G. Txartel hau erabilita, esaniezadazu zenbateraino zauden ados edo ez esaldi horietan adierazten denarekin

EAEko biztanleen % 56,7k dio (17. grafikoa) beste etnia-talde batzuetako immigratzaile atzerritarrek aberastu egiten dutela Euskadiko bizitza kulturala, eta % 24,1ek ez du uste hori horrela denik. 2015en aldean, badirudi kultura-aniztasunaren aldeko jarrerak bere horretan jarraitzen duela, nahiz eta apur bat behera egin duen (18. grafikoa). Edonola ere, 2010etik hona, gora egin du atzerriko immigratzaileen eta beste etnia-talde batzuen etorrerak aberastasuna dakarrelako iritzia duten pertsonen ehunekoak.

18. grafikoa. EAEko biztanleen arteko bizikidetz-ereduak (Erabat ados / Ados, %), 2004, 2007-2016




19G. Txartel hau erabilita, esaniezadazu zenbateraino zauden ados edo ez esaldi horietan adierazten denarekin...

Ohitura eta tradizio berak izateari dagokionez, EAEko herritarren erdiek (% 50,9) uste dute hori izango litzatekeela egoera onena, baina hamarretik hiruk (% 31,7) ez dute hori uste.

Ildo berean, jakin nahi izan dugu ea bertako biztanleek begi onez ikusten duten atzerritarrek eta etorkinek harrerako herrialdeko hizkuntzak hitz egitea. Gehienek (% 76,5) uste dute pertsona guztiek –immigranteek eta atzerritarrek– hitz egin beharko litzuketela harrerako herrialdeko hizkuntzak. Adostasun-maila 2004koaren antzekoa da. 2004tik 2011ra EAEko gizartea banatuta egon da, alde batetik asimilazioaren aldekoak eta bestetik kultura-aniztasunaren aldekoak. 2011tik aurrera, joera hori bertan behera gelditu, eta asimilazioaren aldeko ereduak gailendu da (18. grafikoa).

Galdeketari erantzun diotenen kultura-aniztasunari buruz duten iritzia aztertu ondoren, ikus dezagun EAEko herritarren arabera aniztasun hori nola kudeatu beharko litzatekeen eta zein diren bizikidetzak-eredu egokienak.

19. grafikoa. Bizikidetzak-ereduak: Aniztasunaren kudeaketaren balorazioa (%), 2016




19G. Txartel hau erabilia, esan iezadazu zenbateraino zauden ados edo ez esaldi horietan adierazten denarekin...

Atal hau amaitzeko, bertako biztanleei galdetu diegu ea nork egin behar duen bizikidetzak hobea lortzeko ahalegina, etorkinek ala den-denek, immigranteek nahiz bertakoek.

Hasiera batean, herritarren % 72,8k uste du guztiek egin behar dutela ahalegina, bai atzerritarrek, bai bertakoek. Alabaina, ahalegina etorkinek egin beharko luketela galdetutakoan, inkestatuena % 85,4k baietz erantzun du, horrela izan beharko lukeela, eta % 66,3k ez du uste bertakoek ahalegina egin behar dutenik (19. grafikoa).

Azken urteotako bilakaerak adierazten du herritar gehienek asimilazioaren aldeko ereduak hobesten dutela. Hala, eredu horren arabera, etorkinek egin beharko lukete EAEko gizartean integratzeko ahalegina, gure ohiturak eta tradizioak hartuz.

20. grafikoa. EAEko biztanleen arteko bizikidetzaren ereduak (Erabat ados / Ados, %), 2004, 2007-2016



19G. Txartel hau erabilita, esan iezadazu zenbateraino zauden ados edo ez esaldi horietan adierazten denarekin...

### EAEko herritarrek bizikidetzaren ereduaren gainean duten jarrerari buruzko indize partziala

12. taula. Bizikidetzaren ereduari buruzko pertzepzioaren indizearekin lotutako aldagaiak

| BIZIKIDETZA-EREDUAK   |           |                              |                |
|---|-----------|------------------------------|----------------|
| Pertsona intoleranteen profila  | Aldagaia  | Pertsona toleranteen profila |                |
| 45-64 urte bitartekoak eta hortik gorakoak                                    | 3,49/3,19 | Adina                        | 4,15           |
| 18 eta 29 urte bitartekoak  |           |                              |                |
| Lehen mailako ikasketak, ikasketarik ez                                       | 3,33/2,70 | Ikasketak                    | 4,31/4,04      |
| Goi- eta erdi-mailako unibertsitate-ikasketak                                 |           |                              |                |
| 5.001- 20.000 biztanleko herriak  | 2,86      | Bizilekua                    | 3,77/3,99/3,71 |
| Hiriburuak, 20.001-150.000 biztanleko herriak eta gehienez 5.000 biztanlekoak |           |                              |                |
| Katoliko praktikanteak eta ez praktikanteak                                   | 3,38/3,39 | Erljioa                      | 4,07           |
| Agnostikoak, ateoak...  |           |                              |                |
| Erdaldunak  | 3,52      | Hizkuntza                    | 3,75           |
| Euskaldunak   |           |                              |                |
| Zentrokoak, eskuinekoak   | 3,20/3,36 | Ideologia                    | 4,09           |
| Ezkerrekoak   |           |                              |                |
| Hileko 1.000 €  | 3,29      | Diru-sarrerak                | 3,90/4,02      |
| Hileko 1.801-2.500 €, hileko 2.500 €-tik gora                                 |           |                              |                |
| Ez daude pozik beren gaur egungo egoera ekonomikoarekin, ezaxola              | 3,31/3,53 | Egoera-ekonomikoa            | 3,95           |
| Pozik beren gaur egungo egoera ekonomiarekin                                  |           |                              |                |
| Erretiratuak, etxea zaintzen dutenak  | 3,20/3,40 | Lanbidea                     | 4,38           |
| Ikasleak  |           |                              |                |
| Ertaina eta apala   | 3,76/3,41 | Estatua                      | 4,3            |
| Altua   |           |                              |                |
| Ezkorrak  | 3,36      | Baikortasuna                 | 3,75           |
| Baikorrak   |           |                              |                |
| Aurreikuspen normalak eta txarrak   | 3,70/3,42 | Etorkizuna                   | 4,07           |
| Aurreikuspen onak   |           |                              |                |
| Inolako harremanik ez   | 3,46      | Interakzio pribatua          | 3,92           |
| Harreman handia   |           |                              |                |
| Batere ez edo interakzio apur bat   | 3,40/3,77 | Aisiako interakzioa          | 4,39           |
| Handia  |           |                              |                |

Iturria: egileek egina.

Gaiari buruzko galderen erantzunekin (galdetegiko 19a, 19b, 19c, 19g, 19h eta 19i itemak) EAEko biztanleek bizikidetzaren ereduaren gainean duten jarrerari buruzko indizea landu dugu. Indizea 0 puntutik 10era bitartekoa da. Horrela, immigrazioarekiko jarrera asimilatzaileena, uzkurrena eta negatiboena dutenak 0 puntura gerturatu dira indize horretan, eta jarrera positiboena, irekiena, pluralena, ekintzaileena eta kulturartekoena dutenak 10 puntura.

Beste behin ere, estatistikoki esanguratsuak diren aldeak hauteman ditugu herritar multzo bati eta bestearen artean. Kultura-aniztasunaren aurrean jarrera toleranteena eta intoleranteena dutenen profilak 12. taulan jaso ditugu.


### Estereotipoak eta aurreiritziak

Atal honetan aztertuko dugu zenbateraino dauden indarrean hemengo jendearen artean etorkinei buruz gehien zabaldua dauden estereotipoak; hau da, azken batean, integrazioa zailtzen duten estereotipoak. Amaitzeko, estereotipo eta aurreiritzi batzuk zenbateraino errotuta dauden adierazten duen indizea aurkeztuko dugu.

Zehazki, aztertuko dugu zer ikuspegi duen hemengo biztanleriak etorkinen erlijio-praktikei buruz, gizartea zahartzearen arazoan duten eraginari buruz, gizarte-babeseko sistematik jasotzen duten onurari buruz, segurtasunaren arloan duten eraginari buruz, zergekin duten erlazioari buruz eta haien etorrerak langabeziaren gorakadan duten eraginari buruz.

Zaila da estereotipo horiei guztiei aurre egitea, gizartean oso erroturik daudelako eta, hain onartuak egonik, horma edo egitura ia hautsiezina eraten dutelako. Nahiz eta egitura hori ia aldaezina den, haren iraupenari eta gizarte-hedadurari buruzko zantzu batzuk ageri dira. Estereotiporik ohikoenetako batzuk ikusiko ditugu segidan:

21. grafikoa. Estereotipo negatiboak. Balorazioa (%), 2016




19G., 6G. Txartel hau erabilia, esan diezadazu zenbateraino zauden ados edo ez esaldi horietan adierazten denarekin...

Biztanleriaren zahartzeari dagokionez (21. grafikoa), bertakoek onartzen dute etorkinak Europara etorrira zahartzearen arazoak konpon daitezkeela (% 54,8), nahiz eta gutxi batzuk horrekin ados

ez egon (% 16,6). Hori horrela ez dela badakigun arren, jakin nahi genuen Europako eta Euskadiko gizartearen egiturazko arazo horrekiko ekarpen instrumentalak zenbateraino baldintza dezakeen immigrazioaren onarpena. Ildo horretan, biztanleen zati bat baieztapen horrekin bat dator, eta azken urteetan kopuruak gora egin du.

Etorkinei buruzko beste estereotipo negatibo batzuei dagokienez, estereotipo horiek areagotu egin dira azken urteotan, eta gure gizartearen immigrazioaren kontrako eguneroko diskurtsoan mamitu dira. Azter ditzagun, bada, estereotipo horietako batzuk. Estereotiporik ohikoenen artean daude, besteak beste, gizarte-babesarekin eta zergekin, herritarren segurtasunarekin eta nortasun-ezaugarriekin loturikoak.

22. grafikoa. Estereotipoak EAEko biztanleen artean, (Erabat ados/Ados) (%), 2004, 2007-2016



19G. eta 6G. Txartel hau erabilia, esaniezadazu zenbateraino zauden ados edo ez esaldi horietan adierazten denarekin...


Bertako herritarrak ez daude etorkinen erlijio-praktikekin kezkatuta. Inkestaturen % 62,7k ez du uste praktika horiek bere bizimodua arriskuan jar dezaketarik, eta, aldiz, % 22,5ek baietz uste du. Bilakaerari erreparatuta, ez dago etorkinen erlijio-praktikak bertakoen bizimodurako mehatxu izan daitezkeen pertzepzioaren zantzurik.

Gizarte-babesari eta zergei dagokienez, EAEko biztanleen % 56,5en ustez, etorkinak gehiegi baliatzen dira gizarte-babeseko sistemaz, eta % 21,8k, berriz, kontrakoa pentsatzen du. «Immigratzaileek ondoren jasotzen dutena baino zerga gutxiago ordaintzen» dutelako estereotipoak bizirik dirau EAEko gizartearen. Galdera-sortari erantzun dioten % 41,8k uste du etorkinek zerga gutxiago ordaintzen dutela ondoren jasotzen dutena baino, eta % 21,8k kontrako ustea du.

Herritarren segurtasuna da immigratzaileen kolektiboari kale handien egiten dion estereotipoetako bat, immigrazioa eta herritarren segurtasun-gabezia elkarrekin lotzen dituelako. 21. grafikoa ikus daitekeenez, biztanleen % 34,9k uste du immigrazioak eragin negatiboa duela herritarren segurtasunean, baina gehiago (% 39,8) dira kontrakoa uste dutenak. Bestela esanda, bi uste kontrajarri daude: immigrazioa eta delinkuentzia lotzen dituen, eta erlazio hori inolaz ez dagoela dioena. 2004tik 2015era arte, EAEko gizartea inoiz ez zen horren banatuta egon estereotipo horren inguruan, eta, 2016an, lehenbiziko aldiz, gehiago dira immigrazioak herritarren segurtasunari eragiten ez diola uste dutenak.

Aurretiaz aipaturiko estereotipoez gain, laugarren urtez jarraian aztertu ditugu kalean entzuten diren iritzi eta iruzkinak, EAEko gizarteak immigrazioarekin dituen estereotipoak eta aurreiritziak eraikitzen laguntzen dutelakoan. Horrela, honako estereotipo hauekiko adostasun-maila ezagutu nahi izan dugu: «etorkinak gizarte-laguntzetatik bizi dira», «immigrazioak matxismoa eta genero-indarkeria indartzen ditu», «etorkinek ez dute integratu nahi», «ikasle etorkinek eskoletako hezkuntza-maila behar dute».


23. grafikoa. Etorkinei buruzko estereotipoak EAEko biztanleen artean, (%)



6G, 19G. Txartel hau erabilia, esan iezadazu zenbateraino zauden ados edo ez esaldi horietan adierazten denarekin


- Estereotipoen artean, nabarmentzekoa da ia EAEko biztanleen erdian ustez (% 47,9) «etorkinak gizarte-laguntzetatik bizi» direla eta % 39ren ustez «immigrazioak matxismoa eta genero-indarkeria indartzen» dituela.
- Alabaina, herritarren gehiengoa ez dago ados kalean aipatzen diren beste estereotipo batzuekin; adibidez, ez dute uste «immigratzaileek lana kentzen» dutenik (% 56,2) edota «ikasle etorkinek eskoletako hezkuntza-maila jaitsarazten» dutenik (% 53,8).
- Beste estereotipo batzuekiko tarteko jarrerak ikusten ditugu EAEko biztanleen artean. Estereotipo horietako bat da etorkinek ez dutela integratu nahi. Kasu horretan, EAEko biztanleak banatu egiten dira: % 26 adierazpen horrekin ados dago, % 31,8 aurka, eta % 37,7k jarrera anbiguena du.

24. grafikoa. Bertako biztanleek etorkinen gainean dituzten estereotipoak (%), 2013-2016




6G, 19G. Txartel hau erabilia, esan diezadazu zenbateraino zauden ados edo ez esaldi horietan adierazten denarekin

Bertako biztanleek etorkinez daukaten irudiarri buruzko atal hau bukatzeko, aurtan ere jakin nahi izan dugu bertako herritarrek etorkinez zer pertzepzio duten, euren buruaz duten pertzepzioarekin alderatuta. Horretarako, bi kolektibok definitzeko erabiltzen diren topiko batzuk erakutsi ditugu: matxismoa, zintzotasuna, adeitasuna, ardura, langile izatea eta elkartasuna.



25. grafikoa. Bizikidetz-ereduak. Topikoak. Etorkinei buruzko pertzepzioa, EAEko biztanleekin alderatuta (%), 2016



17G. Atzerriko pertsonak nolakoak iruditzen zaizkizu, Euskadikoekin alderatuta...



Oro har, aurreko urteetan bezala, esan daiteke bertako biztanleriak etorkinei buruz nahiko irudi ona duela, matxismoaren gaian izan ezik; izan ere, 2016an, biztanleriaren % 55ek uste du atzerritarren matxistagoak direla hemengoak baino. Aztertutako gainerako alderdiei erreparatuta, bertoko biztanleen gehiengoak uste du etorkinak berdin-berdin direla zintzoak (% 77), adeitsuak (% 75), solidarioak (% 64,6), langileak (% 71,2) eta arduratsuak (% 68,5).

Bilakaerari erreparatuta, esan dezakegu, aurreko urtearen aldean, aztertutako datu gehienetan balorazioak bere horretan dirauela edo apur bat behera egin duela eta etorkinez dugun ikuspegi hobetu egin dela alderdi batzuetan, hala nola matxismoan eta elkartasunean.

### **Immigrazioari buruzko estereotipo eta aurreiritzi batzuk zenbateraino errotuta dauden adierazten duen indize partziala**

Esparru honetako galderen erantzunekin (galdetegiko 6g, 6h, 6i, 6j, 14a, 14b, 14c, 19d, 19f eta 19m itemak) indize partzial bat landu dugu, ikusteko zenbateraino dauden errotuta EAEko biztanleengan immigrazioari buruzko zenbait estereotipo eta aurreiritzi. Gainerako indizeak bezala, honako hau ere 0 puntutik 10era taxutu dugu; beraz, estereotipoak dituztenak edo bultzatzen dituztenak 0 puntura hurbilduko dira, eta errealitatearekin ongien lotzen den ikuspegi dutenak edo estereotipoen eraginagatik hain ikuspegi desitxuratua ez dutenak 10 puntura.

Beste behin ere estatistikoki esanguratsuak diren aldeak hauteman ditugu herritar multzo batzuen eta besteen artean. Estereotipoak hein txikiagoan eta handiagoan onartzen dituzten pertsonen profila 13. taulan jaso ditugu.

13. taula. Immigrazioari buruzko estereotipo eta aurreiritzi batzuk zenbateraino errotuta dauden adierazten duen indizearekin lotutako aldagaiak


| ESTEREOTIPOEN PRESENTZIA                                |           |                      |                                |   |
|---|-----------|----------------------|--------------------------------|---|
| Pertsona intoleranteenen profila                        |           | Aldagaia             | Pertsona toleranteenen profila |   |
| 65 urtekoak eta hortik gorakoak                         | 4,2       | Adina                | 5,17                           | 18 eta 29 urte bitartekoak  |
| Lehen mailako ikasketak, ikasketarik ez                 | 4,17/3,94 | Ikasketak            | 5,48                           | Goi-mailako unibertsitate-ikasketak   |
| 5.001-20.000 biztanleko herriak                         | 3,93      | Bizilekua            | 4,80/4,84/4,67                 | Hiriburuak, 20.001-150.000 biztanleko herriak eta gehienez 5.000 biztanlekoak |
| Katoliko praktik. eta ez praktikanteak                  | 4,24/4,38 | Erljioa              | 5,12                           | Agnostikoak, ateoak...  |
| Erdaldunak  | 4,39      | Hizkuntza            | 4,84                           | Euskaldunak   |
| Espaniarra, ezaxola                                     | 4,35/4,41 | Nazionalismoa        | 4,93                           | Euskalduna  |
| Batik bat espainiar izatearen sentipena                 | 3,93      | Identitate-sentipena | 4,78                           | Batik bat euskaldun sentitzen dira  |
| Zentrokoak, eskuinekoak                                 | 3,97/3,84 | Ideologia            | 5,35/4,72                      | Ezkerrekoak, zentro-ezkerrekoak   |
| Hileko 1.001-1.800 €                                    | 4,43      | Diru-sarrerak        | 5,08                           | Hileko 1.801-2.500 €  |
| Ez daude pozik beren gaur egungo egoera ekonomikoarekin | 4,13      | Egoera-ekonomikoa    | 4,84/6,66                      | Pozik beren gaur egungo egoera ekonomikoarekin, ezaxola                       |
| Erretiratuak, langabeak                                 | 4,21/4,64 | Lanbidea             | 5,56                           | Ikasleak  |
| Ertaina eta apala                                       | 4,68/4,40 | Estatua              | 5,38                           | Altua   |
| Handia  | 4,29      | Krisiaren eragina    | 4,83                           | Ertaina   |
| Aurreikuspen txarrak                                    | 4,3       | Etorkizuna           | 4,82/4,99                      | Aurreikuspen onak eta normalak  |
| Etorkinen nahasketa                                     | 4,2       | Auzoa                | 4,77                           | Bertakoak   |
| Batere ez edo interakzio apur bat                       | 4,40/4,70 | Aisiako interakzioa  | 5,68                           | Handia  |

Iturria: egileek egina.

**Eskubideak eta zerbitzuak eskuratzeko aukera: osasun-arreta, hezkuntza, laguntza juridikoa, gizarte-laguntzak, familia berriro elkartzea, boto-eskubidea, BOEak eskuratzeko aukera, Diru-Sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE)**

Atal honetan aztertuko dugu zer iritzi duten bertako herritarrek, etorkinek zenbait eskubide eta zerbitzu izateko eta erabiltzeko eskubideaz, eta zenbait eskubide eta zerbitzu izateko aukerari buruzko indizea aurkeztuko dugu. Bertako hainbat biztanleren arabera, eskubide horietako zenbaitek atzerriko etorkin guztien eskura egon behar lukete; beste zenbaitek uste dute eskubideak erregularizatuta daudenentzat soilik izan beharko luketela; eta azkenik, beste batzuen iritziz eskubide horiek ez lukete egon behar etorkinen eskura. Zer kasutan, zein eskubide eta norentzat aztertu dugu atal honetan.

26. grafikoa. Immigranteek eskubideak eta zerbitzuak izatea (%), 2016



15G. Orain, bertakoek dituzten zenbait eskubide aipatuko ditugu. Zure ustez, Euskadin bizi diren etorkinek ere egoera beretan izan behar lituzkete eskubide horiek?


EAEko biztanle gehienek uste dute osasun-laguntza (% 72,5) eta hezkuntza (% 78) eskubide unibertsalak direla, eta, ondorioz, immigratzaile guztiei aitortu behar zaizkiela, egoera erregularrean egon ala ez.

Dena den, beste eskubide batzuk aipatzen ditugunean, administrazio-egoera irregularrean daudenei ez ematearen aldekoak dira hemengo biztanle gehienak, eta, beraz, politika murriztailegoaren aldekoak. Zehazki, EAEko herritarrek uste dute etorkinek egoera erregularrean egon behar dutela laguntza juridikoa jasotzeko (% 53,8), gizarte-laguntzak eskuratzeko (% 63,8), familia elkartzeko (% 60,2), boto-eskubidea izateko (% 69,3) eta babes ofizialeko etxebizitzak (BOE) eskuratzeko (% 66,5).

Oro har, 2004ko datuak erreferentziatzat hartuta, esan dezakegu handitu egin dela atzerritarrei zenbait zerbitzu, hala nola gizarte-laguntzak, laguntza juridikoa, familia elkartzea, boto-eskubidea eta babes ofizialeko etxebizitza eskuratzeko, administrazio-egoeraren arabera eman behar zaizkiela –hots, erregularizatuta daudenei eman behar zaizkiela– uste dutenen ehunekoa. Murriztu egin da eskubide batzuk, hala nola hezkuntza eta osasuna, eskuratzeko eskubidea eta egoera erregularra lotzen dituen ikuspegia dutenen ehunekoa, eta handitu egin da eskubide horiek unibertsalak izan behar dutela uste dutenen ehunekoa.

Dena den, 2004tik 2016ra artean iritziek zer bilakaera izan duten aztertzen badugu, ikusiko dugu bi fase daudela: lehen etapan, ongialdi ekonomikoa izan zen nagusi, eta hezkuntza, osasuna eta halako eskubideak unibertsaltzat jotzen ziren, eta, bigarreanean (2012an hasia), osasuna, hezkuntza eta halako eskubideak ez ziren hain unibertsaltzat jotzen. Edonola ere, azken barometroetan, berriro ere gora egin du eskubideak –batik bat hezkuntza eta osasuna– denen eskura egon behar dutela uste dutenen kopuruak.

27. grafikoa. Etorkin GUZTIEK eskubideak eta zerbitzuak izatea (%), 2004, 2007-2016



|                                | 2004 | 2007 | 2008 | 2009 | 2010 | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 |
|--------------------------------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|
| — Seme-alaben hezkuntza        | 55,4 | 60,0 | 64,9 | 59,7 | 63,4 | 71,1 | 52,8 | 58,8 | 68,4 | 69,9 | 78,0 |
| — Osasun-zerbitzua             | 65,0 | 65,0 | 71,2 | 66,7 | 70,1 | 72,9 | 57,5 | 58,9 | 64,9 | 67,8 | 72,5 |
| — Zerbitzu juridikoa           | 52,3 | 32,0 | 29,6 | 31,1 | 38,1 | 37,3 | 26,0 | 31,6 | 30,7 | 36,8 | 39,8 |
| — Gizarte-laguntzak            | 34,7 | 23,0 | 20,6 | 28,8 | 21,9 | 25,2 | 18,3 | 19,2 | 20,9 | 29,8 | 28,7 |
| — Senide gertukoena ekartzea   | 30,6 | 20,0 | 18,1 | 18,6 | 16,7 | 23,1 | 14,1 | 17,4 | 17,4 | 22,8 | 28,3 |
| — Bozkatzea                    | 23,2 | 18,0 | 14,7 | 17,6 | 15,5 | 18,3 | 11,3 | 13,5 | 13,5 | 17,0 | 17,3 |
| — Babes ofizialeko etxebizitza | 27,2 | 15,0 | 14,3 | 17,6 | 14,4 | 18,3 | 13,5 | 17,7 | 18,4 | 23,6 | 22,5 |


15G. Orain, bertakoek dituzten zenbait eskubide aipatuko ditugu. Zure ustez, Euskadin bizi diren etorkinek ere egoera beretan izan behar lituzkete eskubide horiek?

### Diru-sarrerak bermatzeko errenta

Aurreko urteetan bezala, diru-sarrerak bermatzeko errenta (DSBE) eskuratzeko aukerari buruz herritarrek zer iritzi duten jakin nahi izan dugu. Gai horri heltzeko, etorkinek laguntza horiek eskuratzeko hainbat aukera planteatu ditugu.

Inkestari erantzun dioten lagunen erdiek (% 48,5) uste dute eskubide hori mugarik gabe aitortu behar dela; hau da, premia duten bertoko eta kanpoko herritarrei aitortu behar zaiela, errol-datuta zenbat denbora daramaten kontuan hartu gabe. EAeko gizartearen beste zati batek, ordea, eskubide hori erabiltzeko aukera aitortzen du, baina mugak ezarrita. Hau da, batzuek uste dute lehenik eta behin bertoko biztanleen premiak ase behar direla (% 27), eta beste batzuek egoera erregularrean egotea exijitzen dute (% 18,7).

28. grafikoa. Diru-sarrerak bermatzeko errenta eskuratzeko aukera (%), 2011-2016




13G. Zer jarrera izan behar lukete erakundeek?

EAEko biztanleek DSBEa eskuratzeko moduari buruz duten iritziak zer bilakaera izan duen aztertzen badugu, ikusiko dugu iritziak aldatu egin direla azken urteetan, eta nabarmen egin duela behera zerbitzu hori administrazio-egoera erregularrean dauden pertsonen soilik izan beharko luketela uste duten pertsonen ehunekoak eta gora egin duela zerbitzu hori pertsona guztiek –errolatuta zenbat denbora daramaten kontuan hartu gabe– izan beharko luketela uste duten pertsonen ehunekoak (28. grafikoa).

29. grafikoa. Diru-sarrerak bermatzeko errentari buruzko politika (%), 2011-2016

Etorkinak neurritz kanpo baliatzen dira diru-sarrerak bermatzeko errentaz, eta ia guztia haien eskuetara doa

Etorkinek, DSBEa jasotzen dutenez, ez dute lanik egin nahi edo ez dute lanik bilatzen




14G. Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren gai horretan askotariko iritziak daude. Esaldi hauekin ados zauden edo ez jakin nahi nuke

Instituzioek DSBEari buruz hartu beharreko jarrerari dagokionez, % 55,3k uste du DSBEaren ondorioz etorkinek ez dutela lanik egiten edo ez dutela lanik bilatzen. % 25,2, ordea, ez dator bat iritzi horrekin. Halaber, bertako herritarren % 54ren ustez, etorkinek gehiegi baliatzen dute diru-sarrerak bermatzeko errenta, eta, azkenean, berenganatu egiten dute.

Azken urteetan, behera egin du etorkinek gizarte-laguntzak gehiegi baliatzen dituztela eta DSBEaren ondorioz etorkinek lanik egin nahi ez dutela uste dutenen ehunekoak.

**Prestakuntza profesionalarekin eta hizkuntzak ikastearekin loturiko zerbitzuak, bai etorkinen berezko hizkuntza edo ama-hizkuntza, bai tokian tokikoak ikasteko**

30. grafikoa. Etorkinek eskubideak eta zerbitzuak eskuratzeko duten aukera (%), 2016




16G. Zure ustez, Euskadin bizi diren etorkinek doan izan beharko lituzkete zerbitzu hauek

Gaztelaniazko eta euskarazko eskolei dagokienez, gero eta gehiago dira eskubide hori pertsona guztientzat dela uste duten pertsonak, hala gaztelaniazko eskolei dagokienez (% 61,3) nola euskarazko eskolei dagokienez (% 57,3).

Ama-hizkuntza ikasteko eskolei dagokienez, EAEko biztanleria banatuta dago: batzuek (% 32,5) uste dute ezein etorkinek ez lukeela eskubide hori izan behar, eta beste batzuek uste dute egoera erregularrean daudenez soilik (% 32,5) edo guztientzat (% 28,9) izan behar dela.

Bilakaerari erreparatuta (31. grafikoa), ikus dezakegu EAEko biztanleen iritzia egoera ekonomikoaren arabera aldatu dela. Krisi ekonomikoaren aurreko urteetan, eskubideak eta zerbitzuak –gaztelaniazko eskolak, euskarazko eskolak, ama-hizkuntza ikasteko eskolak eta lanbide-heziketa– jasotzeko aukera etorkin guztiek –haien administrazio-egoera gorabehera– jasotzearen aldekoagoak ziren. 2012tik aurrera, ordea, jarrera horrek behera egin zuen. Beherakada hori krisi ekonomikoak EAE gogorren jo zuen unean gertatu zen, hain zuzen. Data horretatik aurrera, krisiaren aurreko balioak berreskuratzen hasi gara. Berreskuratze hori batik bat 2015eko eta 2016ko emaitzetan ikusten da.

31. grafikoa. Etorkin GUZTIEK eskubideak eta zerbitzuak izatea (%), 2007-2016



16G. Zure ustez, Euskadin bizi diren etorkinek doan izan beharko lituzkete zerbitzu hauek

### Etorkinek eskubideak eta zerbitzuak jasotzeko aukera izatearen aurrean EAEko biztanleek duten jarrerari buruzko indize partziala

14. taula. Eskubideak eta zerbitzuak jasotzeko aukerari buruzko indizearekin lotutako aldagaiak

#### ESKUBIDEAK ETA ZERBITZUAK JASOTZEKO AUKERA

| Pertsona intoleranteenen profila            |           | Aldagaia             |           | Pertsona toleranteenen profila                |
|---|-----------|----------------------|-----------|---|
| 65 urtekoak eta hortik gorakoak             | 6,73      | Adina                | 7,59      | 18 eta 29 urte bitatekoak                     |
| Ikasketarik ez                              | 6,39      | Ikasketak            | 7,60/7,37 | Goi- eta erdi-mailako unibertsitate-ikasketak |
| Katoliko praktikanteak eta ez praktikanteak | 6,65/6,86 | Erlijioa             | 7,47      | Agnostikoak, ateoak...                        |
| Erdaldunak                                  | 6,70      | Hizkuntza            | 7,36      | Euskaldunak                                   |
| Espainiarra, ezaxola                        | 6,67/6,73 | Nazionalismoa        | 7,42,00   | Euskalduna                                    |
| Batik bat espainiar izatearen sentipena     | 6,08      | Identitate-sentipena | 7,25      | Batik bat euskaldun sentitzen dira            |
| Zentrokoak, eskuinekoak                     | 6,23/6,14 | Ideologia            | 7,90      | Ezkerrekoak                                   |
| Etxea zaintzen dutenak, erretiratuak        | 6,82/6,82 | Lanbidea             | 7,87      | Ikasleak                                      |
| Handia                                      | 6,67      | Krisiaren eragina    | 7,08/7,17 | Ertaina, txikia                               |
| Aurreikuspen txarrak                        | 6,79      | Etorkizuna           | 7,27/7,19 | Aurreikuspen normalak eta onak                |
| Inolako harremanik ez                       | 6,76      | Interakzio pribatua  | 7,25/7,25 | Interakzio handia eta apur bat                |
| Inolako interakziorik ez                    | 6,67      | Interakzio publikoa  | 7,25      | Interakzio handia                             |
| Batere ez                                   | 6,62      | Aisiako interakzioa  | 7,73      | Handia  |

Iturria: egileek egina.


Esparru honetako galdera batzuei emandako erantzunekin (galdetegiko 15a, 15b, 15c, 15d, 15e, 15f, 15g, 16a, 16b, 16c eta 16d itemak) indize partzial bat landu dugu, ikusteko EAEko biztanleek zer jarrera duten atzerriko etorkinek eskubideak eta zerbitzuak eskuratzeari buruz. Indize hori 0 puntutik 10 puntura artekoa da; horrela, jarrera uzkurrena edo itxiena dutenak 0 puntutik hurbilago ageri dira, eta jarrera positiboena eta irekiena dutenak 10 puntutik hurbilago.

Beste behin ere estatistikoki esanguratsuak diren aldeak hauteman ditugu. Jarrera toleranteena eta irekiena duten pertsonen profila eta jarrera intoleranteena eta itxiena dutenena 14. taulan jaso ditugu.

### Harremanetarako eremuak eta kultura-ereduei eustea

Ondoren, bertako biztanleak eta atzerriko etorkinak non erlazionatzen diren aztertuko dugu; hots, harremanetarako eta elkarreraginerako zer espazio dituzten. Aurreko urteetan bezala, lehenik eta behin, bizitoki-eremuen tipologia planteatu dugu (atzeritar gehiago edo gutxiago bizi diren eremuak), jakiteko galdekatutako pertsonen zer motatako bizitokian nahiago duten bizi. Eta bestetik, atzerriko etorkinen kultura-ohiturekin lotutako gaiak planteatu dizkiegu, kultura-aniztasuneko edo kulturartekotasuneko testuinguruetan gerta daitezkeen aldaketak eta sor daitezkeen ohitura berriak zenbateraino onartzen dituzten jakiteko. Gero, beren udalerriko edo auzoko bizikidetzagiroari buruz galdetu diegu. Amaitzeko, harremanetarako eremuei buruzko indize laburtua aurkeztuko dugu.

32. grafikoa. Bizitoki-eremuekin loturiko lehentasunak (%), 2007-2016




22G. Non bizi nahi duzun erabaki beharko bazenu, zein aukeratuko zenuke hiru udalerrri- edo auzo-mota hauetatik

Bizitoki-eremuei dagokienez (32. grafikoa), EAEko biztanle gehienek (% 72) nahiago dute, aukeratan, beren arraza edo etnia-talde bereko pertsonak gehiago diren auzo batean bizi. Bostetik bik (% 20,5) nahiago dute beren auzoan inor ez izatea EAEko biztanlerian gehiengo ez den arraza edo etnia-taldetik kanpokoa, eta % 5,8k baino ez luke nahi arraza eta etnia-talde askotako pertsonak bizi diren toki batean bizi.

Bertoko biztanleriak, aurreko barometroetan adierazitakoaren ildo beretik, gaur egun bizi den antzeko ingurunean bizi nahi du; izan ere, Bilboko eta Gasteizko auzo zaharretan kokatutako bizpahiru lekutan izan ezik, esan daiteke ez dagoela kontzentrazio etniko nabarmenik.

Atal hau bukatzeko, aztertuko dugu zenbaterainoko tolerantzia duen hemengo biztanleriak etorkinak hemen finkatzearen ondorioz eta haien kultura- eta erlijio-ohiturei eustearen ondorioz sortu ohi diren egoerekiko. Horretarako, zehaztasun handiagoz jokatzeko eskatu diegu inkestatuei, eta galdetu diegu ea ondo ala gaizki iruditzen zaien atzerritarrek saltokiak, jatetxeak eta janari-dendak irekitzea, elkarren artean beren hizkuntzan hitz egitea, beren janzkera erabiltzea, gurtzarako tenpluak izatea, beren ikastetxeak izatea, eta lanpostu eta toki publikoak betetzea. Halaber, gurtzarako toki bat (meskita bat) irekitzearen inguruko tolerantzia-mailarekin lotutako galdera bat proposatu dugu, eta eztabaida sor lezakeen beste ekipamendu batekin (diskoteka batekin) alderatu dugu.

33. grafikoa. Etorkinen kultura-ereduekiko tolerantzia-maila (%), 2016



18G. Ondo edo gaizki iruditzen zaizu atzerriko pertsonak...


EAEko biztanleen gehiengoari ondo iruditzen zaio atzerritarrek sukaldaritza exotikoko edo atzerriko sukaldaritzako jatetxeak zabaltzea (% 63), beren saltokiak zabaltzea (% 61,2) eta beren janari-dendak izatea (% 56,8).

Alabaina, gai ez hain exotikoetan barneratzen garen heinean eta zenbait kultura-jokabideren muinera gerturatzen garen neurrian, ikuspegi asimilazionista azaleratzen da. Beraz, kultura-aniztasuna azalekoa dela esan dezakegu. Izan ere, pertsona gutxiagok onesten dute etorkinek beren janzkera propioa erabiltzea (% 32,2), ikastetxe propioak izatea (% 27,5) eta beren erlijioetarako tenpluak eraikitzea (% 39,7). Kultura-ohitura hauen inguruko tolerantzia tarteko mailan kokatzen da: atzerritarrek elkarren artean euren hizkuntzan jardutea (% 52,3) eta plaza eta espazio publikoak hartzea (% 43,8).

2008tik gaur egunera arte, kultura-ereduekiko tolerantzia-maila aldatu, eta kasu batzuetan jarra tolerantzagoak hartu dira. Salbuespen gisa, etorkinek beren janzkera propioa erabiltzearekiko tolerantzia-mailak 3 puntuko egin du behera 2008tik 2016ra artean.




34. grafikoa. Etorrinen kultura-ereduekiko tolerantzia-maila (Ondo, %), 2008-2016



18G. Ondo edo gaizki iruditzen zaizu atzerriko pertsonak...

Bertoko herritarren gehiengoaren ustez, harreman- eta bizikidetzagiro positiboa dago bertokoen eta etorrinen artean (35. grafikoa).


35. grafikoa. Udalerrian edo auzoan bertokoen eta atzeritarren artean dagoen bizikidetzagiroa (0 oso harreman txarra, 10 oso harreman ona), 2014-2016



7G. Otik 10era bitarteko eskala batean (0 oso txarra, eta 10, bikaina), zenbat puntu emango zenizkioke zure udalerrian edo auzoan bertokoen eta atzeritarren artean dagoen bizikidetzagiroari?

Amaitzeko, gurtzarako guneen inguruan EAEko gizartean sortu den eztabaidaren harira, zehazki, bertoko biztanleek gai horrekiko zer jarrera duten jakin nahi izan dugu, ea etxe azpian zer nahia go duten: meskita ala diskoteka. Ildo horretan, % 48k nahiago du meskita, % 34k diskoteka, eta % 21ek ez daki edo ez du erantzun.

36. grafikoa. Nahitaez aukeratu behar izanez gero, zer nahiago duzu zeure etxe azpian: meskita ala diskoteka? (%) 2015-2016



22G. Non bizi nahi duzun erabaki beharko bazenu, zein aukeratuko zenuke hiru udalerrri- edo auzo-mota hauetatik

### Harremanetarako eremuei buruzko pertzepzioaren indizea

Esparru honetako galderei emandako erantzunekin (galdetegiko 18a, 18b, 18c, 18d, 18e, 18f, 18g, 18h, 22 eta 33 itemak) harremanetarako eremuak direla-eta EAEko biztanleek duten jarrerari buruzko indize partziala landu dugu. Indize hori 0 eta 10 puntu artekoa da; horrela, elkartruckerako jarrera uzkurrena edo itxiena dutenak 0 puntutik hurbilago ageri dira, eta jarrera pluralena eta irekiena dutenak 10 puntutik hurbilago.

Beste behin ere estatistikoki esanguratsuak diren aldeak hauteman ditugu herritar multzo batzuen eta besteen artean. Jarrera toleranteena eta intoleranteena dutenen profilak 15. taulan jaso ditugu.

15. taula.. Harremanetarako eremuei buruzko pertzepzioaren indizearekin lotutako aldagaiak

| HARREMANETARAKO EREMUAK                                 |           |                     |                                |   |
|---|-----------|---------------------|--------------------------------|---|
| Pertsona intoleranteenen profila                        |           | Aldagaia            | Pertsona toleranteenen profila |   |
| 65 urtekoak eta hortik gorakoak                         | 5,02      | Adina               | 6,60                           | 18 eta 29 urte bitartekoak                              |
| Ikasketarik ez  | 4,74      | Ikasketak           | 6,68                           | Goi-mailako unibertsitate-ikasketak                     |
| 5.001-20.000 biztanleko herriak                         | 5,05      | Bizilekua           | 6,06/5,87                      | Hiriburuak eta 20.001-150.000 biztanleko herriak        |
| Katoliko praktikanteak eta ez praktikanteak             | 5,16/5,39 | Erlijioa            | 6,45                           | Agnostikoak, ateoak...                                  |
| Erdaldunak  | 5,43      | Hizkuntza           | 6,03                           | Euskaldunak   |
| Zentrokoak  | 5,29      | Ideologia           | 6,42                           | Ezkerrekoak   |
| Hileko 1.000 €  | 5,00      | Diru-sarrerak       | 6,49                           | Hileko 2.500 € eta gehiago                              |
| Ez daude pozik beren gaur egungo egoera ekonomikoarekin | 5,08      | Egoera-ekonomikoa   | 6,12/5,72                      | Pozik beren gaur egungo egoera ekonomikoarekin, ezaxola |
| Etxea zaintzen dutenak, erretiratuak                    | 5,26/5,22 | Lanbidea            | 6,71                           | Ikasleak  |
| Ertaina, apala  | 5,84/5,38 | Estatusa            | 6,76                           | Altua   |
| Aurreikuspen txarrak                                    | 5,45      | Etorkizuna          | 6,04                           | Aurreikuspen normalak                                   |
| Etorkinen nahasketa, bertakoak                          | 5,99/5,55 | Auzoa               | 7,29                           | Etorkinak   |
| Inolako harremanik ez                                   | 5,36      | Interakzio pribatua | 6,08/6,01                      | Handia eta apur bat                                     |
| Inolako interakziorik ez                                | 5,17      | Interakzio publikoa | 6,03/5,87                      | Handia eta apur bat                                     |
| Inexistente relación                                    | 5,33      | Aisiako interakzioa | 6,54                           | Handia  |


Iturria: egileek egina.

### Begikotasun-maila eta integrazioa

EAEko herritarrek hainbat herrialdeetako etorkinenganako sentitzen duten begikotasuna aztertuko dugu atal honetan. Orobat aztertuko dugu EAEko herritarren arabera etorkinak zenbateraino integratuta dauden EAEko gizartean. Susmatzen dugu bertako jendeak integrazio-maila lotzen duela beste nazionalitate edo herrialdeetako jendearenganako duen begikotasunarekin. Hala, 5. irudian ikus dezakegunez, hemengo biztanleriak kultura, politika edo gizarte aldetik hurbilen dituen kolektiboek ematen die integrazio-mailarik handiena, eta kolektibo horiek ditu begikoenak eta alderantziz. Oti 10erako eskala batean neurtu dugu begikotasun hori, kontuan hartuta Ok esan nahi duela etorkinak ez dituztela batere begiko eta 10ek oso begiko dituztela, eta ildo hauek ikus ditzakegu:

- Europar Batasunetik (6,3 eta 6,5 puntu) eta Argentinatik (6,2) iritsitako pertsonak dituzte begikoen EAEko herritarrek, eta, beraz, uste dute haiek daudela integratuen.
- Begikotasun eta integrazio txikiena magrehtarrek (4,3 eta 3,4), errumaniarrek (4,6 eta 4) eta pakistandarrek (4,9 eta 4,2) dute. Hemengo biztanleek txinatarrak begikotasun handiagoz ikusi arren, gutxiago integratuta daudela uste dute.
- Gainerako herrialdeetako etorkinek tarteko puntuazioa dute. Talde horretan daude Latinoamerikatik –Ekuadorretik, Kolonbiatik, Boliviatik, Paraguitik eta Nikaraguitik– eta Ipar Amerikatik datozen etorkinak.

5. irudia. EAEn bizi diren etorkinenganako begikotasun-mailaren eta haien integrazio-mailaren arteko erlazioa (0 begikotasun/integrazio gutxi edo batere ez, 10 oso begiko/integratuta)




20G. Esan iezadazu, mesedez, Oti 10era bitarteko puntuazioa duzula, zenbatekoa den munduko herrialde edo eskualde hauetako pertsonenganako sentitzen duzun sinpatia; kontuan izan, 0 sinpatia eza dela eta 10 sinpatia handia

21G. Oti 10era bitarteko eskala batean, z'nola hautematen duzu herrialde eta munduko zonalde hauetako pertsonen integrazio-maila?, kontuan izan, 0 "batere integratuta ez" dela eta 10 "gutziz integratuta"

6. irudia. Etorकिनenganako begikotasun-maila etorkinen jatorrizko herrialdearen arabera (0 begikotasun gutxi edo batere ez, 10 begikotasun handia), 2007, 2016

7. irudia. Etorकिन integrazio-maila etorkinen jatorrizko herrialdearen arabera (0 integrazio gutxi edo batere ez, 10 integrazio handia), 2007, 2016



20G. Otik 10era bitarteko puntuazioa duzula, zenbatekoa den munduko herrialde edo eskualde hauetako pertsonenganako sentitzen duzun sinpatia.

21G. Otik 10era bitarteko eskala batean, nola hautematen duzu herrialde eta munduko zonalde hauetako pertsonen integrazio-maila?

2007an EAEko biztanleek herrialde bateko eta besteko etorkinekiko zuten begikotasuna bederatzi urte geroago (2016an) dutenarekin alderatzen badugu (6. irudia), bi ildo ikusiko dugu: bata aztertutako kolektibo guztienganako begikotasunaren gorakadarekin dago lotuta, eta bestea EAEko gizarteak gogokoen eta begikoen dituen jatorriekin. Hala, bertakoek Mendebaldeko EBko eta Argentinako etorkinak dituzte begikoen, eta Magrebetik eta Errumaniatik etorritako etorkinekiko dute begikotasun gutxien.

2007an hemengo biztanleek kolektiboen integrazio-mailari buruz zuten pertzepzioa eta gaur egun dutena aztertzen badugu (7. irudia), ikusiko dugu pertzepzio horrek eta begikotasun-mailarenak joera bera izan dutela. Hau da, kolektibo guztiei buruzko pertzepzioa hobetu da, errumaniarrei buruzkoa izan ezik; izan ere, EAEko biztanleek uste dute ez daudela oso integratuta.

Atala amaitzeko, inkestatuei galdetu diegu ea haien ustez zenbaterainoko tolerantzia duten beraiek, batetik, eta EAEko gizarteak, bestetik. 37. grafikoan ikus dezakegunez, erantzunak hobeak dira inkestatuak immigrazioarekiko zenbaterainoko tolerantzia duen ebaluatu behar duenean –hamarretik ia zazpi puntu (6,8)– gizartearen tolerantzia-maila ebaluatu behar duenean baino –puntuazioa apur bat baxuagoa da (6,1)–.

**37. grafikoa.** Esan, mesedez, Otik 10erako eskala batean, zenbateraino zaren zu tolerantzia eta zenbateraino den EAEko gizarte tolerantzia. Ok «guztiz intolerantzia» esan nahi du, eta 10ek «oso tolerantzia»



28G. *Eta immigrazioarekiko tolerantzia-eskala batean, zer lekutan jarriko zenuke zeure burua, 0 “guztiz intolerantzia” baldin bada eta 10 “oso tolerantzia” baldin bada?*

29G. *Eta zein lekutan jarriko zenuke euskal gizartea, 0 “guztiz intolerantzia” baldin bada eta 10 “oso tolerantzia” baldin bada?*

### Laburrean. Harrerako komunitatearen eta etorkinen komunitatearen arteko bizikidetzaren eta integrazioa

**Bizikidetzaren ereduak.** 2016ko barometroaren emaitzek erakusten dutenez, EAEko gizarte oraindik ere kultura anitzeko gizarte baten aldekoa da, baina asimilazio-ikuspegi argi batetik. EAEko gizarteak aniztasuna onartzen du, eta aitortzen du aberastu egiten duela gizarte bera, baina,aldi berean, bertako pertsona gehienek uste dute, bizikidetzaren hobetzeko, immigranteek bertako ohiturak eta tradizioak eskuratzen saiatu behar luketela.

Immigrazioak asimilazioaren aldeko erreakzioak sorrarazi ohi ditu, norberaren ohiturak, gure gizartean nagusi direnak, babesteko xedea dutenak, gorabidean dauden errealitate berriekiko. Gizarte-jarrera hori oraindik ere nahiko hedatuta dago gure gizartean, non immigrazioa egiturazko fenomeno sozial egonkorra baita.

Amaitzeko, inkestatuei beren udalerrian edo auzoan haien ustez zer bizikidetzaren giro dagoen galdetu, eta inkestatuek modu positiboan baloratu dute bizikidetzaren giroa (sei puntu hamarretik), eta balorazio hori 2015ekoa baino apur bat hobea da.

**Estereotipoak eta aurreiritziak.** EAEko gizartean, migrazioaren fenomenoarekin lotutako estereotipo batzuk gailentzen dira. Estereotipo horien artean, hauek nabarmentzen dira: «gizarte-babeseko sistema neurritz gain baliatzen dute» eta «jasotzen dutena baino zerga gutxiago ordaintzen dituzte». Horretaz gainera, bertako biztanleriarekin alderatuta, hemen-gende gehienak uste du EAEko gizarteko jendea baino matxistagoak direla atzerritarrenak.

Halere, gehiengoak uste du bertoko herritarrak bezain zintzoak, solidarioak, arduratsuak, langileak eta adeitsuak direla. Halaber, etorkinek zahartzearen arazoa konpon dezaketela uste dute galdekatutako pertsona gehienek.

EAEko gizarteak pentsatzen du etorkinek modu erregularrean bizi behar dutela EAEn gizarte-eskubideak eta -zerbitzuak eskuratzeko. Dena den, osasuna eta hezkuntza eskubide uni-bertsaltzat jotzen ditu.

**Kultura-ereduei eusteari eta harremanetarako eremuei** dagokienez, bertako biztanleek jarrera irekiagoz hartzen dituzte zerbitzu bat eman diezaieketen alderdiak eta kultura-aniztasunaren kanpoko elementutzat edo elementu estetikitatzat har daitezkeen alderdiak, hala nola merkataritza etnikoa eta atzerritarrek irekitako saltokiak. Exotikoak eta azalekoak diren alderdi horiek errazago onartzen dira sakonagoak eta funtsezkoagoak diren beste alderdi batzuk baino, hala nola erlijio-tenpluak eraikitzearekin, janzkera propioa erabiltzearekin eta ikastetxe propioak izatearekin lotutako alderdiak.

Edonola ere, oro har, aztertutako kultura-ohitura gehienetan, onarpena handiagoa da gaitzespena baino. Salbuespen bakarra ikastetxe propioak izatearekin lotuta dago, bertako biztanle gehienak horren aurka baitaude.

Jatorri bateko eta besteko atzerriko biztanleekiko **begikotasun-mailari eta haien integrazio-mailari** dagokienez, ikusten dugu badagoela lotura bat integrazio-mailaren pertzepzioaren eta begikotasun-mailaren pertzepzioaren artean. Hemengo biztanleriak kultura, politika edo gizarte aldetik hurbilen dituen kolektiboek ematen die integrazio-mailarik handiena, eta kolektibo horiek ditu begikoenak, eta alderantziz. Zehazki, Mendebaldeko Europako eta Argentinako etorkinak ditu begikoen, eta uste du haiek dutela integrazio-maila handiena. Beste muturrean, Magrebeko eta Errumaniako etorkinak daude: EAEko biztanleriak ez ditu hain begiko, eta uste du gutxiago integratuta daudela.

Amaitzeko, esan dezakegu lehentasun horiek eta EAEko gizarteak duela ia hamar urte zituenak ez direla oso desberdinak. 2007an, EAEko gizarteak lehentasun berberak zituen; alegia, Mendebaldeko Europako eta Argentinako etorkinak zituen gogokoen, eta uste zuen herrialde horietako etorkinak zeudela integratuen. Aldiz, Magrebeko eta Errumaniako etorkinekiko zuen begikotasun-maila txikiena, eta uste zuen herrialde horietako etorkinak zeudela gutxien integratuta.

Edonola ere, 2016ko emaitzak 2007ko barometroarekin alderatuz gero, esan dezakegu EAEko gizarteak begikotasun handiagoa diela aztertutako atzerritarren kolektiboek, bai eta integratuago daudela uste duela ere. Errumaniar etorkinak salbuespen dira: nahiz eta begikotasun handiagoz ikusi, EAEko gizarteak uste du kolektibo hori 2007an baino gutxiago integratuta dagoela.

## Immigrazio-politika

Azken atal honetan, EAEko biztanleen arabera EAEko erakundeek zer-nolako immigrazio-politika egin behar duten aztertuko dugu. Horretarako, hemengo jendeari galdetu diogu zer den, haien ustez, immigrazio-politikarik egokiena kanporatzeko arrazoiei buruz edo egin beharreko politika babes politikoa eskatzen duten pertsonekin, eta zer iritzi duen EAEko gizartea errefuxiatuen aurrean izaten ari den erantzunaz. Amaitzeko, hartu beharreko migrazio-politikari buruzko indize laburtuaren emaitzak aurkeztuko ditugu.

8. irudia. Immigrazio-politika: aztertutako alderdiak, 2016




### Sartzea, bertan gelditzea eta kanporatzea

Etorkinei hemen sartzeko eskatzen zaizkien baldintzei dagokienez, EAEko gizarteak migrazio-politika etorkinen lan-egoerarekin lotzen du, hein handi batean. Inkestatu gehienek onartzen dute immigranteen etorrera, baldin eta lan-kontraturik badute. Dena den, jarrera hori indarra galtzen ari da azken urteotan, eta beste jarrera batzuk indarra hartzen ari dira; esaterako, «legezko oztoporik gabe sartzeko» uztearen aldeko jarrera eta «legezko baldintzak betetzen dituztenei (familia elkartzea, ikaslea, errefuxiatua...)» soilik sartzekoaren aldeko jarrera. Ildo horretatik, etorkinei beste legezko baldintza batzuk betez gero sartzeko uztearen ideiak 9 puntu egin du gora azken urtean.


Beraz, ia pertsona guztiak dira atzerritarrei sartzeko uztearen aldekoak, baldin eta immigrazio-prozesua legezko baldintzen arabera egiten bada; hau da, lan-kontratua tartean bada edo legezko beste baldintza batzuk betetzen badira (% 69,1). Herritarren % 19,2, berriz, etorkin guztiei sartzeko uztearen aldekoa da, lege aldetik inolako oztoporik jarri gabe.

38. grafikoa. Immigrazio-politika EAEko biztanleen arabera<sup>1</sup> (%), 2007-2016




9G. Zure ustez, zer politika-mota litzateke egokiena immigranteen kasurako?

39. grafikoa. Etorkinak bertan gelditzeko eta kanporatzeko faktoreak (%), 2007-2016



<sup>1</sup>2011ra arteko barometroetan hauek ziren galdera eta erantzuna: Zure ustez, zer politika-mota litzateke egokiena langile immigranteen kasurako? a) Inolako lege-trabarik gabe sartzen uztea, b) Lan-kontratua dutenei bakarrik sartzen uztea, c) Erabat debekatzea etorkin atzerritarrek sartzea.





6G. Txartel hau erabilia, esan izadazu zenbateraino zauden ados edo ez esaldi horietan adierazten denarekin  
 d) Lanera etortzen diren atzerritarren denboraldi batez langabezian geratuz gero, kanpora bidali beharko lirateke.  
 f) Hona etorri den norbaitek delituren bat egiten badu, herrialdetik kanpora bidali beharko litzateke.

Bertako jendeak gehien onesten duen sarbide-sistema lan-kontratuaren bidezkoa da oraindik ere. Zein dira, ordea, inkestatuen ustez, etorkinei hemen gelditzen uzteko edo etorkinak kanporatzeko faktoreak? 39. grafikoak erakusten duenez, % 66,6k uste du aldi batez lanik gabe gelditzea ez dela inor kanporatzeko arrazoi; % 11,5ek, aldiz, aurkakoa uste du. Edonola ere, bertoko biztanleria zorrotzagoa da legea betetzearen gaiarekin. Inkestatutako pertsonen erdiek (% 50,9) uste dute delituren bat egiten duten atzerritarren kanporatu egin behar direla. % 29,5ek, ordea, ez du uste hori kanporatzeko arrazoi denik, eta % 18,2k ez du aldeko edo kontrako jarrerarik.


Horrenbestez, lan-kontratuak garantzia inplizitu batzuk dituela uste du harrerako gizarteak, etorkinaren integrazioa pausoz pausokoa izango delako nolabaiteko bermea ematen diolako, eta, horri esker, etorkinak hemen finkatzeak sor dezakeen ziurgabetasuna gainditzen da.

### Egoera irregularrean dauden etorkinekiko politika

Oro har immigrazio-politika egokienari buruz eta kanporatzeko balizko arrazoi batzuei buruz hemengo biztanleen iritzia aztertuta, jakin nahi izan dugu haien iritziz erakundeek zer ildori jarraitu beharko lioketen administrazio-egoera irregularrean dauden atzerritarrekin.

Inkestatuen % 43,3k uste du gobernuak lana duten atzerritarren egoera baino ez lukeela erregularizatu behar (40. grafikoa). % 24,5ek uste du erakundeek etorkin guztien egoera erregularizatu beharko luketela, eta % 7,2 bizileku-baimenik ez duten atzerritar guztiak kanporatzearen aldekoa da.

40. grafikoa. Egoera irregularrean dauden etorkinekiko politika (%), 2008-2016



10G. Zure ustez, zer egin beharko luke Gobernuak erregularizatu gabeko immigranteekin?

Azken urtean, nabarmentzekoa da egoera irregularrean dauden pertsona guztien egoera erregularizatu behar dela –hots, egoera irregularrean daudenei paperak eman behar zaizkiela– uste dutenen kopuruak gora egin duela: % 17,2tik % 24,5era, hain zuzen. Lana dutenen egoera soilik erregularizatzearen aldekoen kopuruak behera egin du apur bat (% 47,2tik % 43,3ra), eta egoera irregularrean dauden etorkin guztiak kanporatzearen ideiak behera egin jarraitzen du (-3,6 puntu).


### Babes politikoa eskatzen duten pertsonetikiko politika

Babes politikoa eragin sozial eta mediatiko handiko gaia da, eta babes politikoa eskatzen duten errefuxiatuekin egin beharreko politikari buruz eta EAEko gizartea errefuxiatuen aurrean izaten ari den erantzunaz hemengo jendeak zer iritzi duen jakin nahi izan dugu.

Datuek adierazten dute EAEko gizartea irekia eta tolerantia dela errefuxiatuekiko. 41. grafikoa adierazten duenez, % 29,8k uste du etorkinei baldintzarik gabe egin behar zaiela harrera (2015ean, % 22,1ek uste zuten hori). Ehuneko hori % 70,8ra igotzen da, baldin eta etorkinek hemen baldintzarik gabe sartzeko aukera izan behar dutela uste dutenen ehuneko eta jazarrita daudela egiaztatuz gero mugarik gabe sartzeko utzi behar zaiela uste dutenen ehuneko gehitzen badizkiogu.


EAEko gizartea errefuxiatuen aurrean izaten ari den erantzunaz inkestak duten iritzari dagokionez (42. grafikoa), % 44,8k ez ditu etorkinak eta errefuxiatuak bereizten, baina % 35ek uste du errefuxiatuak hobeto ikusita daudela azken urteetan lanera etorri diren etorkinak baino.

41. grafikoa. Babes politikoa eskatzen duten pertsonetako politika (%), 2008-2016<sup>2</sup>



11G. Eta babes edo asiloa eskatzen duten pertsonekin, zure ustez, zer egitea izango litzateke egokiena?

42. grafikoa. EAEko gizarteak errefuxiatuen aurrean duen erantzunaren pertzepzioa (%), 2016



12G. Ziur aski, entzungo zenuenez, azken hilabeteotan pertsona asko iristen ari dira Europako mugetara asilo edo babes bila, gerrak edo gatazkak dauden lurraldeetatik ihesi. Gauzak horrela, zure ustez, nola erantzuten ari da euskal gizarteak?

### Immigrazio-politikari buruzko pertzepzioaren indizea

Esparru honetako galderei emandako erantzunekin (galdetegiko 6d, 6f, 9, 10 eta 11 itemak) hartu beharreko migrazio-politikaren gainean EAEko gizarteak duen jarrerari buruzko indizea parziala landu dugu. Indize hori 0 eta 10 puntu artekoa da; horrela, jarrera itxia eta murriztaileena dutenak 0 puntutik hurbilago ageri dira, eta jarrera positiboena eta irekiena dutenak 10 puntutik hurbilago.

<sup>2</sup>2015eko barometroa baino lehenago, hauxe zen galdera: 11. galdera. Eta babes politikoa eskatzen duten pertsonekin, zure ustez, zer egitea izango litzateke egokiena?

Beste behin ere estatistikoki esanguratsuak diren aldeak hauteman ditugu herritar multzo batzuen eta besteen artean, gurutzaketa edo goiburuko aldagaien arabera. Jarrera toleranteena eta intoleranteena duten pertsonen profilak 16. taulan jaso ditugu.

16. taula. Migrazio-politikari buruzko indizearekin lotutako aldagaiak

| MIGRAZIO-POLITIKA                                       |           |                      |                                |  |
|---|-----------|----------------------|--------------------------------|--|
| Pertsona intoleranteenen profila                        |           | Aldagaia             | Pertsona toleranteenen profila |  |
| Emakumea  | 5,52      | Sexua                | 5,84                           | Gizona   |
| 45-64 urte bitartekoak eta hortik gorakoak              | 5,56/5,45 | Adina                | 6,20                           | 18 eta 29 urte bitartekoak                     |
| Ikasketarik ez  | 4,98      | Ikasketak            | 6,27                           | Goi-mailako unibertsitate-ikasketak            |
| 5.001-20.000 biztanleko herriak                         | 5,27      | Bizilekua            | 5,89                           | Hiriburuak                                     |
| Katoliko praktikanteak eta ez praktikanteak             | 5,19/5,46 | Erljioa              | 6,22                           | Agnostikoak, ateoak...                         |
| Erdaldunak  | 5,46      | Hizkuntza            | 5,90                           | Euskaldunak                                    |
| Espainiarra   | 5,27      | Nazionalismoa        | 6,02                           | Euskalduna                                     |
| Batik bat espainiar sentitzen dira                      | 5,04      | Identitate-sentipena | 5,85                           | Batik bat euskaldun sentitzen dira             |
| Zentrokoak, eskuinekoak                                 | 5,02/5,13 | Ideologia            | 6,46                           | Ezkerrekoak                                    |
| Ez daude pozik beren gaur egungo egoera ekonomikoarekin | 5,31      | Egoera-ekonomikoa    | 5,83                           | Pozik beren gaur egungo egoera ekonomikoarekin |
| Etxea zaintzen dutenak, erretiratuak                    | 5,21/5,51 | Lanbidea             | 6,62                           | Ikasleak                                       |
| Ertaina eta apala                                       | 5,67/5,54 | Estatusa             | 6,26                           | Altua  |
| Handia  | 5,27      | Krisiaren eragina    | 5,85/5,77                      | Ertaina eta txikia                             |
| Inolako interakziorik ez                                | 5,33      | Interakzio publikoa  | 5,85                           | Apur bat                                       |
| Inolako harremanik ez                                   | 5,47      | Aisiako interakzioa  | 6,27                           | Handia   |

Iturria: egileek egina.

### Laburrean. Immigrazio-politika

Laburbilduz, aurreko urteetan bezala, EAeko gizarteak oraindik ere immigratzaileen lan-egoerarekin lotzen du, neurri handian, migrazio-politika. Inkestatu gehienek onartzen dute immigranteen etorrera, baldin eta lan-kontraturik badute. Halere, azken bi barometroek (2014koak eta 2015ekoak) adierazten zuten bezala, tesi hori indarra galtzen ari da, eta etorkinek legezko beste baldintza batzuk betetzearen aldeko jarrerak indarra hartzen ari dira; baldintza horien artean sartzeko, besteak beste, familia berriz elkartzea, ikasleak, babesa ematea eta legezko oztoporik gabe sartzeko aukerak.

Behin hona etorri ondoren, jendeak ez du uste lana galtzeak immigrantea kanporatzeko arrazoi izan behar duenik; izan ere, gehienek uste dute ez direla kanporatu behar aldi batez lanik gabe geratzen diren atzerritarrak. Jarrera horrek gora egin du aurten, eta 2013an hasitako joerak bere horretan dirau. Aldiz, aurreko urteetan bezala, delituak egin izana da, bertako jendearentzat, atzerritarrak kanporatzeko arrazoi nagusietako bat.

Lan-kontratua herrialdean sartzeko baldintza izateaz gain atzerritar guztiak erregularizatzeko oinarri bat da. Bertoko biztanleek uste dute lan-kontratua erabakigarria dela immigrazioa «kontrolatua» izateko; izan ere, komunikabideetan eta gizarte-diskurtsoetan nagusi den irudiaren arabera, immigrazio-fluxua masiboa eta kontrolik gabekoa da, eta etorkinak «uholdeka» datoz.

Errefuxiatuen gaiak eragin sozial eta mediatiko handia du, eta, gai horri dagokionez, EAEko gizartearen jarrera irekia da, eta hobetu egin da 2015en aldean.



# 3

## Immigrazioaren aurreko tolerantzia-indizea: tipologia bat

2007an lehen aldiz tolerantzia-indizea prestatu genuenetik hona urtero egiten dugun bezala, 2016an ere, EAEko herritarrek atzerriko pertsonen etorreraren aurrean duen jarrera laburbiltzen duen balioa eskuratu dugu. Urteroko argitalpen hau lehen aldiz eskuratzen dutenei esango diegu indize horren balioa Otik 100era doala, eta zifra bakar batean biltzen dituela pertsonak galderasortako 65 galderari (itemik diskriminatzaileenei –bereizleenei–) emandako erantzunak. Horixe da, hain zuzen, Ikuspegi Immigrazioaren Euskal Behatokiak atzerriko immigrazioaren aurrean EAEko gizarteak dituen iritzi eta jarrerei buruz urtero egiten duen barometroaren oinarria.

Indize hori ulertzeko, esango dugu Immigrazioarekiko Tolerantziari buruz aurreko urteetan izandako definizio berbera mantentzen dugula: euskal jatorriko herritarrek atzerriko immigratzaileekiko duten enpatia-gaitasuna, estereotipo negatiboen aurreko erreaktantzia, «besteenganako» konfiantza eta «gureganako» malgutasuna (nazionalismo metodologikoa gainditzeko gaitasuna). Hizkera arruntagoan, EAEko gizartearen «ahultasunaren pertzepzio subjektiboa» neurtzeko adierazlea da immigrazioarekiko gure tolerantzia-indizea. Aurreko urteetako barometroen beste txosten batzuetan ere adierazi izan dugu: pertsonak segurtasuna, konfiantza eta orainari eta etorkizunari aurre egiteko tresnak dituztela sentitzen duten neurrian (nortasunaren berezko ezaugarrien ondorioa, edota emozio, ekonomia, ongizate eta abarren aldetik ingurune pertsonal eta sozial sendoa edukitzearen ondorio izan daiteke hori), mehatxu sozial eta pertsonal gutxiago sentitzen dute etorkinen etorrera dela-eta, erreparo eta errezelo gutxiago adierazten dute, eta gure eskalan puntu gehiago eskuratzen dituzte. Eta alderantziz.

Indizearen oinarrian dauden 65 galderak ez dute inolako aldaketarik izan 2013tik hona.

Jokabideak bereiziko dituzten gurutzetako edo goiburuko aldagaiei dagokienez, gauzatxo bat aldatu dugu, aurreko urteen aldean. Zehazki, aldaketa hori bizileku-lurraldearen aldagaiarekin lotuta dago. 2016an, nabarmen murriztu dugu lagina: 1.200 inkesta egin beharrean, 600 inkesta egin ditugu. Hortaz, laginaren egiturak lurraldea adierazi beharrean autonomia-erkidegoa adierazten du. Hori dela eta, gurutzeetan aldagai hori alde batera uztea erabaki dugu.

Edonola ere, goiburuko aldagai-multzoak berberak dira: aldagai soziodemografikoak (sexua, adina, bizilekua eta ikasketak), ideologiari eta identitateari lotutako aldagaiak (erlijioa, euskara, identitate-sentipena, ideologia eta nazionalismo-maila), aldagai sozioekonomikoak (diru-sarrerak, egoera ekonomiko pertsonalarekiko gogobetetasuna, jarduera ekonomikoa, estatusa eta krisiaren eragina) eta, azkenik, aldagai psikosozialak eta harremanezkoak (baikortasun-maila,


etorkizunarekiko aurreikuspenak, bizitoki-mota, eta atzerritarrekiko harremana eremu pribatuan, eremu publikoan eta aisialdian).

Urtero-urtero esaten dugun bezala, immigrazioarekiko tolerantzia-indize hori lantzeko arrazoia da, lehenik eta behin, elementu jakin batzuei buruz EAEko herritarrek zer iritzi duten jakitea, eta behin elementu eta iritzi horiek jakinda, EAEko gizartearen «iritzia» sintetizatuko duen elementu bat izatea, eta gertatzen ari diren sakoneko aldaketak eta joerak bereizteko tresna bat eskuratzeko. Hori dela eta, pertsona bakoitzaren iritzia banaka sintetizatuko duen lanabesa behar dugu eta, aldi berean, azpitaldetan txerta daitekeena eta azpitalde horien artean alderaketak egiteko aukera emango duena. Hori horrela, informazio oso zehatza dugu EAEko gizartearen pertzepzio, balio, iritzi eta jarrerei buruz, eta, era berean, herritarren kolektibo edo azpitaldetan bana daitekeen osoko informazioa dugu.

Gainera, datu-segiden luzetarako azterketari esker, epealdi bateko joerak ere azter ditzakegu, jakiteko EAEko gizartearen zer pertzepzio, iritzi, diskurtso, posizio, jarrera eta jokabide dagoen atzerritarren aurrean, geroz eta aniztasun handiagoko bizikidetzaren ingurune batean.

Urteak daramatzagu gure tolerantzia-indizearen eta BPGd-aren datuen arteko antzekotasunak aipatzen; izan ere, hazkunde ekonomikoaz harago, etorkizunaren zalantzen aurrean «gizartearen aldatzearen» berri ere ematen digute datuok. BPGd-ak behera egin eta gure etorkizuna goibeldu duenean, beherakada nabarmenak izan dira indizean ere. BPGd-a berrindartu denean, aldi baterako izan arren, indizeak ere gora egin du. Eta susperraldi ekonomikoa sendotuz doala dirudien honetan, tolerantzia-indizean islatu da horren eragina.

#### 43. grafikoa. 2016ko tolerantzia-indizea



Iturria: egileek egin.

Horrexegatik diogu atzerriko nazionalitatea edo jatorria duen kolektiboarekiko EAEko gizartearen jarrera oso baldintzatuta dagoela, etorkizunak ekar ditzakeenaren aurreko «aldartearen» ondorioz: gizarte-, politika- eta ekonomia-arloko zalantzak ugaritzen direnean, tolerantzia-indizearen balioak behera egiten du, beldurra eta mesfidantza ugaritu egin diren seinale; etorkizuna argi eta baikor agertzen denean, aldiz (gaur egun, adibidez), indizeak gora egiten du, gizarte-giro hobea, irekiagoa, toleranteagoa eta lasaiagoa islatuz.




Gauzak horrela, 2016ko barometroan 59,04 puntuko tolerantzia-indizea bildu dugu EAEko gizarte osoarentzat: 2015ean lortutako balioa baino puntu bat gorago zehazki. Puntuazio horrek azken urteetako berreskuratze-joerari jarraitzen dio.

2008an goia jo ondoren (ikus 44. grafikoa), 2009an, 2010ean eta 2011n EAEko gizarteak krisi ekonomikoaren lehen ondorioak jasan zituen. Hasieran esan zuten krisi laburra izango zela eta epe laburrean itzuliko zela susperraldia («2010-11ko hazkunde-kimu» ospetsuak). Halere, errealitatea gailendu eta 2010eko amaierako eta 2011ko hasierako susperraldi laburraren ondoren, Espainiako eta EAEko gizarteak konturatu ziren prozesua luzeagoa eta gogorragoa izango zela. Hala, gure ingurunean eraikitako gizarte-ongizatea astindu eta zalantzan jarri du 2013ko amaierara arte luzatu den krisialdi gogorrak.

Horrekin batera, atzerriko nazionalitatea edo jatorria duten pertsonetako EAEko herritarrek duten jarrera ahuldu egin zen 2009an, 2010ean eta, batik bat, 2012an, konturatu ginenean krisia larria zela eta hasieran esan zigutena baino luzeagoa eta gogorragoa izango zela. 2013tik aurrera, badirudi EAEko gizarteak jarrera irekiago, lasaiago eta toleranteagoak hartu dituela. 2016an, azkenean, 2008an lortutako balioa berreskuratu eta gainditu dugu.


44. grafikoa. Tolerantzia-indizearen bilakaera, 2007-2016



Iturria: egileek egina.

Aurreko urteetako txostenean ere aipatu genuen zer faktore egon zitezkeen gorabehera horien atzean, betiere jakinik fenomeno konplexua dela eta aldagai asko sartzen direla tartean: norberaren nortasun-ezaugarriak eta bizitza-esperientziak, aldagai soziodemografiko eta psikosozialak, pertsonaren ingurune pertsonal eta sozial hurbila, aldagai ekonomiko eta ideologikoak, eta abar. Ez dugu ahaztu behar aldagai soziodemografikoez, identitarioez, sozioekonomikoez, psikosozialez eta harremanari lotutakoek tolerantzia-indizearen gorabeheren zati txiki bat baino ez dutela azaltzen. Zehazki, 2016. urtean, EAEko gizarte osoan tolerantziari dagokionez gertatzen diren aldaketa guztien % 24,66 baino ez dute azaltzen. Eta aurreko urteetan, zenbateko horren inguruan ibili gara, baina inoiz % 30era iritsi gabe.

45. grafikoa. BPGd-aren urtetik urterako aldaketa-tasak (%) 2008-2016



Iturria: EIN, Eustat eta egileek egina.

Azken urteetako tolerantzia-indizearen datuen joera ikusita, pentsa daiteke gure «gizarte-aldarte» hobetu egin dela eta hobekuntza horrek atzerriko nazionalitatea edo/eta jatorria duten pertsonenganako tolerantzia handiagoa eragin duela. Hobekuntza hori garrantzitsua delakoan gaude, datozen urteetan EAEko (eta Espainiako) gizarteak aniztasuna kudeatzeko erronka zailari egin behar ko baitio aurre.


Zertan? Gure ikuspuntutik, hainbat oinarri edo ildo behar ditu EAEko gizartearen etorkizunak: gizarte-berdintasuna, desberdintasunak murriztea, elkarrekiko errespetua, gizarte-bazterkeriaren aurka borrokatzea eta diskriminazio ororen aurka jotzea. Krisi ekonomikoak eta finantzarioak gizarte-sektore aberatsenen eta ahulenen arteko etena handitu du, eta hauteskunde-aurreko diskurtso batzuek nazionalitateari edo/eta jatorriari lotutako gizarte-kolektiboen diskriminazioa legitimatu nahi izan dute. Onartezina eta egoista da, eta elkartasunik eza adierazten du. Gure ikuspuntutik, gizarte-kohesioan, diskriminazio gabetasunean eta berdintasunean oinarritu behar du gizarte-erakuntzarako etorkizuneko ereduak.

Aurreko urteetan bezala, galdera-sortari erantzuten dioten pertsonen hamar arlotan eskuratzen dituzten puntuazioak gehituta lortzen dugu gure tolerantzia-indizea. Hauexek dira hamar arlo horiek: biztanleria immigratzailearen BOLUMENAREN pertzepzioa; atzerriko immigrazioa ARAZOTZAT hartzea; EAEko EKONOMIAN duen eraginari buruzko iritzia; EAEko GIZARTEAN duen eraginari buruzko iritzia; BIZIKIDETZA-EREDUEI buruzko pertzepzioa; ESTEREOTIPOEK irautea; ESKUBIDEAK eta zerbitzuak eskuratzeko aukerari buruzko jarrera; HARREMANETARAKO ESPAZIOEI buruzko iritzia; IMMIGRAZIO-POLITIKARI buruzko ikuspegia, eta atzerriko immigrazioak gure gizartean dituen ERAGIN OROKORREI buruzko pertzepzioa.

EAEko gizarteak arlo horietan izan duen, eta duen, jokabidearen bilakaera ez da uniforme izan urteotan guztiotan (46. grafikoa). Horrenbestez, puntu hauek azpimarra ditzakegu:

- Immigrazioa arazotzat hartzeari dagokionez, gizarteak, oro har, ez du «arazotzat» hartzen; alegia, arazo izatearen kutsua kendu dio. Arazo larriagoak (langabezia, arazo ekonomikoak, klase politikoa, pentsioak...) ditugu buruan immigrazioa ere horien artean kokatzeko, nahiz eta diskurtso batzuek atzerriko immigrazioa arazo bihurtzeko ahalegina egin.

46. grafikoa. Puntuazioen bilakaera 10 arloetan. 2008-2016



Iturria: egileek egina.

- Immigrazioak EAEko gizartean ondorio kulturalik izateko aukerari dagokionez, EAEko gizartearen jarrerak egonkorra dirudi, eta jarrera toleranteak indarra hartzen ari dira. Atzerriko immigratzaileek eskubide eta zerbitzuak eskuratzeko aukerari dagokionez, jarrera toleranteak berreskuratzen ari gara azken urteetan.
- 2016an, eten egin da EAEko gizarteak jatorriz atzerritarrek direnekiko harreman-eremuz duen pertzepzioa azken urteetan izaten ari zen hobekuntza.
- Gure gizarteko immigrazioaren bolumenaren pertzepzioari dagokionez, EAEko gizartearen jarrerak, sinesmenak eta iritziak egonkortu egin dira aurten.
- Azken urteotan, EAEko gizarteak posizioak hobetu ditu etorkinen etorrerak EAEko gizartean izan dituen ondorio orokorren harira, hartu beharreko immigrazio-politikaren harira eta ekonomian dituen ondorioen harira.
- Nahiz eta aztertutako aldiaren posizioak galdu ditugun atzerriko immigrazioarekiko estereotipo negatiboen presentziari dagokionez, 2013an hasitako hobetze-bideari eutsi diogu.
- Azkenik, alderdi batean arreta berezia jarri behar dugu, hasierako posizioak galdu eta tolerantzia-maila apalagoa antzematen baita bertan. EAEko gizarteak bizikidetzaren ereduak buruz duen jarreraz ari gara. Izan ere, azken urteotan adierazlea egonkortu egin dela badirudi ere, gure gizartean oso presente dago «pixkanakako asimilazio biguna» defendatzen duen jarrera.

Aurreko txostenetan egin izan dugun bezala, pertsona-talde batzuek eta besteek immigrazioarekiko dituzten iritzi, pertzepzio, jokabide eta jarreretan egon daitezkeen aldeak aztertu ditugu 2016ko barometroan ere. Aldagai biko analisietan, aldagai soziodemografikoak (4), ideologiko-identitarioak (5), sozioekonomikoak (5) eta psikosozialak eta harremanekin loturikoak (6) baliatu ditugu.

Aldagai horien artean esanguratsuak eta bereizleak direnak hautemateko, aldagai biko analisia egin dugu, aurreko urteetako ildoari jarraituz. Analisi hori egiteko beharrezkoa da mendeko aldagai batekin eta aldagai aske batekin lan egitea, aldagai baten ANOVA analisia aplikatuta. Alde biko analisia, mugatua izanagatik ere, ezinbestekoa da, eta aldagai anitzeko beste edozein analisisiren aurretik egin beharrezkoa. Mugatua da, aldagai soziodemografiko aske batek ezkutatu egin dezakeelako elkarri eragiten dioten beste aldagai batzuen eragina edo ondorioa. Adibidez, elkarri oso lotutako aldagaiak izaten dira batzuetan, eta alde biko analisi batean zaila da horietako bakoitzak duen eginkizuna bereiztea; aldiz, aldagai anitzeko analisiak bakoitza bere lekuan jartzen du. Immigrazioari buruzko jarrerekin zerikusia duten kontuak aztertzen ditugunean, maiz nahasten dira aldagai hauek: «adina» (hezkuntza-mailari, euskaraz hitz egiteari edo ez egiteari, lanbideari eta abarri lotua), «hezkuntza-maila» (adinari, estatusari, diru-sarrerei eta abarri lotua), «lanbidea» (estatusari, hezkuntza-mailari, diru-sarrerei eta abarri lotua) eta «estatusa» (hezkuntza-mailari, diru-sarrerei eta abarri lotua). Horregatik, bi aldagai horiek bereiz aztertzen baditugu, baliagarri izango dira taldeak diskriminatzeko, bereizteko (adibidez, gazteak jarrera irekiekin lotzen dira, eta adinekoak jarrera itxiagoekin; edo esaten da heziketa gutxien duten pertsonak ez direla heziketa gehien dutenak bezain toleranteak), baina, elkarrekin aztertzen baditugu, gerta daiteke baten baino gehiagoren eragina ez nabaritzea.

Eta horrelaxe gertatzen da beste aldagai hauekin ere: ideologia politikoarekin, euskal identitatearen edota espainiar identitatearen sentimendu subjektiboarekin, euskal edo espainiar nazionalismo-mailarekin eta abarrekin.

2016ko barometroan baliatutako gurutzaketa-aldagaien analisiak aurreko barometroetako ondorioak azaleratu ditu berriro ere: ia gurutzetako eta goiburuko aldagaia guztiak bereizleak dira, eta, herritarrek immigrazioarekiko agertu duten tolerantzia-mailaren arabera, EAEko biztanleak talde batean edo bestean sailkatzeko balio dute. Hau da, atzerriko immigrazioarekiko tolerantzia handiagoa eta tolerantzia txikiagoa erakusten duten taldeak EAEko biztanleen artean; talde batzuek (irekiagoek eta toleranteagoek) askoz puntuazio handiagoak lortu dituzte tolerantzia-indizean, eta beste batzuek (atzerriko immigrazioarekiko uzkurrago eta itxiago jokatzen duten taldeek), berriz, puntuazio nabarmen txikiagoak:

- Immigrazioarekiko nabarmen toleranteagoak dira 18 urtetik 29 urtera arteko pertsonak (64,32 puntu) eta 30 urtetik 44 urtera artekoak (61,28 puntu), 45 urtetik 64 urtera artekoak (57,50 puntu) eta 65 urtekoak eta hortik gorakoak baino (55,75 puntu).
- Immigrazioarekin nabarmen toleranteagoak dira goi-mailako unibertsitate-ikasketak dituzten pertsonak (66,55 puntu) eta erdi-mailako unibertsitate-ikasketak dituztenak (62,46 puntu), lehen mailako ikasketak dituztenak baino (54,86 puntu) eta lehen mailako ikasketak amaitu ez dituztenak baino (52,12 puntu).
- Immigrazioarekin nabarmen toleranteagoak dira 20.000-150.000 biztanleko udalerrietan bizi direnak (60,65 puntu) eta hiriburuetan bizi direnak (60,36 puntu), 5.000-20.000 biztanleko udalerrietan bizi direnak baino (54,67 puntu).
- Immigrazioarekin nabarmen toleranteagoak dira pertsona agnostikoak, ateoak edo erlijioarekiko axola handirik ez dutenak (63,82 puntu), katoliko praktikanteak baino (55,39 puntu).
- Immigrazioarekin nabarmen toleranteagoak dira euskaraz hitz egiten duten pertsonak (61,22 puntu), euskaraz hitz egiten ez dutenak baino (56,89 puntu).
- Immigrazioarekin nabarmen toleranteagoak dira euskaldun soilik edo espainiar baino gehiago euskaldun sentitzen direnak (60,50 puntu), espainiar soilik edo euskaldun baino gehiago espainiar sentitzen direla esan dutenak baino (55,34 puntu).

## 9. irudia. Immigrazioarekiko tolerantzia-indizearekin lotutako aldagaiak

## TOLERANTZIA-ATALASE

## TXIKIENA

## DUTEN PERTSONEN PROFILA

|   | Aldagaia               | Esangura |
|---|------------------------|----------|
| 45 urtekoak eta hortik gorakoak         | Adina                  | .000     |
| Lehen mailakoak, ikasketarik gabe       | Ikasketak              | .000     |
| 5.001 eta 20.000 biztanle artean        | Habitata               | .000     |
| Katoliko praktikanteak                  | Erlijioa               | .000     |
| Erdaldunak                              | Hizkuntza              | .000     |
| Espainiarra                             | Abertzaletasuna        | .010     |
| Espainiarra nagusi                      | Identitate-sentimendua | .004     |
| Eskuina eta zentroa                     | Ideologia              | .001     |
| Hilean 1.000 €, gehienez                | Diru-sarrerak          | .000     |
| Gustura ez daudenak                     | Egoera ekonomikoa      | .000     |
| Etxeko lanetan, erretiratuak, langabeak | Lanbidea               | .000     |
| Krisiaren eragin handia                 | Krisiaren eragina      | .003     |
| Ezkorrak                                | Baikortasuna           | .010     |
| Etorkizun txarra                        | Etorkizuna             | .000     |
| Etorkinekin nahasketa                   | Auzoa                  | .005     |
| Inolako harremanik ez                   | Interakzio pribatua    | .006     |
| Inolako interakziorik ez                | Interakzio publikoa    | .006     |
| Interakziorik ez edo zerbait            | Aisialdeko interakzioa | .000     |

## TOLERANTZIA-ATALASE

## HANDIENA

## DUTEN PERTSONEN PROFILA

|  |                                 |
|--|---------------------------------|
| 18 eta 44 urte bitartekoak                 |                                 |
| Goi- eta erdi-mailako unibertsitate-ikask. |                                 |
| 20.000 biztanle baino gehiago              |                                 |
| Agnostikoak, ateoak...                     | Euskaldunak                     |
|  | Euskalduna, euskaldun moderatua |
|  | Euskalduna nagusi               |
|  | Ezkerra                         |
| Hilean 1.800 € eta gehiago                 |                                 |
| Gustura daudenak eta ezaxolak              |                                 |
|  | Ikasleak                        |
| Krisiaren eragin ertain eta txikia         |                                 |
|  | Baikorrak                       |
| Etorkizun normala eta ona                  |                                 |
|  | Bertakoak                       |
| Interakzio handia edo zerbait              |                                 |
| Interakzio handia edo zerbait              |                                 |
| Intentsitate handikoa                      |                                 |

Iturria: egileek egina.

- Immigrazioarekin nabarmen toleranteagoak dira beren burua euskal nazionalistatzat dutenak (61,70 puntu), nazionalismoaren gaiarekiko axolarik ez dutenak (57,38 puntu) eta beren burua espainiar nazionalistatzat jotzen dutenak baino (56,65 puntu).
- Immigrazioarekin nabarmen toleranteagoak dira ezkerreko ideologia duten pertsonak (65,37 puntu), eskuinekoak (53,63 puntu) eta zentrokoak baino (53,53).
- Immigrazioarekin nabarmen toleranteagoak dira etxean hilean 1.800 eta 2.500 € arteko diru-sarrerak dituztenak (62,95 puntu) eta 2.500 eurotik gorako diru-sarrerak dituztenak (61,89 puntu), 1.000 € arteko diru-sarrerak dituztenak baino (55,53 puntu).
- Immigrazioarekin nabarmen toleranteagoak dira beren egungo egoera ekonomikoarekin gustura daudenak (61,91 puntu) eta ez ondo eta ez txarto sentitzen direnak (58,80 puntu), gustura ez daudenak baino (54,47 puntu).
- Immigrazioarekin nabarmen toleranteagoak dira ikasten dabiltzan pertsonak (67,36 puntu), langabezian daudenak baino (59,26), etxeko lanetan dabiltzanak baino (57,30 puntu) eta erretiroa hartu dutenak baino (55,74).
- Immigrazioarekin nabarmen toleranteagoak dira estatus altua duten pertsonak (65,47 puntu), erdi-mailako estatusa dutenak baino (59,91 puntu) eta estatus apala dutenak baino (56,98 puntu)

- Immigrazioarekin nabarmen toleranteagoak dira krisiaren ondorio ertainak jasan dituzten pertsonak (60,60) eta krisiaren ondorio arinak jasan dituztenak (59,66), krisiak gogor kolpatu dituenak baino (55,78 puntu).
- Immigrazioarekin nabarmen toleranteagoak dira baikorrak direla dioten pertsonak (60,71 puntu), ezkorrek direla diotenak baino (56,41 puntu).
- Immigrazioarekin nabarmen toleranteagoak dira etorkizunari begira aurreikuspen onak dituzten pertsonak (62,41 puntu) eta aurreikuspen normalak dituztenak (60,86 puntu), aurreikuspen txarrak dituztela diotenak baino (56,37 puntu).
- Immigrazioarekin nabarmen toleranteagoak dira atzerriko etorkin gutxi dauden auzoetan bizi diren pertsonak (60,22 puntu), hainbat jatorritako pertsonak nahasten diren auzoetan bizi direnak baino (55,82 puntu).
- Immigrazioarekin nabarmen toleranteagoak dira eremu pribatuan etorkinekin harreman asko dituzten pertsonak (60,79 puntu) eta noiz edo noiz harremanen bat duten pertsonak (60,55 puntu), haiekin inolako harremanik ez dutenak baino (57,12 puntu).
- Immigrazioarekin nabarmen toleranteagoak dira eremu publikoan etorkinekin noiz edo noiz harremanen bat duten pertsonak (60,20 puntu) eta harreman asko dituzten pertsonak (59,97 puntu), haiekin inolako harremanik ez dutela esaten dutenak baino (56,20 puntu).
- Immigrazioarekin nabarmen toleranteagoak dira aisialdian etorkinekin harreman handia duten pertsonak (66,45 puntu), noiz edo noiz harremanak dituztela esaten dutenak baino (60,42 puntu) eta haiekin inolako harremanik ez dutela esaten dutenak baino (52,85 puntu).

Datu horiek eta aurreko urteetan jasotakoak alderatuta, ia ez dugu aipatzeko moduko alderik nabaritu deskribatutako profiletan. Sexua da diskriminatzeke balio ez duen aldagai bakarra, baina ez da hori gertatzen den lehen aldia.

Ondoren, aldagai anitzeko metodologiak baliatu ditugu. Izan ere, metodologia horiek lagundu egiten digute aldagaien arteko harremanak hobeto ulertzen, aldagaien arteko elkarreraginak argitzen, iragarpen-ahalmen handiena dutenak nabarmentzen, aldagai batzuen eta besteen eragin gurutzatuak saihestuz eta indargabetuz, eta zer errealitateetan bizi garen hobeto jakiteko aukera emanez. Zehazki, aldagai anitzeko metodologia bat aplikatu dugu, AID deritzona. Segmentazio-zuhaitz bat ematen digu, EAEko herritarren tipologia zenbaitek osatua, eta tipologia horiek gutxi gorabehera atzerriko immigrazioarekiko talde irekiagoak eta toleranteagoak edo itxiagoak eta uzkurragoak ematen dituzte.

Aldagai aske guztiekin lan eginez (20 guztira) beste segmentazio bat landu dugu. Aurreko urteetan bezala, aldagai anitzeko metodologia horren aplikazioaren helburua ez da zehatza, zorrotza eta eztabaiaezina izatea; hau da, asmoa ez da tolerantzia handia edo txikia erakusten duten jarrerekin lotutako aldagaiei buruzko debatea ixtea. Aitzitik, errealitatea ikusteko eta ulertzeko modu xume bat baino ez dugu eskaini nahi. Badakigu proposatzen dugun tipologia horixe besterik ez dela: tipologia bat, sartu ditugun aldagaiek, bildu ditugun bezala bilduta, sortutako tipologia.

2016ko segmentazio-zuhaitzean, ideologia da segmentazio-aldagairik garrantzitsuena, eta ikasketamailla, segmentazio-aldagairik garrantzitsuena izan ohi den arren, bigarren mailan gelditu da.

Gainera, segmentazio-zuhaitzean (47. grafikoa), badira jarrera iragartzeko ahalmena duten beste aldagai batzuk: aipatu berri dugun ikasketamailla, etorkizunarekiko aurreikuspenak, etorkinekin harremanak aisialdian, gizarte-estatusa eta erlijioa.

Zehazki, hauek dira gure segmentazio-zuhaitzaren aldagai iragarleak eta zuhaitz hori bere maila guztietan osatzeko aukera eman dutenak, garrantziaren arabera sailkatuta:

- 1. mailan: ideologia (es. 0,000);
- 2. mailan: ikasketa-maila (bi aldetatik: es. 0,000 eta es. 0,000) eta etorkizunarekiko aurreikuspenak (es. 0,003);
- 3. mailan: etorkinekiko harremana aisialdian (es. 0,042), gizarte-estatusa (es. 0,005) eta erlijioa (es. 0,003).

Aldagai horiekin 10 segmentu atera ditugu guztira, eta toleranteenetik intoleranteenera ordenatu. Segmentazio-zuhaitzaren 47. grafikoan, EAEko gizarte osoaren batez bestekotik gorako puntuazioa lortu dutenak eta hortik beherako puntuazioa dutenak azpimarratu ditugu, arrosaz aurrenekoak eta moreaz bigarrenak. Hona hemen segmentuok:

1. Ezkerreko ideologia duten pertsonak, goi-mailako unibertsitate-ikasketak dituztenak: 73,25 puntuko puntuazioa dute, eta EAEko biztanleen % 7 dira.
2. Ezkerreko ideologia duten pertsonak, ikasketarik gabeak, lehen mailako ikasketak, bigarren mailako ikasketak edo erdi-mailako unibertsitate-ikasketak dituztenak, agnostikoak, ateoak...: 66,49 puntu eskuratu dituzte, eta EAEko biztanleriaren % 10,3 dira.
3. Zentro-ezkerreko ideologia duten pertsonak, goi- edo erdi-mailako unibertsitate-ikasketak dituztenak: 65,17 puntuko puntuazioa dute, eta EAEko biztanleen % 11,2 dira.
4. Zentroko edo eskuineko ideologia duten pertsonak, etorkizunarekiko aurreikuspen onak edo neutroak dituztenak eta gizarte-estatus ertaina edo altua dutenak: 60,88 puntuko puntuazioa dute, eta EAEko biztanleen % 7,2 dira.
5. Zentro-ezkerreko ideologia duten pertsonak, bigarren mailako ikasketak dituztenak: 60,59 puntuko puntuazioa dute, eta EAEko biztanleen % 12,3 dira.
6. Zentro-ezkerreko ideologia duten pertsonak, ikasketarik gabeak edo lehen mailako ikasketak dituztenak eta aisialdian atzeritarrekin harreman apur bat edo harreman handia dutenak: 57,77 puntuko puntuazioa dute, eta EAEko biztanleen % 9,2 dira.
7. Ezkerreko ideologia duten pertsonak, ikasketarik gabeak, lehen mailako ikasketak, bigarren mailako ikasketak edo erdi-mailako unibertsitate-ikasketak dituztenak eta katolikoak direnak, praktikanteak eta ez praktikanteak: 57,66 puntuko puntuazioa dute, eta EAEko biztanleen % 8,7 dira.
8. Zentroko edo eskuineko ideologia duten pertsonak, etorkizunarekiko aurreikuspen onak edo neutroak dituztenak eta gizarte-estatus apala dutenak: 53,24 puntuko puntuazioa dute, eta EAEko biztanleen % 9,3 dira.
9. Zentro-ezkerreko ideologia duten pertsonak, ikasketarik gabeak edo lehen mailako ikasketak dituztenak eta aisialdian atzeritarrekin harremanik ez dutenak: 51,69 puntuko puntuazioa dute, eta EAEko biztanleen % 7,3 dira.

10. Zentroko edo eskuineko ideologia duten pertsonak, etorkizunarekiko aurreikuspen txarrak dituztenak: 50,70 puntuko puntuazioa dute, eta EAEko biztanleen % 17,5 dira.


Urtero esaten dugun moduan, EAEko biztanleriaren segmentazio horrek ez du helburutzat erabat zehatza izatea, baizik eta joerak adieraztea. Kontua ez da zehatz-mehatz adieraztea zenbat taldek osatzen duten EAEn atzerriko immigrazioarekiko jarreraren panorama; aitzitik, helburua da aldagai garrantzitsuak identifikatzea atzerriko immigrazioarekiko portaera, jarrera, iritzi eta balio tolerantak eta ez hain tolerantak aurreikusteko, eta zenbait zertzelada adierazkor ematea gizarte-talde irekienak eta tolerantak direnen profilak zehazteko, bai eta jarrera itxi eta intolerantak adierazten dituztenenak ere.

Arestian aipatu dugu ereduaren iragarpen-ahalmena aurreko urteetakoaren parekoa dela. Dena den, 2016ko barometroan, aldagai askeek iaz baino pixka bat gehiago azaltzen dute lagina osatzen duten pertsonen puntuazioen bariantza osoa. 2016an, bariantza osoaren % 24,66 azaldu dugu (2015ean, % 20,43; 2014an, % 27,53; 2013an, % 27,65; 2012an, % 23,77, eta, 2011n, % 28,31).

IKUSPEGIn egiten diren lanak nahiz beste talde batzuen lanak aztertzen jarraitzen dugu, EAEko herritarrei atzerriko immigrazioari lotutako galderak egiten zaizkienean erantzunen aldakortasunaren zatirik handiena azalduko duten eredu iragarleak prestatzen lagunduko diguten beste aldagai aske batzuk antzemateko asmoz. Jakin badakigu, ordea, literatura zientifikoak ere diotenaren ildotik, pertsona bakoitzaren beraren banakako desberdintasunak egon daitezkeela aldakortasun osoaren edo zati handi baten atzean.



47. irudia. Segmentazio-zuhaitza eta euskal gizartearen tipologiak, 2016ko tolerantzia-indizean duten posizioaren arabera



turria: egileek egina.  
Eranskinean begiratu



# 4

## EAEko biztanleriaren talde handiak

Analisi tipologikoa oso grafikoa da, eta lagungarria EAEko herritarren artean askotariko motak daudela bereizteko eta bakoitzaren ezaugarri soziodemografikoak zein diren jakiteko; izan ere, atzerriko immigrazioaren aurrean duten tolerantzia-maila handiago edo txikiagoaren berri eman-go digu horrek. Horretaz gainera, oso baliagarri gertatuko zaigu, talde horiek 0 puntutik 100era bitarteko kontinuumean kokatzeko eta beren artean dauden desberdintasunak begiesteko, bai batzuen eta besteen tolerantzia-maila, bai talde horiek deskribatzen dituzten aldagaiak; hots: soziodemografikoak, sozioekonomikoak, ideologiko-identitarioak, eta psikosozialak eta harremanekin loturikoak.

Dena den, nahiko informazio lausoa ematen digute talde horiek, gure indizea osatzen duten arlo edo alderdietan dituzten desberdintasunei buruz. Hau da, badakigu, oro har, indizean talde batzuek besteek baino puntuazio handiagoa lortzen dutela, baina ez dakigu gure indizea osatzen duten hamar arloetan desberdintzen diren, edota hamar horietako batean edo bestean soilik.

Hori dela eta, 2016. urte honetan ere aldagai anitzeko «k-means» analisisia (ez hierarkikoa) erabili dugu, bai informazio gehiago lortzeko asmoz, bai immigrazioarekiko jarrera, balio eta sinesmenekin loturiko aldagaien artean EAEko biztanleak gehien bereizten dituzten aldagai horietan sakontzeko asmoz. Horretaz gainera, analisi horren bidez biztanleen sailkapenak ere egin nahi izan ditugu, EAEko biztanleak immigrazioari buruz dituzten jarrera diferentek agerian uzteko eta aurreko eta hurrengo urteei begira erraz alderatzeko eta kontrastatzeko moduko informazioa eskuratu ahal izateko.

Aurreko urteetan erabili dugun metodologiari jarraituz, hiru talde handitan sailkatu ditugu EAEko biztanleak: pertsona toleranteak, pertsona anbibalenteak eta atzerriko immigrazioaren aurrean uzkur ageri diren pertsonak.

Definitu ditugun hamar arloetan, immigrazioarekiko tolerantzia-indizea kalkulatzeko oinarri diren hamar arlo horietan, herritar bakoitzak lortutako puntuazioak dira EAEko biztanleria hiru talde horietan sailkatzeko irizpidetzat erabili diren aldagaiak. Aurreko barometroetan erabilitako aldagai berak, alegia. Hau da, arlo bakoitzean lortutako puntuazioaren arabera (0tik 100era) sailkatuko ditugu EAEko biztanleak. Arloak honako hauek dira: etorkinen biztanleriaren BOLUMENAREN pertzepzioa; atzerriko immigrazioa ARAZOTZAT hartzea; EAEko EKONOMIAN duen eraginari buruzko iritzia; EAEko GIZARTEAN duen eraginari buruzko iritzia; BIZIKIDETZA-EREDUEI buruzko pertzepzioa; ESTEREOTIPOEK irautea; ESKUBIDEAK eta zerbitzuak eskura izateari

buruzko jarrera; HARREMANETARAKO ESPAZIOEI buruzko iritzia; IMMIGRAZIO-POLITIKARI buruzko ikuspegia, eta atzerriko immigrazioak gure gizartean dituen ERAGIN OROKORREI buruzko pertzepzioa.

Tarteko aldagaiak direnez (zenbakizkoak edo kuantitatibo ere deritzenak), erabaki dugu «k means» deritzon aldagai anitzeko sailkapen-analisia aplikatzea, eta laginean bildutako multzo osoa hiru taldetan sailkatu dugu: atzerriko immigrazioaren aurrean toleranteak, anbibalenteak eta uzkurak. Teknika horrekin, irizpide erlatiboan bidez sailkatuko da EAEko gizartea hiru talde horietan. Hau da, datu-basea osatzen duten pertsona guztien artean toleranteen osatuko dute toleranteen multzoa, hamar arloetan puntuaziorik handienak eskuratzen dituztenek; datu-baseko pertsona guztien artean tolerantzia gutxien ageri dutenek osatuko dute uzkurren taldea, puntuazio txikiak dituztenek, alegia; eta bi talde horietatik gehien urruntzen direnek osatuko dute anbibalenteena, erdibideko puntuazioak eskuratzen dituztenek, alegia.

K-means sailkapen-analisiaren estatistika-prozesuetan talde-barneko homogeneotasuna eta taldeen arteko heterogeneotasuna aztertuz gero, ondorioztatu dugu onargarria dela banaketa<sup>3</sup> eta egiaz hiru talde bereizi daudela. Talde horien artean, nola ez, azpimarratzekoak dira batez ere herritar toleranteen eta herritar uzkurren arteko aldeak. 2016an, ikusi dugu anbibalenteen taldearen eta toleranteen taldearen artean eta anbibalenteen taldearen eta uzkurren taldearen artean distantzia berbera dagoela; hau da, anbibalenteen taldea toleranteen taldearekin eta uzkurren taldearekin distantziakidea da.

17. taula. Azken konglomeratuen zentroak, 2016

|                           | Toleranteen taldea | Anbibalenteen taldea | Uzkurren taldea |
|---------------------------|--------------------|----------------------|-----------------|
| Bolumenaren pertzepzioa   | 6,45               | 3,80                 | 2,77            |
| Arazoaren pertzepzioa     | 9,47               | 9,24                 | 7,93            |
| Eragina ekonomian         | 7,04               | 4,99                 | 2,67            |
| Eragina euskal gizartean  | 8,00               | 7,31                 | 4,92            |
| Immigrazio-politika       | 6,88               | 5,08                 | 4,06            |
| Erabateko eraginak        | 7,35               | 5,50                 | 3,00            |
| Elkarbizitza ereduak      | 4,49               | 3,31                 | 2,26            |
| Estereotipoak             | 5,93               | 4,02                 | 2,70            |
| Eskubideei heltzea        | 8,25               | 6,58                 | 5,05            |
| Harremanetarako espazioak | 7,03               | 5,48                 | 3,13            |

Iturria: egileek egina.

Galdeketako itemei emandako erantzunen arabera eta hamar arloetan eskuratutako puntuen arabera, talde bateko edo besteko kideztat jotzen da pertsona bakoitza, eta, behin hori eginda, taldeek zer jarrera eta jokabide duten eta hiru taldeek zer ezaugarri dituzten azter dezakegu. Hiru taldeen arteko aldeak nabarmenak dira, aztertutako arloetako bakoitzean talde bakoitzak eskuratutako batez besteko puntuazioetan ikus dezakegun bezala (17. taula). Hor ikusiko dugu pertsona toleranteen taldeak anbibalenteek baino puntuazio altuagoa lortzen duela arlo guztietan, eta bigarren talde horrek, berriz, uzkurrek baino puntuazio altuagoa lortu duela arlo guztietan.


<sup>3</sup>Taldeen arteko tartekak, oro har, talde barruko tartekak baino nabarmen handiagoak dira. Normala den bezala, toleranteen taldearen eta uzkurren taldearen arteko tartea handiagoa da. Talde-barneko tartekak aztertuta, ikusiko dugu puntuazioari dagokionez toleranteen taldea dela homogeneoena, eta uzkurren taldea heterogeneoena.

Aldagai guztiek F balio esanguratsuak dituztela dio bariantza-analisiak, eta horrek adierazten du finkatutako taldeen artean alde esanguratsuak daudela, aztertutako aldagai guztietan.

Toleranteen taldean sailkatutako EAEko herritarrek, aurreko urteetan bezala, balio handiagoak dituzte arlo guztietan: ez dute ikuspegi hain distortsionatua atzerriko immigrazioaren egungo bolumenarekiko, ez dute uste immigrazioa arazo bat denik, immigrazioak ekonomian, gizarte osoan eta EAEko gizarte eta kulturaren alderdi eta efektu onuragarriak dituela ikusten dute, irekia-goak dira administrazioak egin beharko lukeen immigrazio-politikari buruzko iritzietan, ez dute bizikidetzaren ereduak erabat asimilaziozkoak izan behar dutenik pentsatzen, estereotipoen presentzia urria ageri da haiengan, jarrera ireki eta unibertsalagoa ageri dute eskubide eta zerbitzuetarako sarbideari dagokionez eta haien harreman-eremuak irekiago daude pertsonen arteko truke eta elkarrekintzetarako.

Kontrako muturrean, uzkur jokatzeko duten pertsonen taldeak oso puntuazio baxuak ditu eremu guztietan, immigrazio atzerriko arazotzat hartzeko eremuan izan ezik. Argi geratu da, beraz, EAEko gizartearen inork, ezta uzkurren taldeak ere, ez duela immigrazioa arazotzat hartzen. Gainerako balioetan ikusten da atzerriko immigrazioarekiko ageriko jarrera intoleranteak dituztela, eta argi dago, beraz, gure gizartearen zati bat uzkur ageri dela atzerriko etorkinen aurrean, arazo ote diren edo haien kopurua alde batera utzita ere. Izan ere, askotan jarrera horiek etorkinen presentzia baino lehenagotik datoz.

48. grafikoa. Taldeen puntuazioa hamar arloetan (azken zentroak)



Iturria: egileek egina.


Azkenik, anbibalenteek tarteko puntuazioak dituzte eremu guztietan, batzuetan uzkurren taldeak ateratakoetatik hurbilagokoak eta beste batzuetan tolerantien puntuazioetatik hurbilagokoak.

Oro har, hiru taldeen arteko jokabide berezitua aurreko urteetan aipatutakoaren antzekoa da, haien artean alderaketak egiten hasiz gero. Baina talde bakoitzak izandako jokabidea eta lortutako puntuazioak aurreko barometroetakoekin alderatuz gero, nabarmentzeko moduko alderdi

batzuk daudela ohartuko gara. Erreparatu besterik ez dago batzuek eta besteek arlo bakoitzean lortutako puntuazioei:

- Iazko datuen aldean, pertsona tolerantean taldeak jarrera hobea adierazi du arlo batzuetan: hartu beharreko immigrazio-politikari buruzko pertzepzioetan eta jarreretan, eta atzerritarren bolumenaren pertzepzioan. Talde horren jarrera egonkortu egin da arlo hauetan: immigrazioa arazoa delako pertzepzioan, atzerriko immigranteek eskubide eta zerbitzuak eskuratzearen inguruko posizioetan, immigrazioak EAEko gizartean dituen ondorio orokorrei buruzko iritzian eta bizikidetzaren ereduari buruzko jarreretan. Azkenik, talde horrek posizioak galdu ditu eta pertzepzio okerragoa du arlo hauetan: atzerriko immigrazioak EAEko gizartean dituen ondorioei buruzko iritzian, harremanetarako eremuei buruzko pertzepzioan, immigrazioak ekonomian dituen eraginei buruzko usteetan eta immigrazioarekiko estereotipo negatiboari buruzko pertzepzioan.


49. grafikoa. Toleranteen taldea: bilakaera hamar arloetan



Iturria: egileek egina.


- 2015eko datuen aldean, anibalanteen taldeak jarrera hobea adierazi du arlo gehienetan: atzerriko immigrazioa arazoa delako pertzepzioan, immigrazioak EAEko gizartean dituen ondorio kulturalen pertzepzioan, atzerriko immigranteek eskubide eta zerbitzuak eskuratzearen inguruko posizioetan, immigrazioak EAEko gizartean dituen ondorio orokorrei buruzko usteetan, hartu beharreko immigrazio-politikari buruzko pertzepzioan, immigrazioak EAEko ekonomian dituen eraginei buruzko iritzian eta immigrazioarekiko estereotipo negatiboari buruzko pertzepzioan. Aldiz, ia ez ditu aldatu harremanetarako eremuen eta bizikidetzaren ereduaren inguruko pertzepzioak, jarrerak eta iritzia. Azkenik, talde horrek tolerantzia gutxiago adierazi du etorkinen bolumenaren pertzepzioaren inguruan.
- Azkenik, pertsona uzturen taldearen posizioak hobera egin du aztertutako ia arlo guztietan. Aldaketarik izan ez duen arlo bakarra atzerriko immigrazioa arazoa delako pertzepzioa da.

50. grafikoa. Anbibalenteen taldea: bilakaera hamar arloetan



Iturria: egileek egina.

51. grafikoa. Uzkurren taldea: bilakaera hamar arloetan



Iturria: egileek egina.

Hiru talde horietako bakoitzaren batez besteko jokaera aztertuz gero, deskribatutako aldaketek zera esan nahi dute: tolerantzen taldearen tolerantzia-mailak behera egin duela apur bat (ia 1,5 puntu galdu dituzte 2015en aldean), anbibalenteen taldea toleranteagoa dela (ia 2,5 puntu hobetu da) eta uzkurren taldearen jarrerak asko hobetu direla (7 puntutik gora irabazi dituzte).


52. grafikoak adierazten duenez, hiru taldeen puntuazioek estatistikoki esanguratsuak diren aldeak dituzte elkarren artean, eta, hortaz, esan dezakegu alde nabarmenak daudela hiru talde-ek atzerriko immigrazioarekiko dituzten pertzepzio, iritzi, jarrera, sinesmen eta jokabideetan.

2016. urtean, tolerantteen eta uzkurren taldeen arteko etena txikitu egin da: 2015ean 40 puntutik gorako aldea egon zen, eta, 2016an, berriz, 32,5 puntuko aldea egon da.

Azken urteetan antzematen ari garen joerei dagokienez, hauxe nabarmendu dezakegu (52. grafikoa):


- Pertsona tolerantteen taldea, 70.90 puntu bilduta, egonkor mantendu da aztertutako aldian, bere ohiko puntuazio-tartearen erditik gertu (talde horren ohiko puntuazio-tartea 68tik 72ra artekoa da).
- Anbibalenteen taldea ere, 55,31 puntu bilduta, egonkor mantendu da, bere ohiko puntuazio-tartearen goialdean (talde horren ohiko puntuazio-tartea 50etik 56ra artekoa da).
- Pertsona uzkurren taldeak, 38,51 puntu bilduta, izan du aldaketa handiena 2015en aldean: 7 puntutik gora egin du gora baina bere ohiko puntuazio-tartean mantendu da (talde horren ohiko puntuazio-tartea 30etik 42ra artekoa da).

52. grafikoa. Taldeek tolerantzia-indizean lortutako puntuak, 2016



Iturria: egileek egina.

53. grafikoa. Talde nagusiek tolerantzia-indizean lortutako puntuen bilakaera 2008-2016 bitarteko tolerantzia-indizean



Iturria: egileek egina.

Talde bakoitza osatzen duten pertsonen kopurua aztertzeak datuen taula osatzen laguntzen digu: tolerantteen taldeak EAEko 10 biztanletatik 4 baino gehiago biltzen ditu, anbibalenteetan taldeak 10etik ia 4, eta uzkurren taldeak 10etik 2.

Aurreko urteekin alderatzen badugu talde horiek zer tamaina duten, zer puntuazio lortu duten eta tolerantzia-ekalan non dauden, ondorio hauek atera ditzakegu:


- Pertsona tolerantteen taldea 70 puntutik hurbil ibiltzen da urteak joan eta urteak etorri, eta EAEko gizartearen % 40 inguru biltzen du ia urtero. 2011n soilik, krisi betean, ia erdira



murriztu zen. 2015eko datuen aldean, talde horren bolumena ia bera da, baina, talde gisa, anbibalentziarantz jo du apur bat.


- Pertsona anbibalenteen taldea 50-56 bitarteko puntuazioan ibili da segida osoan. 2009an oso talde handia zen, baina badirudi azken garaian egonkortu eta EAEko gizartearen % 40 inguru biltzen duela. 2015en aldean, talde horrek kide batzuk galdu ditu, uzkurren taldera joan baitira, eta horrek berekin ekarri du, talde gisa, posizio hobekia, 55 puntura gerturatzea eta bere ohiko puntuazio-tartearen goialdera gerturatzea.
- Pertsona uzkurren taldea 30-32 bitarteko puntuazioan ibili da segida osoan, eta, 2016an, 7 puntu baino gehiago hobetu, eta bere ohiko puntuazio-tartearen goialdeko puntuazioa lortu du. 2016an, berriro ere EAEko gizartearen % 20 bildu du, aztertutako urte guztietan bezala, baina talde horren jarrerak ez dira aurreko urteetan bezain muturrekoak tolerantzia- eskalan; hots, atzerriko immigrazioaren inguruan dituen diskurtso, jarrera, sinesmen, iritzi eta pertzepzioek iaz baino intolerantzia gutxiago erakutsi dute aurtan.

54. grafikoa. Taldeen tamaina, 2016



Iturria: egileek egina.

55. grafikoa. Talde nagusien tamainaren bilakaera, 2008-2016




Iturria: egileek egina.

Indizeko 65 itemak multzokatu ditugun 10 eremuetan lortutako puntuazio partzialen arabera zehaztu dugu pertsona bakoitza zein taldetakoa den, eta pertsonak talde batean eta bestean zuzen banatu ditugula egiaztatzeko, analisi bereizle bat egin dugu, aurreko urteetan bezala.

Aldagai anitzeko analisi-mota horrek, sailkapena egiteaz gain, aukera ematen digu jakiteko gizabanako bakoitza dagokion taldean zuzen banatu dugun ala ez. Kasu honetan, gizabanako bakoitzak aztertutako hamar eremuetako bakoitzean lortutako puntuazioak dira aldagai askeak, eta talde bateko edo besteko (tolerante, anbibalente, uzkur) kide izatea da mendeko aldagaia. Nahiz eta jakin analisi horrek aukera eman digula gure usteak berresteko eta gizabanakoak taldeka zuzen banatu ditugula egiaztatzeko, azter ditzagun aurrez funtzio bereizleak, gizabanako bakoitza talde batean edo bestean modu egokian banatzeko aukera ematen dutenak.

Bi funtzio bereizleen azterketak argi uzten du biak ere bereizleak direla, baina lehenak (horrek azaltzen du bariantzaren % 95,4) bigarrenak baino askoz diskriminazio-ahalmen handiagoa duela (bariantza osoaren % 4,6 soilik azaltzen du bigarrenak). I. Funtziorako .909 eta II. Funtziorako .430 korrelazio kanonikoek eta Wilks eta Chi lambda karratuko kontraste erabat esanguratsuek (es. 0.000) adierazten dute bi aldagaiak direla bereizleak edo esanguratsuak, nahiz eta bigarrenak korrelazio ertain-baxua izan eta aldakortasuna azaltzeko laguntza handirik ez eman.

56. grafikoa. EAEko biztanle taldeen mapa, 2016. 2016



Iturria: egileek egina.

Funtzio bakoitza osatzen duten aldagaiei dagokienez, egiturazko matrizearen analisiak hau adierazten du:

- Lehen funtzio bereizleak ia arlo guztiak biltzen ditu, baina lehen funtzio horretan, hauek dira, batez ere, eremurik bereizleena: atzerriko immigrazioak EAEko gizartean duen eragin orokorraren pertzepzioa, atzerriko immigrazioak dituen ondorio ekonomikoen pertzepzioa eta estereotipoen pertzepzioa (iaz bezala, baina ez ordena horretan). Eta beste hauek ere funtzio horretan esku hartzen dute: eskubideak eskuratzeari buruzko pertzepzioa, harremanetarako eremuen inguruko pertzepzioa, bizikidetzaren eremuen inguruko pertzepzioa eta immigrazio-politikari buruzko iritzia.

- Bigarren funtzioa arlo hauek osatzen dute: etorkinen bolumenaren pertzepzioak eta atzerriko immigrazioak EAEko gizartean dituen ondorio kulturalen inguruko pertzepzioak<sup>5</sup>.

Lehen funtzioak, batik bat, tolerantteen taldea bereizten du pertsona uzkurren taldearekiko, eta bigarren funtzioak anbibalenteen taldea bereizten du (batik bat) pertsona uzkurren taldearekiko eta tolerantteen taldearekiko. Edonola ere, badirudi bi funtzioek ondo asko diskriminatzen dituztela hiru taldeak; izan ere, azterketa diskriminatzaileak pertsonen % 94-95 inguru sailkatzen du modu egokian eta zuzen (taldekatutako kasu originalen % 95,3 eta balidazio gurutzatu bidez taldekatutako kasu balidatuen % 93,7 zuzen sailkatuta).

Amaitzeko, aurreko urteetan egin dugun bezala, erabaki genuen aztertzea zer aldagai soziodemografiko, sozioekonomiko, ideologiko-identitario, harremani loturiko eta psikosozial eta horien arteko zer multzo dauden lotuago talde batekoa edo bestekoa izatearekin. Hau da, zein ezaugarri lotzen diren modu esanguratsuan pertsona tolerante, anbibalente eta uzkurren taldeekin. Horretarako, kontingentzia-taulak eta korrespondentzia sinpleen AFC analisi faktoriala erabili ditugu (57. grafikoa), oso irtenbide grafiko argigarria eta intuitiboa eskaintzen dutelako, eta koherentea aurreko atalean deskribatutako tipologiaren profilekin.

Hala, behin AFCn egiaztatuta Chisquareak estatistikoki balio esanguratsua duela ( $\text{ChiSquare} = 491,414$ , es. 0,000), eta ezaugarrien eta pertsona tolerante, anbibalente eta uzkurren taldeen arteko loturak adierazten dituela, honako lotura hauek antzeman ditugu:

- Pertsona tolerantteen taldea: batez ere goi-mailako unibertsitate-ikasketak dituzte; gazteak dira (18 eta 29 urte bitartekoak); 20.000 biztanletik gorako udalerrietan bizi dira; euskaraz hitz egiten dute; agnostikoak edo ateoak dira, edo erlijioarekiko ezaxola adierazten dute; ezkerrekoak eta zentro-ezkerrekoak dira; euskaldun sentitzen dira; euskal abertzaleak dira; beren ekonomia-egoerarekin pozik daude; beren familia-unitateak hilean 1.800 eurotik gorako sarrerak ditu; lanean daude edo ikasleak dira; estatus sozioekonomiko altukoak dira; krisiaren eragin ertainak jasan dituzte; baikorrak dira; etorkizuneko aurreikuspen onak dituzte; bertoko jendea nagusi den auzoetan bizi dira; eremu pribatuan harreman handia dute etorkinekin; eremu publikoan noizbehinkako harremanak dituzte etorkinekin, eta aisialdian harreman handia dute etorkinekin.
- Pertsona anbibalenteen taldea (ezaugarri batzuk konpartitzen ditu pertsona tolerantteen taldearekin eta beste batzuk uzkurren taldearekin): pertsona helduak dira (64 urtetik gorakoak); lehen mailako ikasketak dituzte; 5.000 biztanletik 20.000 biztanlera arteko udalerrietan bizi dira; katolikoak dira, praktikanteak izan ala ez; ez dute euskaraz hitz egiten; zentroko edo eskuineko ideologia dute; euskaldun bezain espainiar sentitzen dira edo euskaldun bainoago espainiar sentitzen dira; espainiar nazionalistak direla diote; erretiratuak dira, edo etxea zaintzen lan egiten dute; beren egoera ekonomikoarekin ez daude ez gustura eta ez disgustura; hilean gehienez 1.800 euroko diru-sarrerak dituzte; krisiak ez die askorik eragin; estatus apala dute; ezkor samarrak dira; bertokoen eta immigranteen nahasketa dagoen auzoetan bizi dira; eremu pribatuan noizbehinkako harremanak dituzte etorkinekin, eta eremu publikoan eta aisialdian ez dute inolako harremanik etorkinekin.

<sup>5</sup>Honaino aztertutako datuak ikusirik espero izatekoa zenez, EAEko gizarteak atzerriko immigrazioaz duen pertzepziari buruzko aldagaia ez da bereizlea.



# 5

## Ondorioak

2016ko barometro honetan jaso eta aztertutako datuak aintzat hartuta, uste dugu garrantzitsua dela honako ondorio hauek azpimarratzea:

1. 2016an, azken urteetako joerari jarraituz, jarrerak apur bat hobera egin dute 2015en aldean. Indizean, 59,04 puntu eskuratu ditugu.
2. Nolanahi ere, aurreko urteetan antzemandako argi-ilun nagusiek beren horretan dira. EAEko gizartea kontraesankorra eta anibalentea da: gauza batzuetan oso irekiak, tolerantak eta solidarioak gara, baina beste gauza batzuetan jarrera uzkurra adierazten dugu eta ezkortasunez eta mesfidantzaz jokatzeko dugu.
3. Datuei erreparatuta, agerikoa dirudi gure tolerantzia-indizea etorkizunarekiko dugun konfiantzarekin edo mesfidantzarekin, baikortasunarekin edo zalantzarekin lotuta dagoela. Horixe ikusi dugu azken urteetan (2013-2016) eta horixe ikusi genuen krisiaren hasieran (2009-2012): krisia handitu ahala tolerantzian behera egin genuen, eta krisitik irteten garen heinean tolerantzian gora egiten dugu. Hauxe da gure hipotesia: gure zero-muga argitzen bada, jarrera, diskurtso, jokabide eta portaera tolerantetakoak hartu ahalko ditugu, baina ikusi beharko da eredu diren herrialdeetan (AEBn, Frantzia, Erresuma Batuan...) sortzen ari diren permisibitateak eta ziurgabetasun-eremuek nola eragiten dieten gure jarrera, sinesmen eta jokabideei.
4. Gure datuek agerian uzten dutenez, atzerriko immigrazioaren fenomeno normalizatzen ari da EAEko gizarteetan: munduan ziurgabetasun politikoa nagusi izan arren eta lanarekin, ekonomiarekin eta etikarekin (ustelkeria politikoarekin) loturiko kezka handiak izan arren, EAEko gizarteak ez du, inola ere, immigrazioaren gaia arazotzat hartzen.
5. Garrantzitsua iruditzen zaigu bi arlo aztertzea. Azken urteetan, EAEko gizarteak bizikidetzaren ereduaren inguruan dituen jarrerak ez dira hobetu, eta tolerantzia-maila apalak dituzte oraindik ere. Harremanetarako eremuei dagokienez (alegia, EAEko biztanleen tolerantzia-maila auzoen osarearekiko, atzerriko etorkinen presentziarekiko, etorkinek saltokiak izatearekiko, etorkinek jendaurrean beren janzkera erabiltzearekiko, etorkinen kultura- eta erlijio-ohiturekiko, eta abarrekin), ikusi dugu 2016an arlo horrek nabarmen egin duela atzera.

6. EAEko biztanleak hiru taldetan sailkatzen ditugularik, tolerantreak, anbibalenteak eta uzkurak, 2016an honako aldaketa hauek hauteman dira: a) tolerantreen taldeak kide kopuruari eutsi dio, baina haren tolerantzia-mailak behera egin du apur bat; b) anbibalenteen taldeak, berriz, kide batzuk galdu ditu (kide horiek uzkurren taldera lerratu dira), baina, ordainetan, talde horren tolerantzia-jarrerak hobera egin dute apur bat; c) uzkurren taldeak anbibalenteen taldetik etorritako kide batzuk bereganatu ditu (ia 3 puntu gehiago), eta horrek adierazten du, orobat, talde horrek immigrazioarekiko adierazitako jarrerak eta tolerantzia nabarmen hobetu direla (ia 7 puntu egin du gora uzkurren tolerantzia-indizeak).
7. Taldeen arteko etena txikitu egin da 2016an: EAEko gizartea, oro har, tarteko eremuan gelditzen da (59,04), tolerantreen taldea 70,90 puntura iristen da, anbibalenteak 55,31 puntu lortu ditu, eta uzkurren taldea 38,51 puntu eskasetan gelditzen da.
8. 2016an, ideologia da jokabideak gehien bereizten dituen aldagaia, jokabide, jarrera eta sinesmenak iragartzeko ahalmen handiena duena, eta ikasketa-mailaren (aldagai garrantzitsuena izan ohi denaren) iragarpen-ahalmena bigarren mailan gelditu da. Hortaz, ezkerreko ideologia duten pertsonak tolerantzia-maila handiagoarekin lotuta daude, eta zentroko eta eskuineko ideologia dutenak jarrera, iritzi eta jokabide itxiagoekin.
9. 2016eko barometroko datuen arabera, immigrazioaren aurrean tolerantzia-maila txikien dutenen artean hiru profil bereiz daitezke: 1) modu objektiboan eta subjektiboan, norberaren eta gizarte-arloko egoerari dagokionez, ahultasun handiko egoeran daudenak (kualifikazio-maila txikia dute, bai eta kalitate txikiko lana, diru-sarrera txikiak, ekonomiari dagokionez gogobetetze-maila txikia eta etorkizunari begira ziurgabetasun handia ere, eta oso ezkorak dira); 2) ideologiari dagokionez, nortasun autoritarioa eta dogmatikoa duten pertsonak (helduenak dira, zentroko edo eskuineko ideologia politikoa dute, gehienbat espainiar sentitzen dira, nazionalista espainiarrak direla aitortzen dute, eta katolikoak dira –praktikanteak izan ala ez–); 3) atzerritarrekin harremanik ez duten pertsonak, EAEko gizartearen aniztasunetik kanpo gelditzen direnak (ez dute harremanik atzerritarrekin ez eremu pribatuan, ez publikoan, ez eremu fisikoan eta ez aisialdian).

## ERANSKINA

Honako hauek dira arlo bakoitzari esleitutako aldagaiak eta egin ditugun haztapenak:

- **BOLUMENA.** Etorkinen bolumenaren pertzepzioa, Otik 10erako eskala, honako hauen batukaria:
  - 3. galdera: Otik (gehiegi), 1 (nahikoa), 2 (kopuru egokia) eta 3ra (gutxi edo ez dira nahikoa) kodetua,
  - 5. galdera: Otik (gehiegi), 1 (nahikoa), 2 (kopuru egokia) eta 3ra (gutxi edo ez dira nahikoa) kodetua,
  - 4. erantzuna: Otik (% 30 baino gehiago), 1 (% 21-30), 2 (% 11-20), 3 (% 6-10) eta 4ra (% 0-5) kodetua.
- **ARAZOA.** Arazotzat hartzea, Otik 10erako eskala, honako hauen batukaria:
  - 1. galdera: Otik (arazoa 1. aipamenean), 1 (arazoa 2. aipamenean), 2 (arazoa 3. aipamenean) eta 3ra (ez da aipatzen) kodetua,
  - 2. galdera: Otik (arazoa 1. aipamenean), 1 (arazoa 2. aipamenean), 2 (arazoa 3. aipamenean) eta 3ra (ez da aipatzen) kodetua,
  - 25. galdera: Otik (arazoa 1. aipamenean), 1 (arazoa 2. aipamenean), 2 (arazoa 3. aipamenean) eta 3ra (ez da aipatzen) kodetua.
- **EKONOM.** Ekonomian dituen eraginak, Otik 10erako eskala, honako hauen batukaria:
  - 6a galdera: Otik (erabat ados), 0,5, 1, 1,5 eta 2ra (erabat kontra) kodetua,
  - 6c galdera: Otik (erabat kontra), 0,5, 1, 1,5 eta 2ra (erabat ados) kodetua,
  - 6e galdera: Otik (erabat kontra), 0,5, 1, 1,5 eta 2ra (erabat ados) kodetua,
  - 19j galdera: Otik (erabat ados), 0,5, 1, 1,5 eta 2ra (erabat kontra) kodetua,
  - 26a galdera: Otik (bai) 2ra (ez) kodetua.
- **EUSKGIZARTEA.** EAeko gizartean dituen eraginak, Otik 10erako eskala, honako hauen batukaria:
  - 19e galdera: Otik (erabat ados), 0,5, 1, 1,5 eta 2ra (erabat kontra) kodetua,
  - 24a galdera: Otik (erabat ados), 0,375, 0,75, 1,125, eta 1,5era (erabat kontra) kodetua,
  - 24b galdera: Otik (erabat ados), 0,375, 0,75, 1,125, eta 1,5era (erabat kontra) kodetua,
  - 24c galdera: Otik (erabat ados), 0,375, 0,75, 1,125, eta 1,5era (erabat kontra) kodetua,
  - 24d galdera: Otik (erabat ados), 0,375, 0,75, 1,125, eta 1,5era (erabat kontra) kodetua,
  - 26e galdera: Otik (bai) 2ra (ez) kodetua.
- **ERAGINAK.** Eraginak guztira, Otik 10erako eskala, honako hauen batukaria:
  - 8. galdera: Otik (okertu egin da), 0,5era (berdin gelditu da) eta 1era (hobetu egin da) kodetua
  - 19k galdera: Otik (erabat kontra), 0,5, 1, 1,5 eta 2ra (erabat ados) kodetua,
  - 26b galdera: Otik (bai) 1era (ez) kodetua,
  - 26c galdera: Otik (bai) 1era (ez) kodetua,
  - 26d galdera: Otik (bai) 1era (ez) kodetua,
  - 27. galdera: Otik (negatiboak) 4ra (positiboak) kodetua.
- **BIZIKIDETZA.** Bizikidetza-ereduak, Otik 10erako eskala, honako hauen batukaria:
  - 19a galdera: Otik (erabat kontra), 0,25, 0,5, 1, 1,5 eta 2ra (erabat ados) kodetua,
  - 19b galdera: Otik (erabat ados), 0,375, 0,75, 1,125 eta 1,5era (erabat kontra) kodetua.

- 19c galdera: Otik (erabat ados), 0,375, 0,75, 1,125 eta 1,5era (erabat kontra) kodetua,
  - 19g galdera: Otik (erabat ados), 0,25, 0,5, 1, 1,5 eta 2ra (erabat kontra) kodetua,
  - 19h galdera: Otik (erabat kontra), 0,375, 0,75, 1,125 eta 1,5era (erabat ados) kodetua,
  - 19i galdera: Otik (erabat ados), 0,375, 0,75, 1, 1,125 eta 1,5era (erabat kontra) kodetua,
- ESTEREOT. Estereotipoak, Otik 10erako eskala, honako hauen batukaria:
    - 6g galdera: Otik (erabat ados), 0,25, 0,5, 0,75 eta 1era (erabat kontra) kodetua,
    - 6h galdera: Otik (erabat ados), 0,25, 0,5, 0,75 eta 1era (erabat kontra) kodetua,
    - 6i galdera: Otik (erabat ados), 0,25, 0,5, 0,75 eta 1era (erabat kontra) kodetua,
    - 6j galdera: Otik (erabat ados), 0,25, 0,5, 0,75 eta 1era (erabat kontra) kodetua,
    - 14a galdera: Otik (erabat ados), 0,25, 0,5, 0,75 eta 1era (erabat kontra) kodetua,
    - 14b galdera: Otik (erabat ados), 0,25, 0,5, 0,75 eta 1era (erabat kontra) kodetua,
    - 14c galdera: Otik (erabat kontra), 0,25, 0,5, 0,75 eta 1era (erabat ados) kodetua,
    - 19d galdera: Otik (erabat ados), 0,25, 0,5, 0,75 eta 1era (erabat kontra) kodetua,
    - 19f galdera: Otik (erabat ados), 0,25, 0,5, 0,75 eta 1era (erabat kontra) kodetua,
    - 19m galdera: Otik (erabat ados), 0,25, 0,5, 1, 0,75 eta 1era (erabat kontra) kodetua.
- ESKUBIDEAK. Eskubideak eta zerbitzuak eskuratzeko aukera, Otik 10erako eskala, honako hauen batukaria:
    - 15a galdera: Otik (inork ez), 0,75era (erregularizatutakoek) eta 1,5era (guztiak) kodetua,
    - 15b galdera: Otik (inork ez), 0,75era (erregularizatutakoek) eta 1,5era (guztiak) kodetua,
    - 15c galdera: Otik (inork ez), 0,5era (erregularizatutakoek) eta 1era (guztiak) kodetua,
    - 15d galdera: Otik (inork ez), 0,5era (erregularizatutakoek) eta 1era (guztiak) kodetua,
    - 15e galdera: Otik (inork ez), 0,5era (erregularizatutakoek) eta 1era (guztiak) kodetua,
    - 15f galdera: Otik (inork ez), 0,5era (erregularizatutakoek) eta 1era (guztiak) kodetua,
    - 15g galdera: Otik (inork ez), 0,5era (erregularizatutakoek) eta 1era (guztiak) kodetua,
    - 16a galdera: Otik (inork ez), 0,25era (erregularizatutakoek) eta 0,5era (guztiak) kodetua,
    - 16b galdera: Otik (inork ez), 0,25era (erregularizatutakoek) eta 0,5era (guztiak) kodetua,
    - 16c galdera: Otik (inork ez), 0,25era (erregularizatutakoek) eta 0,5era (guztiak) kodetua,
    - 16d galdera: Otik (inork ez), 0,25era (erregularizatutakoek) eta 0,5era (guztiak) kodetua.
- HARREMANAK. Harremanetarako eremuak eta kultura-ohiturei eustea, Otik 10erako eskala, honako hauen batukaria:
    - 18a galdera: Otik (gaizki), 0,5era (berdin), eta 1era (ondo) kodetua,
    - 18b galdera: Otik (gaizki), 0,5era (berdin), eta 1era (ondo) kodetua,
    - 18c galdera: Otik (gaizki), 0,5era (berdin), eta 1era (ondo) kodetua,
    - 18d galdera: Otik (gaizki), 0,5era (berdin), eta 1era (ondo) kodetua,
    - 18e galdera: Otik (gaizki), 0,5era (berdin), eta 1era (ondo) kodetua,
    - 18f galdera: Otik (gaizki), 0,5era (berdin), eta 1era (ondo) kodetua,
    - 18g galdera: Otik (gaizki), 0,5era (berdin), eta 1era (ondo) kodetua,
    - 18h galdera: Otik (gaizki), 0,5era (berdin), eta 1era (ondo) kodetua,
    - 22. galdera: Otik (desberdinik ez), 0,5era (desberdin batzuk) eta 1era (desberdin asko) kodetua.
    - 33. galdera: Otik (Otik 3ra), 0,5era (4tik 6ra) eta 1era (7tik 10era) kodetua.
- POLITIKA. Immigrazio-politika, Otik 10erako eskala, honako hauen batukaria:
    - 6d galdera: Otik (erabat ados), 0,375, 0,75, 1, 1,125 eta 1,5era (erabat kontra) kodetua,
    - 6f galdera: Otik (erabat ados), 0,375, 0,75, 1, 1,125 eta 1,5era (erabat kontra) kodetua,
    - 9. galdera: Otik (erabat debekatu), 1,5 eta 3ra (oztoporik ez) kodetua.



- 10. galdera: Otik (guztiak kanporatu), 1 (itzultzeko bitartekoak), 2 (langileak erregularizatu) eta 3ra (guztiak erregularizatu) kodetua,
- 11. galdera: Otik (inoiz ez), 0,5era («baldintzak») eta 1era (mugarik ez) kodetua.

Inkestatutako pertsonen erantzunek 65 aldagairen arabera osatutako indizea lantzen dugunez, urtero bezala beste zailtasun erantsi bat izan dugu: inkestatutako pertsonen galdera gehienei erantzun dieten arren, askotan gertatu da norbaitek galdera bati erantzun nahi ez izatea, edota norbaitek erantzun baliagarrik ez ematea. Eta tolerantzia-indizean azken puntuazioa kalkulatzeari galarazten digu horrek.

Erantzun baliagarri gehienak ez galtzeko, galdutako balioen (eman gabe gelditu diren erantzunen) ordezkioak (beste erantzun batzuk) egoztearabaki dugu. Aurreko urteetan bezala jokatu dugu: 65 aldagai zuzenetako bakoitzean, datu-base osoan aldagai horretan lortutako batez besteko puntuazio eman diogu galdutako balioari. Galdutako balioak egotzita, arloz arloko puntuazioak kalkulatu ditugu eta, ondoren, tolerantzia-indizean puntuazio osoa eskuratu dugu.





**BAROMETROA 2016**  
**ATZERRIKO IMMIGRAZIOAREKIKO PERTZEPZIOAK ETA JARRERAK**

|                              |  |
|------------------------------|--|
| Galdeketa-zenbakia           |  |
| Data (eguna-hilabetea-urtea) |  |
| Udalerrria                   |  |
| Probintzia                   |  |
| Inkestagilea                 |  |

